



## Gai monografikoa

# **Erlatibo aukerak euskaraz. Ikasi eta irakatsi**

*Bittor Hidalgo*

*Lan honetan, bi esparru nagusi jorratuko ditugu. 1. atalean, izen ardatzaren ezkerreko erlatibo arrunt kanonikoak aipatzeaz gain, zabal arituko gara izen ardatzaren eskuin (ere) hedatzen diren erlatibo jokatuaz. Eta 2. atalean bereziki aipatuko ditugu euskaraz erlatibatzen zail edo bitxi gertatzen diren egiturak (gizona, zeinaren etxea ..., gizona zeinarekin ..., gizona zeinarengan... itxurakoak), eta euskaldunok eguneroko hizkeran halakoak arruntago emateko erabili ahal eta ohi ditugun moduez zeinismoaz beste (bereziki izenordain erresuntiboen<sup>1</sup> erabilera). Atal nagusi hauez gain, 3. atalean aipatuko ditugu aditz jokatuaz bidezko erlatiboak (izen ardatzaren ezker eta eskuin). 4.a eskainiko diegu ageriko izen ardatzik gabeko erlatibo libreei. Eta 5.ean aipatuko ditugu izenen mendeko diren beste era bateko esaldi izenlagunak.*

*Lan honek dibulgaziokoa eta didaktikoa nahi luke izan izenen esaldi laguntzaile mota "guztion" inguruan, eztabaida eta frogaketa sako-negietan sartu gabe. Baina jakin bedi honen oinarrian badela ikerketa lan burutsuagorik. Batez ere, De Rijk eta Oihartzabalenak, Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordearen 1999ko Perpaus erlatiboak (EGLU-V deituko duguna), Alberdi, Garcia eta Ugartebururenak, eta Hidalgorenak (2002a, 2002b, 2003, 2004a, 2004b).*

---

1. Izenordain erresuntibo deitzen diegu aurreko erreferentzia bat gero modu laburragoan (*erresun-m-itu*) gogorarazten digutenei (ik. 2.2. atala).

## **0. Esaldi erlatiboak euskaraz**

Euskaraz erlatiboen gainean hitz egiten dugunean, ikasle euskaldun berriei zein zaharrei, behin eta berriz azpimarratzen diegu euskarazko eta erdarazko erlatiboen arteko aldea: kontrakotasuna. Nola eman ohi diren erdaraz erlatiboak argitu nahi duten izen haren ondotik, eta aldiz, euskaraz, honen aurretik, ezkerretik. Eta ondo dago hala egitea, hala gertatzen baita euskal erlatibo gehienetan (~%70). Ordea, euskal erlatiboen multzo handi bat eman ohi da beti (~%30), eta gaur egun ere, argitu nahi dugun izen haren eskuinetik.

Gure eskoletatik ateratako ikasleek, ordea, soilik ezkerretiko erlatiboak kontsideratzen dituzte zilegi euskaraz idazteko, itzultzeko, ..., nahiz gero erruz erabiltzen ditugun denok mota bateko edo besteko eskuin erlatiboak gure bat-bateko hizkeran (berrero, kasuen ~%30ean), kontzientzia txarrez bada ere konturatzen garen orduko. Eta maiz baztertu eta zuzentzen ditugu halakoak, pentsatuz, inguruko erdaren eraginpekoak-edo direla.

Hori, ordea, ez da hala. Ze, ezkerreko erlatiboek, luzatu ahala, prozesatze-zailtasunak eragiten dituzte. Eta euskal hiztun-idazleak, jakinaren gainean edo gabe, hainbat gutxiago erabili ohi ditu ezkerreko erlatiboak zenbat eta hauek luzeago izan, halakoetan prozesatzen errazago gertatu ohi diren eskuinetiko erlatiboen mesedetan. Eta hain zuzen, esaldi luze zail arazotsu horietarako dugu bereziki garrantzizko eskuineko erlatiboan ezagutza, baztertutxua eduki ohi duguna. Gainera, esaldi laburretan ere eskuineko erlatiboak beti izango dira hiztunaren aukera estilistikoetako bat ere bederen. Bestalde, zabala da ere gure artean ustea euskaraz inguruko erdaretan baino gutxiago erabiltzen ote diren erlatiboak (edo gutxiago erabili behar ote diren), nahiz, dakigunean, oraindik ez den egin halako usterik baieztatuko lukeen azterketa serioirik.

Guk dakiguna da euskaraz ere oso estilo desberdinak erabili ohi direla erlatibo kopuruaren inguruan ere (Hidalgo 2002a, 40).<sup>2</sup>

Eta gomendatu ohi da, batez ere itzulpenean, saiatzeko, erlatiboen ordeztasun beste era bateko egiturak erabiltzen. Eta seguru asko da ahalegin hori ere inoiz beharrezko. Baina horretarako, lehenbizi, ongi ezagutu, ikasi eta irakatsi beharra daukagu zein diren euskaldunon egitura erlatiboak, *guztiak*, eta noiz eta nola erabili ohi dugun bakoitza.

### *0.1. Esaldi erlatiboaren kokatze baterako*

Esaldi erlatibo deituko ditugu adjektibo edo izenlagunen papera betetzen duten esaldiak, *izen ardatz* deituko dugun izen baten zehazten, argitzen edo osatzen. *Oso jatorra da gizona* esaldian, argitu edo zehaztu genezake *delako gizona* nor edo nolakoa den, besteak beste, *gizon hau* partaide deneko beste esaldi bateko argigarriak emanez (*Gurekin etorri da gizona* esaterako). Hala: *Oso jatorra da gurekin etorri den gizona*. Halako esaldi argigarriari deitu ohi diegu erlatibo.

---

2. Bertan emandako datuen arabera, esaterako, Websterren ahozko ipuin bilduman 2,2 erlatibo ageri dira 100 esaldi nagusiko (kopuru baxuena). Gaur eguneko prosa idatzian eta aztertutako idazle klasikoenean, batez beste %35 inguru. Hala moduz ere gaur eguneko ahozko zenbait erabileretan (Hezkuntza legearen eztabaida). Baina Axularrek %60ko proportzioa du. Ahozko zenbait jardunek ere (Krisiaren eztabaidan) %63,6 eta %70,8. Mendibururen 1760 inguruko itzulpenetan %94,4. Eta Aranburu eta Bagoren medikantzako dibulgazio-liburu *euskara jator eta errazekoan* (argitaratzaileak dio) %202,9koa (bi esaldi erlatibo nagusi bakoitzeko). Beraz, kasu honetan ere komeniko da ihes egitea orokortze errazenetatik.

Nolanahi, badira izen ardatz berezi batzuk ere, beren barne, «ideiak»-edo gorde ditzaketenak: *itxaropena* esaterako. Eta izen hauen argigarri eman litezke «esaldi-idea horiek» modu batera edo bestera adjektiboak edo izenlagunak balira bezala: *Badut itxaropena **Olatz etorriko dela** / Oraindik ez dut galdu **Olatz etorriko delako** itxaropena*. Halako esaldiak, *izenaren osagarriak* dira (hala deituko ditugu –zuzen edo oker, ez dira-eta erlatibo kontsideratu ohi–), eta jokabide bereziak erakusten dituzte. Halakoez ari gara 5. atalean.

## 1. Erlatibo jokatuak, izen ardatzaren ezker eta eskuin

Erlatibatzen zail edo erraz, esaldi erlatiboak euskaraz aditz jokatuz egin ohi dira maizenik eta arruntenak izen ardatzaren aurretik eman ohi dira, ezkerretik, (1)ekoak bezala. Euskaraz, ordea, arruntak dira, bakoitza bere mailan, (2-10) bitartekoen gisakoak ere, osorik edo atalen batean izen ardatzaren ondotik ematen direnak, eskuinetik.

A. IZEN ARDATZAREN EZKERREKO ERLATIBOAK (~%70)	B. IZEN ARDATZAREN ESKUINEKO ERLATIBOAK (~%30)	
<p><b>1. ERLATIBO ARRUNTAK (~%70)</b> (1) Oso jatorra da <i>gurekin etorri den gizona</i>.</p>	<p><b>2. ERLATIBO HAUTSIAK (~%5/~%8)</b> (2) Oso jatorra da <i>gurekin etorri den gizona azken hoge kilometroetan</i>.</p> <p><b>3. IZEN ARDATZ DETERMINATU GABEEN ONDOKO ERLATIBOAK (~%4)</b> (3) Oso jatorra da <i>gizon gurekin etorri dena</i>.</p>	<p><b>4. IZEN ARDATZ DETERMINATUEN ONDOKO ERLATIBOAK (~20%)</b></p> <p>a. <i>-(E)N...</i> APOSIZIOAK (~&gt;%10) (4) Oso jatorra da <i>gizona, gurekin etorri dena</i>.</p> <p>b. <i>BAIT-</i> ERLATIBOAK (5) Oso jatorra da <i>gizona, etorri baita gurekin</i>.</p> <p>c. <i>BA(DA)</i> AZALPENAK (6) <i>Gizona, etorri da ba gurekin azken hoge kilometroetan</i>, oso jatorra da.</p> <p>d. <i>ZEIN...</i> ERLATIBOAK (7) Oso jatorra da <i>gizona, zein(a) gurekin etorri baita/den azken hoge kilometroetan</i>.</p> <p>e. <i>NOLA/ZELAN</i> GALDEGILE BIDEZKO AZALPENAK (8) <i>Gizona, nola/zelan etorri da (ba)/den/baita gurekin azken hoge kilometroetan</i>, (ba)oso jatorra da.</p> <p>f. <i>ZEINAH</i> GALDEGILE BIDEZKO AZALPENAK (9) <i>Gizona, zein/nor etorri da (ba)/den/baita gurekin azken hoge kilometroetan</i>, (ba) oso jatorra da.</p> <p>g. <i>ZEINAH</i> ESALDI/GALDERA INDEPENDENTE BIDEZKO AZALPENAK (10.a) <i>Gizon bat etorri da (ba) gurekin azken hoge kilometroetan</i>, (ba) oso jatorra da. (10.b) <i>Nor etorri da (ba) gurekin azken hoge kilometroetan?</i> (ba) oso jatorra da.</p>

Bitxiki, hizkuntza erregistro desberdinetan ere, aho zein idatzi, jantzi zein arrunt, nahiko finkoa da beti hitzun-idazleek darabilten izen ardatzaren ezkerreko erlatiboaren proportzioa (~%70), eta eskuinekoa (~%30). Are hauen artean ere, erlatibo hautsiena (~%5-8), izen ardatz determinatu gabeen ondokoena (~%4) eta izen ardatz determinatuen ondokoena (~%20).

1.1. Ardatzaren ezkerreko erlatibo jokatu arruntak (~%70)

Esan bezala, esaldi *nagusi* bat dugularik (*Oso jatorra da gizona*) argitu litezke bertako izenak hauek ageri direneko esaldi *argitzaileen* bidez (*Gizona gurekin etorri da azken hoge kilometroetan*). Nola egiten dugu?

1. Esaldi *argitzailean* ezabatuko da errepikatuko litzatekeen izena (*izen ardatz isildua* deituko dugu).

- ~~Gizona~~ gurekin etorri da azken hoge kilometroetan.  $\Rightarrow$  gurekin etorri da azken hoge kilometroetan

2. Esaldi *argitzaileko* beste osagarriak aditzaren ezkerrean eramango dira hau amaierarako utzita.

- gurekin etorri da azken hoge kilometroetan  $\Rightarrow$  azken hoge kilometroetan gurekin **etorri da**<sup>3</sup>

3. Esaldi *argitzaileko* amaierako aditzari *-(e)n* menderagailua erantsiko diogu.

- azken hoge kilometroetan gurekin etorri da + *-(e)n*  $\Rightarrow$  azken hoge kilometroetan gurekin **etorri den**

4. Aditzaren ondore justuan emango da *argitu* nahi den izena, esaldi nagusian dagokion kasuan eta lekuan.

- azken hoge kilometroetan gurekin etorri den + *gizona*  $\Rightarrow$  azken hoge kilometroetan gurekin **etorri den gizona**

Hala osatutako izen sintagma bat zeinahi kasutan erabil liteke esaldi nagusian eta zeinahi determinante motarekin, mugarik gabe:

(11) ... azken hoge kilometroetan gurekin **etorri den gizona** / **gizon** BAT / **gizon** HAU / **gizon** ORO / **gizon** HAINBAT / **gizon**AK / **gizon**ARI / **gizon**AREKIN / **gizon**ARENZAT / **gizon**ARENGAN / **gizon**ARENGATIK / **gizon**ARENEAN / **gizon**ARENERAINO / ...

Kontu korapilatsuxeagoa da zehaztea zein kasutan egon litekeen esaldi argitzailearen barreneko *izen ardatz isildua*, erlatibatuko dena. Aukerak mugatu-xeagoak dira. Baina horretaz hitz egingo dugu 2. atalean.

Dakigunean (Hidalgo 2004b), hala osatutako *erlatibo arruntak* dira ugarrienak alde eta aldi guztietako euskaran. Ahozko zein idatzizko erlatiboaren 10etik 7 inguru (%69,6). Eta maizen erabiltzen ditugun erlatibo laburren arte-

3. Beti hartu behar da kontuan, nolana, bi esaldiak, ordena desberdinean, informazioaren egitura eta transmisioaren aldetik ez direla berdinak. Hemen ez ditugu kontuok garatuko, baina aurki liteke halako eztabaidatarako hurbilpen bat Hidalgo (2000a,b)n.

an %82,7 inguru ere bai (0, 1 edo 2 osagarrikoak <sup>4</sup> –eta halakoak ohi dira euskaraz 10 erlatibotik 7 inguru ere; %71,5 edo–). Baina, oro har, izen ardatzaren eskuinetik osatutakoak, erlatibo «ez arruntak», ohi dira euskaraz 10etik 3 ere (%30,4). Eta luzeagoen artean, 2 osagarri baino gehiagoko erlatiboen artean, 10etik 6 ere bai (%63,2); ezkerreko erlatibo erabilera jaitsiz 10etik 4raino ere (%36,8), galduaz hauek erlatiboen *arrunt* kategoria bera. Erlatibo *luzeagook* ohi dira euskaraz 10etik 3 inguru behintzat –%28,5–. Nolanahi, are 0, 1 edo 2 osagarriko erlatibo laburren artean ere %17,3 dira osorik edo atalen batean izen ardatzaren eskuinetik eman ohi direnetakoak, ahoz zein idatziz, modu desberdinetan, erlatibo «arruntak» bezain euskarazkoak.

Zer gertatzen da erlatiboen hamarretik beste hiru horrekin?

1.2. *Izen ardatzaren eskuineko erlatiboak (~%30)*

Osorik edo atalen batean izen ardatzaren eskuinetik eman ohi diren %30,4 erlatibo horiek mota desberdinetakoak izan litezke:

1. *Erlatibo hautsiak.*

2. *Izen ardatz determinatu gabeen ondoko erlatiboak.* Eta

3. *Izen ardatz determinatuen ondoko erlatiboak*, modu desberdinetan:

3.1. *-(e)n... aposizioak.*

3.2. *Bait- erlatiboak*

(-eta ahozko- 3.2.1. *Ba(da) azalpenak*).

3.3. *Zein... erlatiboak*

(-eta hauen inguru, ahozko hizkerako

3.3.1. *Nola/zelan azalpenak*

3.3.2. *Zeinahi galdegile bidezko azalpenak*, edo

3.3.3. *Zeinahi esaldi eta galdera independente bidezko azalpenak*).

Hurrengo ataletan azalduko ditugu hurrenez hurren. Esaldi mota hauetako bakoitzak ditu bere erabilera-ezaugarri propioak. Baina, oro har, izen ardatzaren eskuinetiko erlatiboen erabilera estu lotua dago esaldion luzerarekin. Begi bistakoa da, zenbat eta ezkerreko erlatibo arrunta luzeagoa izan, orduan eta beranduago ageriko dela izen ardatza esaldi nagusian. Eta horrek maiz prozesatze-zailtasunak eragiten ditu eta hizketaren haria galarazi mezu-hartzaileari zein emaileri.

Hiztunak bere nahaste propioa saihesteko erabili ohi ditu eskuinetiko erlatiboak –izen ardatza agudo aipatu, eta geroago honen ezaugarri(luze)ak–, aldi berean erraztuz hala mezu-hartzailearen deskodetze-lana. Nolanahi, esaldi laburren artean ere, aipatu bezala, beti aurki litezke eskuinetiko erlatiboak.

4. Kasuan osagarritzat emanaz esaldiko sintagma minimoetako bakoitza: *-(r)en, -(e)ko* izenlagunak, junta-gailu bidez koordinatutako sintagma bakoitza, eta mendeko esaldietan aditza bera ere bai dagokion erlazio atzikiarekin (ik. Hidalgoren 2002/3/4 lanak). Beraz, estatistikei dagokienez, *osagarri=osagarri labor*.

Baina baita ere luzeenen artean ezkerrekoak. Azken batean, beraz, batzuen zein besteen erabilera ez da izanen, beti ere, hiztun-idazlearen aukera estilistikoa baino.

1.2.1. *Erlatibo  
hautsiak  
(~%5 / %8)*

*Erlatibo hautsiak* dira arrunten gisa izen ardatzaren ezkerretik abiatutako esaldiak, baina artean osagarriren bat erakutsiko dutenak ardatz horren eskuintetik ere, (2)ko adibidearen moduan (hemen errepikatua):

(12) Oso jatorra da *gurekin etorri den gizona azken hoge kilometroetan*.

Hautsia deitu dugu *azken hoge kilometroetan* osagaia, aurreko *etorri* aditzaren osagarri izaki, erlatiboak zehazten duen *gizon* izen ardatzaren ondoretik emana delako, eta, hala, erlatiboa, bitan hautsia. Ia gaur arte izan dira gaitzeziak halako erlatiboak euskal gramatiketan, EGLU-Vek lehenbiziko aitoren agerikoa egiten dien arte (184), nahiz erabilera gomendatu ez' *kontu handiz erabiltzeko ez bada*. Hala ere, erlatibook ere badute bere lekua euskarazko ahozko eta idatzizko ohiko erabileretan (Hidalgo 2002a, 2004b).

Ez dira maizenekoak euskaraz, baina ez eta ere orain arte uste bezain ezustekoak. Halakoa izan liteke euskaraz, oro har, 20 erlatibotik 1 inguru (%4,8 edo). Eta nahikoa maizagokoak erlatibo luzeagoen artean: %10,1; %11,1 edo %16,1 ere bai, hurrenez hurren, 3, 4 edo 5 edo osagarri gehiagokoen artean, nahiz %1,4 eta %2,3 baino ez, 1 eta 2 osagarrikoen artean.

Soilik izen ardatzaren ezkerretik abiatutako erlatiboak hartuaz kontuan (*erlatibo arruntak* eta *hautsiak*), azken hauen proportzioa, oro har, %8ra igotzen da. Eta erlatibo luzeenen artean, ezkerretik abiatutako guztien erdia dira ia: %41,2; %42,5; eta %45,7 (3,4, 5 edo osagarri gehiagokoen artean).

• ***Erlatibo hautsiak errazago izen ardatzaren ondoko osagarria sendoa denean.***— Esaldi erlatibo osoaren luzera eragingarria bada ere erlatibo hautsiak aurkitzeko garaian, uste dugu faktore eragingarriagoa dela eskuineratutako den osagarriaren *sendotasuna*: hau luzea izatea (edo ohituraz egitura luzeak izan ohi direnen artekoa).

Gure tradizio idatzian, eta are ahozkoan, nahikoa bitxiagoa da aurkitzea (13, 14) itxurako egiturak, izen ardatzaren eskuinetiko osagarria oso laburra dutenak, goiko (2, 12)koa baino, zeinetan eskuineratutako osagarriak gorputz, luzera eta sendotasun handiagoa duen ((15)en ere errepikatua):

(13) (\*?) Oso jatorra da *etorri den gizona gurekin*.

(14) (\*?) Oso jatorra da *azken hoge kilometroetan etorri den gizona gurekin*.

(15) Oso jatorra da *gurekin etorri den gizona azken hoge kilometroetan*.

Nahiko arrunta izan litekeen bezala (16)ren antzeko erlatibo hautsi bat, *esan* edo *pentsamendu* edo iritzizko aditz baten esaldi osagarria, berez luzea edo sendo izan ohi dena, izen ardatzaren ondoretik emanaz, ez da batere arrunta izango erlatibo egitura hautsia eskuineratutako osagarria erakusle soila bada (17):

(16) ***Esaten duen agintariak ez duela halakorik sekula egingo***, ez dio egia.

(17) (\*??) ***Esaten duen agintariak hori***, ez dio egia. ⇒ ***Hori esaten duen agintariak***, ez dio egia.

Eta hala ere, nahikoa maiz aurki litezke osagai laburrak eskuineratzen dituzten erlatibo hautsiak tradizio idatzian (18-21), eta are maizago ahozkoan (22-6) (sumatu baliteke ere guztien nolabaiteko *sendotasuna*):

- (18) Semeak edukitzea da **Jaungoikoak ematen dion saria, senipartea eta mese-dea arima on bati**.<sup>5</sup>
- (19) *Jaunari eman diozun hitza ez ofenditzeko, ...*
- (20) *Hortik etorri litezkeen kalteakatik osasunerako ...*
- (21) *Kontuan eduki behar den gauza bat beherako honetan da ...*
- (22) Eta guk segitzen dugu *Mitxelenak urratu zuen bidea Arantzazun*.
- (23) **Karrakutzen den puntutik azala** ikusten da ...
- (24) *Arzallusek egin dituen adierazpenak Ansoni buruz, ...*
- (25) *EAJk egin dion eskaintza karguak berritzeke ...*
- (26) Hori da *Kursaalak eman dion berezitasuna Donostiako hiriri*.

Erlatibo hautsi arruntagoak dira nolanaohi osagarri sendoagoak eskuineratzen dituztenak:

- (27) *Jaunari eskatzen dizkiotan mesedeak niretzat eta besterentzat ...*
- (28) *Zuek egin duzuen etxea gure mugez inguruan Oiartzungo partean ...*
- (29) Horra *lauoineko bati ematen zaion ordaina urte beteaz erregaloz edukita*.
- (30) **Egiten zaion biraoa ganaduei, abereei, eguraldi txarrari, esku arteko gauzei ...**
- (31) *Maria Birjinak bereziki erraten dizkigun hitzak, guri eta girstino on guziei ...*

• **Erlatibo “fosilduak” errazago hausten dira.**– “Fosildu” deitu ditugu ardatzaren ezaugarri bereziengatik beste mendekotasun-funtzio bat bete ohi duten erlatiboak (denbora, modu, konparazio, ...): **-(e)n arte(an), -(e)n bitartean, -(e)n legez(an/ra), -(e)n moduan(ra), -(e)n gisa(ra/n/z), -(e)n bezala(ko), -(e)n baino ..., -(e)n bezain ..., -(e)n hainbat ...**<sup>6</sup>, ... Halakoen artean arruntagoak dira egitura hautsiak. Izan litezke 4tik 1 edo (%27,3), oro har. Are 4tik 3 ere (%77,8) luzeenen artean. Idatziz (32-5), nola ahoz (36-7):

- (32) *Emazte gaitztoak, itoginak, eta keak ateratzen duten BEZALA gizona bere etxetik ...*
- (33) **Deklaratu duen BEZAIN LASTER bera dela Elizaren burua ...**
- (34) *Jainkoaren semeak nahastu diren ONDOAN gizonen alabekin ...*
- (35) **Igarriko ez didaten MODUAN nork bedeinkatu duen mahaia**.
- (36) **Ikusi beharko den GISAN EAJk zer egiten duen**.
- (37) *Eztabaidan sartzen den MOMENTUTIK Mitxelenak protovasco edo deitu zuen hori ...*

Azken adibidean bezala, erlatibo fosildu gisa erabili ohi ditugu *momentu, denbora, egun, puntu, ...* eta antzeko hainbat izen ardatz generiko-edo, era berean jaidura berezia dutenak hautsiak agertzeko.

• **Erlatibo hautsiak maizxeago ezezkoren artean.**– %19,1 (%8,0 orokorraren aldean). Fosildu edo arrunt.

- (38) *Osasunean mudantzarik igartzen ez duen denbora nahiz eta gaitzez kutsatua norbait egon*.

5. Aurrerako adibide sail gehienak dira aho edo idatzizko tradizioetik jaso eta baturatuak (jatorrizkoetarako ik. Hildalgoren lanak).

6. Nahiz hauek batzuen ardatzak (*bezala, baino, bezain*) ez diren izen, eta errazago eztabaida litekeen hauen erlatibotasuna.

(39) **Egiten ez diren bitartean baserri etxeak behar bezala, ...**

• **Erlatibo hautsien intonazioa.**– Erlatibo hautsien interpretazioak ez du orain arte arazorik eragin komunikazioan.<sup>7</sup> Halakoen intonazioaz, bi ohar. 1. Ardatzaren ondoren (edo honi estuki lotutako osagarri tartekatu baten ondoren (41)), eten prosodiko bat sumatuko da, goranzko intonazioz, erlatiboaren artean amaitu gabea dela adieraziz. 2. Ardatzaz eskuin emaniko osagarrien ondoren ere eten prosodikoa izanen da erlatiboaren amaiera iragarritz (beheranzkoa, nahiz, predikazioaren amaiera eza iragarritz, goranzkoa ere).

(40) *Hezur hautsiak ateratzen duen krakarakoa / mugitzen denean* / da ...

(41) *Kontuan eduki behar den gauza bat da / dardara hauen gainean,* / behin ...

1.2.2. *Izen ardatz determinatu gabeen ondorengo erlatiboak (~%4)*

Halakoak dira goiko (3)ren antzekoak. Izen ardatza (*gizon*; edota izena + adjektibo(k) halakorik balego: *gizon gazte eder*) honi eskuinetik erantsiriko determinanterik gabe emango da (ez artikulua, ez erakusle, ...). Eta ondotik, izena errepikatu gabe, esaldi erlatibo, hautsi edo hautsigabea, *-(e)n* atzizkiarekin, honi erantsiz determinantea eta esaldi nagusian dagokion kasuaren hondarkia: *-(e)na, -(e)nari, -(e)n horren, -(e)n horiekin, ...*

(42) **GIZON gurekin etorri dena** oso jatorra da.

(42.a) **GIZON gurekin etorri denari** gauza asko gertatu zaio.

(42.b) **GIZON gurekin etorri denarentzat** ez dago gauza egin ezinik.

(42.c) **GIZON gurekin etorri den batentzat** ez dago gauza egin ezinik.

(42.d) **GIZON gurekin etorri den horrena** da automobil berri hori.

(42.e) **GIZON gurekin etorri den horrekin** edozer gauzatarako fida zaitzake.

(42.f) **GIZON gurekin etorri diren bi horiengan** ez zait sekula falta izan konfiantzarik. ...

Halako erlatiboak euskararen alde eta aldi guztietan erabili dira ahoz (54-62), zein idatziz (43-53) (EGLU-V, 178-180; Hidalgo 2004a, b), nahiz ezezagun jarraitu izaten euskara batuan eta euskararen irakaskuntzan. 20/25 erlatibotik bat izan ohi da halako (~%4,2). Baina bitxiki, esaldi hauen erabilera ez da areagotzen erlatiboaren luzerarekin, eskuineko beste erlatibo mota guztiekin gertatu bezala. Izatez gerotan, alderantziz: %5 inguru dira 0, 1, 2, 3 eta are 4 osagarriaren erlatiboetan. Baina luzeagoetan, %1,9 baino ez. Erlatiboaren erabileran, beraz, prozesatze zailtasunaz bestelako arrazoiak bilatu beharko dira hiztunen jokamoldean.

(43) **Israeleko seme Egiptotik ilki zirenetarik, ...**

(44) **Debozio zuenaren** emateko ...

(45) **Goizeko izar, harako eguna dakartenak, ilunabarreko harako gau-garraioan dabilzanak, ...**

(46) **Daukat Jaungoikoak emanda emazte otzan, baketsu, euli bati ere gaitzik egingo ez liokeena.**

(47) **Apaiz, Erljioko Ordenakoak ez direnak ...**

(48) **Zenturion baten morroi elbarri ezin ibili, eta hiltzeaz zen bat.**

(49) **Erregeen lehenengo Liburuaren hasierako 15 kapitulu, bidaltzen dizkizudanak.**

7. Hala frogatuko luke ere EGLU-Va bitartean inor gutxi jabetu izanak euskaraz halako erlatiboak erabiltzen genituenez.



- (50) **Zuri bakarrik dizudan nahitasun**, bihotz nirean horrelako sentitasun eztiak mugiarazten dituena, ...
- (51) **Gainerako behar zena** emango ziola.
- (52) **Bere seme urrutietan zeudenak**.
- (53) **Ondarroako auzotegi Azterrika deritzon**ean ...
- (54) **Etxe hiltzen duten**etan
- (55) **Toki ur denean**
- (56) **Olio irentsi zuten harekin**
- (57) Ematen dute **plazer arrazoizkoa ez den bat**.
- (58) **Neska, deitu zidanak**, esan zidan ...
- (59) Ikusten duzu **etxe leiho gorriak dituen hura**?
- (60) **Pasaiako Udaleko ordezkari, hitz egin duena**, ...
- (61) **Giro egoki eta enpresa ondo ikusiko dena** ...
- (62) **Irakasle, bertan sartuta daudenentzako**, legeak esaten duena da ...

Halako egituren tradizioaren lekuko dira *-dun* adjektiboak arrunki izenaren ondoretik emanak (nahiz Azkuez geroztik aurrekoak ugaritu): **baserritar bizarduna...**, **jende dirudunari...**, **maisur daldunekin...**

• **Izen ardatzak izan lezake aurretik beste zeinahi osagarri**: *-(e)ko* (43, 45, 53, 60) *-(r)en* izenlagunak (48, 52), erlatibo arrunta (50), edo ezkerretiko determinatzaileak (49), zenbatzaile mugatu edo mugagabeak, ...

- (63) **Herriko gizon gurekin etorri dena** oso jatorra da.
- (63.a) **Isabelen mutiko gurekin etorri den hori** oso jatorra da.
- (63.b) **Hainbat gizon gurekin etorri ohi direnak** oso jatorrak dira.
- (63.c) **Zazpi gizon gurekin etorri diren horiei** ez iezaiezu badaezpada begirik ken.
- (63.d) **Lehen aipatu dizudan gizon gurekin etorri den hori** oso jatorra da.
- (63.e) **Lehen aipatu dizudan herriko gizon gurekin etorri dena** oso jatorra da.
- (63.f) **Lehen aipatu dizudan Isabelen mutiko gurekin etorri den horrekin** ibili nintzen. ...

• **Erlatibo kateak osatzeko bide**.– Ezkerretiko erlatibo luzeek eragin ohi duten prozesatze arazoa areagotua gertatzen da izen ardatz batek bi edo erlatibo gehiago dituenean. Halakoetan arazoa arintzen da erlatibo bat ardatzaren ezkerretik emanda modu arruntean eta bestea(k) honen eskuinetik, azken hiru adibideetan bezala.

• **Erabiltzeko erosoak dira hondarkia luze korapilotsu denean**.– *-(ren)gana...*, *-(r)i buruz, ...*), behin hiztunak eskuineko erlatiboa ematea erabakita, hondarkia errepikatu gabe (ik. nolana 1.2.3.1. atala):

- (64) **Gizonarentzat, gurekin dabilenarentzat** (⇒ **Gizon gurekin dabilenarentzat** ...)
- (65) **Gizon horien artean, gurekin dabilzan horien artean** (⇒ **Gizon gurekin dabilzan horien artean** ...)

• **Hautsiak ere arruntak dira**, hainbat osagarri emanez aditzaren eta honi erantsitako *-(e)n* menderagailu eta hondarkiaren ondoren. Oro har, esaldien %11,7; baina bai eta ere %50, erlatibo luzeenen artean.

- (66) **Gizon gurekin etorri dena azken hoge kilometroetan** oso jatorra da.

• **Egituron ahozko erabilera arrunta da**, nahiz gutako askok hausnarketa ondoren maiz gaizki osatutzat eman. Erabilera arrunt horren isla baino ez dira, esaterako, bi bertso ezagunon hasierak:

- (67) **Izar maite nuena** (Bilintx)  
 (68) **Ostegun joan denean** (Xenpelar)

• **Maiz beste adjektibo bat(zu)en ondoren eman ohi dira** (46, 48, 61, 69) **eta eten prosodiko baten ondoren ahoskatu adjektibo (konplexu) baten gisa**. Inoiz eman liteke adjektiborik erlatiboaren ondoretik ere (70):

- (69) **Mutil gazte / eder / berriro beste sekula aurkituko ez duzunaren** antzekoa ...  
 (70) **Mutil gazte / lehen ikusi dugun EDER / horrekin** ...

• **Egituron balioaz** esan (Oihartzabal 1985, 2003; EGLU-V), erlatibo arruntan balio semantiko bera dutela (**erosi nuen** ETXEA = **ETXE erosi nuena**), eta aukera estilistiko-komunikatibo baten aurrean baino ez gaudela, batean izen ardatza aurreratuz, bestean atzeratuz, hondarkia bietan amaieran.

1.2.3. *Izen ardatz determinatuen odoko erlatiboak (~%20)*

Nolanahi, euskaraz (Hidalgo 2002b; 2003, 2004b) nahikoa maizago ematen ditugu erlatiboak izen ardatz determinatuen ondoren: GIZONA... + *erlatiboa* (determinatu gabeen ondotik baino: GIZON + *erlatiboa*).

Eta halakoak dira gure 5 erlatibotik bat inguru (%21,4). Eta hainbat usuagoak zenbat eta erlatibo luzeagoak: %24,3; %48,7; eta %60,1 ere bai (3, 4 eta 5 edo gehiago osagarrikoen artean). Ugariak, eta 3 motatakoak: 1. *-(e)n... aposizioak*. 2. *Bait- erlatiboak*. Eta 3. *Zein... erlatiboak*. Eta hauen guztien kopuru bateratua beti da nahikoa berdintsua (~%20) euskararen alde eta aldi guztietan; nahiz, gero, hiztun-idazleek ez duten kopuru hori berdin banatuko aipatu 3 egitura moten artean hizkuntza erregistro eta euskalki desberdinetan.

Erdi eta mendebalean ahoz (ia) soilik *-(e)n... aposizioak* erabiltzen dira (*ba(da)* azalpenekin batera; ik. 1.2.3.2.1.). Nafarroan eta iparraldean ahoz *bait- erlatiboak*, *-(e)n aposizioekin* batera. Eta alde guztietako hiztun guztiek erabili dituzte *zein... erlatiboak* ere erregistro jantzi eta batez ere idatzizkoetan (baina ahoz ere bai –ik. 1.2.3.3. atala–), guztira kopuru orokor bertsu bat betetzeko esan bezala.

• **Izen ardatz determinatuen ondoko erlatiboen balioa** maiz mugatu nahi izan da erlatibo ez-murriztaile (edo ez-mugarri)etara. Ez da, ordea, egia (EGLU-V, 235-240; Hidalgo 2002b).

1. Egia ez den bezala ezkerretiko erlatibo arrunta berez denik murriztaile (*Islama sortu zuen Mahomak* esaldian, ez gara ari zehazten *zein Mahomaz* ari garen), nahiz izen ardatzaren aurretik emana izateak maiz dakarren lotuta erlatiboaren balio murriztailea.
2. Izen ardatz determinatu gabeen ondoko erlatiboek ere ez dute berez balio murriztaile edo ez-murriztailerik, nahiz ardatzak, hondarkiren ezean (**Gizon gurekin etorri den hori**), beti uzten gaituen, gutxienez, ondoko determinatzailearen zain. Hala erlatiboak maiz hartuko du balio murriztailea.
3. Izen ardatz determinatuen ondoko erlatiboek ere ez dute berez balio murriztaile edo ez-murriztailerik. Baina desberdinak dira. Izen ardatzak, jada determinatua emanak, ez du gramatikalki beste ezeren beharrik aurre-

ra egiteko. Ez gaude berez beste ezeren zain. Baina izen ardatz determinatu hori izan liteke aurretik jada nahikoa murriztua testuinguruan, nola ondoko erlatiboak (gehiago) murriztu zain dagoena: **GIZON HORI, (bai) arratsaldean gurekin etorri dena ... / GIZON HORI, etorri baita gurekin arratsaldean ... / LURRA, zeinetarik iragaten baita ura ...** <sup>8</sup> Nolanahi, halako erlatiboek, aurretik emana dutelarik izen ardatz determinatua, maiz hartzen dute erlatibo ez-murriztaile, azalpen, balioa.

4. Joerak joera, erlatiboak joka lezakeen paper murriztaile / ez-murriztailea euskaraz berez ez dago lotua erlatibo motarekin, baizik eta honek argitu nahi duen izen ardatzaren ezaugarrien baitan, eta honen determinanteen eta testuinguruaren ezaugarrien baitan.

1.2.3.1. *-(e)n...  
apozizioak  
(~>%10)*

Aho zein idatzizko hizkeran *-(e)n...* apozizioak dira euskaraz arruntenak izen ardatz *determinatuaren* ondorengo erlatiboen artean (ez derrigor segidan bertan, ik. (71.a)). Izen ardatzaren kasu bereko hondarkia har lezake (edota absolutiboa, ik. atal bukaeran dioguna) *-(e)n* atzizkiaren ondore justuan –ez derrigor determinante mota bera (71.b)–; eta inoiz, batez ere ahozko hizkeran, erlatiboaren ondoren berrager liteke izen ardatz bera edo antzekoa (ik. 71.c; edo 140, 142). Eta antzeko diren arren, ez dira nahastu behar erlatibo-*ok*, beti izen ardatz zehatz baten ondoren emanak direnak esaldi nagusi berean, *-(e)n...* erlatibo libreekin, ageriko izen ardatzik ez dutenak (ik. 4. atala).

(71) Oso jatorra da **GIZONA, gurekin etorri dena**.

(71.a) **GIZONA** oso jatorra da, **gurekin etorri dena**.

(71.b) **GIZONA, gurekin etorri den HORI**, oso jatorra da.

(71.c) **GIZONA, gurekin etorri den GIZON/MUTIL HORI**, oso jatorra da.

Erlatibook alde eta aldi guztietako euskaldunek erabili dituzte (EGLU-V; Hidalgo 2002b; 2004b), nahiz XX. mendeko garbizalekerian zoritxarrez jaso duten hainbat gramatikariren gaitzespena ere. Are *zein...* edo *bait-* erlatiboak mugarik gabe erabiltzen diren erregistroetan ere, *-(e)n...* apozizioen erabilera' erlatibo guztien %10etik gorakoa ohi da, eta hau asko igotzen da esaldi erlatiboen luzerarekin, nahiz oso arrunta den erlatibo labur askoak ere ematea *-(e)n...* apozizioan (nola segidakoak batere osagarrigabeak).

(72) Ez zen **zilarrik hautsarazi ahal ziezaiokeenik**.

(73) **Beste gauza bat, egin behar ez dena**, da ...

(74) Eta **gauza asko, egingo zenituzkeenak**, ez dituzu egiten.

• ***-(e)n apozizioek ez dute eragozpenik hautsiak agertzeko*** osagarriak erakutsiz aditzaren eta honi erantsitako *-(e)n...* hondarkiaren ondotik. Eta hala gertatzen da 10etik 3tan edo (%29,3), eta are 10etik 7an ere luzeenen artean (ik. 75, 77-8, 81-3, 88, 115, ...).

(75) Oso jatorra da **gizon hori, gurekin etorri dena azken hoge kilometroetan**.

8. Gure inguruko hizkuntzetan ere arrunta da halako apozizioen balio murriztailea (beste apozizio ez-murriztaileen aldean). Hala ez da berdin ingelesez: *The men, who were tired, ...* eta *The men, those who were tired, ...* (hau da, *only those = The men who were tired*). Edo gaztelaniaz esatea: *Los hombres, que estaban cansados, ...* eta *Los hombres, los que estaban cansados, ... = (Solamente) aquellos hombres que estaban cansados ...*

• **Maiz erabiltzen dira** (zentzu murrizgarrian beti) **izen ardatzak zenbatazile zehaztu edo zehaztugabe bat duenean determinante** (*bat; batzuk; bi, hiru, ...; zenbait; hainbat; asko; anitz; hainbeste/hainbertze; ugari; franko; gehiago; eli bat; milaka; gut(x)i; ...*). Halako asko aurkezpen egiturak dira (*bada/badira/badugul...*):

(76) Bromuroa zen **botika bat larrutarako edo idiarena jotzeko gogoia kentzen zuena**.

(77) Badira **jende batzuk uste dutenak kolerak ongi egiten diela**.

(78) Bazituen **bi auzo bizi zirenak aisean**.

(79) Eta **hor dauden zenbait gauza, oraindik galdu ez direnak, ...**

(80) Badira **hainbat azterketa, eredu horien inguruan egin direnak**.

(81) Gutartean bada **asko indiano Ameriketarik etorririk, erran dezaketena aurkintza haietan egiten duela euria berrogei eta hamar bat egunetz leroan**.

(82) Arraeraiki zuen **Eliza anitz Mariari kontsakturik, Higanautek ererrik edo egotzirik izan zirenak**.

(83) **Hainbertze usain on** baita **gizonek batere lilirik gabe egiten dituztenak, guziz Alemanian**.

(84) Badago munduan **mingainik ugari miztoa mara-mara dariona**.

(85) **Deabru franko** bada **saindu itxura hartzen duenik**.

(86) Baziren **neurri gehiago** ere **erabiltzen zirenak**.

(87) Baziren **Judean senar emazte saindu eli bat, Joakin eta Ana deitzen zirenak**.

(88) Badira **milaka bereber joan direnak Ameriketara hemendik**.

(89) Gaur **nekazari gutxi** egongo dira, nire iritziz, **baserria besterena dutenak**.

• **Arruntak ere edozein, zeinahi determinatzaile zehaztugabeen ondoren, edo norbait, zerbait, nor, ... itxurako izenordeen ondotik, eta are zenbat, nor, ... galdetzaileen ondotik ere:**

(90) **Edozein gauza gaixorik dagoenak hartu ahal dezakeena, ...**

(91) **Zeinahi adjektibo, ... hauei juntatzen zaiena, ...**

(92) **Norbait ikusi balu bezala zer edo zer gauza txarra egin nahi diona**.

(93) **Errondali buruzko zerbait, nik ezagutzen ez nuena?**

(94) **Nor baldin bada dakiena.** (= Dakien norbait baldin badago.)

(95) **Nor da Jaungoikoaren amodioa ezagutzen duena?**

(96) Eta **bertze zenbat, euskaraz izenda ez ditzakegunak!**

• **Baina baita ere izen ardatz ondo mugatuen ondotik ere** (mugatzaille –maiz plural– edo erakusle, izen propio edo izenordain pertsonal):

(97) **Bodegak** oso gutxi ziren **literak zituztenak**.

(98) Eta lurrean, dutela bakea **gizonek, borondate ona dutenek**.

(99) Helduko da **denbora betiko onetsi, eta gozatuko zaitudana!**

(100) Hala bukatu zen **egin nuen okerra, bizi naizen arte ahaztuko ez zaidana**.

(101) Zein dira **galleta horiek, txakurrari gustatzen zaizkionak?**

(102) **Jauffret jauna, errepublikano famarekin heldu zena, ...**

(103) **Damian artean zutunik zegoena, ...**

(104) Emadazue indarra **zuok egunero argi puska bat jasotzen duzenok**.

• **Maiz partitiboan**, izen ardatza ere partitiboan emana delako (baiezko esaldia izaki ere), edo *inor, nehor, deus, ezer, batere, zerbait* izenordainen ondotik, edota *bat, bakar bat, ...* itxurako determinatzaileen ondoretik ere:

(105) Ez dago **pertsonarik, hori defendatuko duenik**.

- (106) Ez da **inor** munduan *hori nik baino hobeto dakienik*.  
 (107) Ez da **nehor**, nehon, *haiek bezain poliki lili bat sudurrerat daramakeenik*.  
 (108) Ez da **deus** *harekin iharduk ez dezakeenik*.  
 (109) **Batere** ez da *zentzua hainbat segitzen duenik*.  
 (110) Nire baitarik ez dut ezarriko **zerbait hala gertatu ez denik**.  
 (111) Etxean **inor dakienik** baldin baduzu, ...  
 (112) Egungo eskoletan **asko eta asko** ikasten da, *bertze orduz ikasten ez genuenik*.  
 (113) Bertsolariak badu **halako zer bat**, *eskolatuen artean izaten ez denik*.

• **Maiz harriduretan, erakusleekin, hauen eratorriekin -hona, horra, ...- edo hauek elidituta ere** (117-9) (beti kasu absolutiboan, singularrean edo pluralean, gehienez aditz gobernatzailea ezabatuta). Bai eta ere antzera *bai* partikularekin edo *ze(in)/zer/nolako* itxurako galdegileekin ere (nahiz azken kasu haueetan zuzenago hitz egin behar esaldi nagusiagoaren subjektu diren *erlatibo librez* -ik. 120-3-):

- (114) **Hau sasoia daukaguna!** (= Hau da sasoia daukaguna! = Hau da **daukagun sasoia!**)  
 (115) Haiek saltsak jarri zituenak **baserritarren artean!** (= Haiek ziren saltsak ...!)  
 (116) **Horra etorkizun iluna baserriari etorri zaiona.** (≈ Horra **zer** etorkizun iluna **den** ...!)  
 (117) **Aro aldakorra daramaguna!** (= Hau da aro aldakorra daramaguna!)  
 (118) **Etxearen itxura aurkitu zuena!** (≈ Hura **zen** etxearen itxura ...!)  
 (119) **Txalo hotsa azeriak bere eginkizunarekin atera zuena!** (≈ Hura **zen** txalo hotsa ...!)  
 (120) **Bai kokotxa daukana ezkerreko epaileak!** (= Bai **dela** kokotxa ...!)  
 (121) **Ze usain tzarra duzuna** Martin! (= Ze usain tzarra **den** duzuna ...!)  
 (122) **A ze nolako mesedeak gizon hark egin zizkigunak!** (= A ze nolako mese-deak **ziren** ...!)  
 (123) **Ai zer hizketako abildadea daukana!** (= Ai zer hizketako abildade **den** ...!)

• **-(e)n... aposizioak maiz erlatibo kateetan**, bat baino gehiago, edo hauek konbinatuaz ezkerretiko *-(e)n* erlatibo arruntekin, izen ardatz determinatu gabeen ondokoarekin edo *zein...* erlatiboekin,... Konpara bedi lehen esaldi nahiz luze eta bitxia, ondokoarekin, jada irents ezina lau erlatiboak ezkerretik pilatuak dituela:

- (124) *Gurekin etorri den gizon irakasle izan zen hori, hainbeste zekiena historiaz, zeinekin ibili baikinen atzo ere, ...*  
 (124.a) *Gurekin etorri den, (eta) irakasle izan zen, (eta) historiaz hainbeste zekien, (eta) atzo ere berarekin ibili ginen gizon hori ...*

• **Maiz, ardatzaren kasua zeinahi dela ere, -(e)n... aposizioa absolutibo singular edo pluralean eman ohi da: -(e)na(k).** *-(e)n...* aposizioa daraman izen ardatzaren kasurik arruntena absolutiboa da (ik. goiko adibide gehienak), seguru asko egitura maiz erabiltzen delako diskurtsoan osagai berriak aurkezteko. Baina badira bestelako kasuetan emanikoak ere, eta halakoetan aposizioa bi eratara ager liteke: 1. Izen ardatzaren kasua errepikatuz (ik. 98, 104, 125-7). Edota 2. absolutiboan (sing. edo pluralean) kasua errepikatu gabe (ik. 128-41 -idatzizko testigantzak- eta 142-48 ahozkoak).

- (125) **Ebroko errioz haranzko aldean gaur erdaldunen lurtzat ezagutzen dugun hartan ...**

- (126) **Lehen kapitulura** mugatuko naiz, *hain zuzen gehien interesatu zaidanera.*
- (127) Emazteei dago, aldiz, **lili bakanen** biltzea, hala nola *jasmin deritzatenen.*
- (128) Eginik **Satanasen** bandera pekoa, **hondatu zena betiko Infernuan!**
- (129) Josuek **beste hamarrekin Kanaanen izan zirenak** gezurtatu nahi izan zuten ...
- (130) Baita ere **beste modu askoz, esatea medikuari dagokionak galdetzen zaiotzen.**
- (131) Eskerrik aunitz **zure eskutitzagatik Txanpain-herri zoriontsutik igorri didazuna.**
- (132) Euskaldunak **erresuma arrotz baten** menpean zeuden, *Europako harroena zena.*
- (133) Nola ez pentsa **hainbeste irakurleri beti euskal irakurgaiaren beha daude-nak astetik astera?**
- (134) Ipuin batzuk, **Itsasuko artzain bati** hartuak, *bizi guzia artaldearen erdian eraman duena, ...*
- (135) Gero **beste txistulari batek, Migel Mari izena zuena, ...**
- (136) Honek **ilobari** egin zion enkargua, *artean 15 urtetako mutil koxkorra zena.*
- (137) **Gure Jainkoak, beti xuxen dabilena,** ongi gidatzen baitu. (ap. Oihartzabal 2003, 804)
- (138) Galdegin zuen **zaharrenak, izengoitiz Beltza zeritzana.** (ap. Oihartzabal 2003, 804)
- (139) Baina **zuk, guzien egiteko ahala daukazuna,** emenda ezazu ni baitan zure grazia. (ap. Rebuschi 2004, 468)
- (140) Konparatuko dut **baroi prudente bati, egin duena bere etxea arroka-ren gainean.** (ap. Rebuschi 2004, 468)
- (141) **Zuk, gizon hau ezagutu ez duzuna,** begira ezazu ... (ap. Rebuschi 2004, 469)
- (142) **Jaio nintzen baserrian, Arrokaundieta deitzen dena, ...**
- (143) Eta **ikastola handietan, hau da, lehen zituztenak 5 gela kurtso bakoitzeko,** ...
- (144) Erantzun nahi diet **Zeberioak esan dituen hitzei, adierazten dutenak barneko kontraesana.**
- (145) **Artikulu horretan, zuk esan duzun artikulu hori,** Jaurларitzen esku dago dena.
- (146) **Aurreko legegintzaldian, 90ean bukatu zena, ...**
- (147) Eta «**Liberta**»k, **ni egon nintzen barkua,** zeukan ...
- (148) Zerez beteko zenuke? **Janariz eta erremedioz, sendatzeko behar direnak.**

EGLU-Vek lehen aukera hobesten du idatzirako, kasua errepikatzearena, ez bada aposizioa parentesi edo aparte batean bezala ematen (ik. Euskaltzaindia, *Araua*, 109).<sup>9</sup> Guk uste dugu biak direla zilegizko, eta biek betetzen dituztela predikazio funtzio desberdinak. Hitzunak bi egiturekin ondorio komunikatibo desberdinak eragiten dituela.

Aposizioa komunztatuta, hitzunak, izen ardatzak eta aposizioak esaldi nagusian betetzen duten funtzioa indartzen eta azpimarratzen du, atentzioa esaldi nagusira eramanez berriro izen ardatzaren azalpenaren ondoretik. Bestetik, ordea, aposizioa absolutiboan emanda, hitzunak arreta izen ardatzera darama, honen azalpena, esaldia jada ahaztaraziz edo hau bigarren plano batean utziaz.

9. Oihartzabalek (2003, 804) joera berritzaletan jotzen du oraindik komunztadura eza. Baina Rebuschik (2004, 468) «Euskaltzaindiak dekretatutako arau dogmatiko» deitzen dio komunztaduraren derriortu nahiari, gabeko adibide berriak erakutsiz (gorago jasoak).

Horregatik uste dugu, nahiz eta denetik dagoen, errazago aurkitzen ahal direla komuntadurarik gabeko aposizioak esaldi nagusiaren amaieran, edo behintzat aditz nagusiaren ondoren; hau da, izen ardatzaren kasu atzizkiak jada bere lotura eginkizuna betea duenean aditz nagusiarekin. Eta hala uste dugu komuntadurarik gabeko aposizioak ahoskatzean, edo ahoskera irudikatzean –irakurketan eta–, pausa edo eten prosodikoa nabariagoa itxuratzen dela izen ardatza eta segidako edo gibelatutako aposizioaren artean, komuntatuetan baino.

Bestalde EGLU-Vek ere badio (144) izen ardatza absolutiboz beste kasu batean denean, *-(e)n...* aposizioa ardatzaren ondore justuan eman behar ote den hau ezin gibeleratuz. Eta guk ez dugu uste hori ere hala den. Guk ontzat ditugu (149.a/b) bezalakoak ere.

(149) **Mikelekin**, *lehen aipatu dizudan mutilarekin*, etorri gara.

(149.a) **Mikelekin** etorri gara, *lehen aipatu dizudan mutilarekin*.

(149.b) **Mikelekin** etorri gara, *lehen aipatu dizudan mutila*.

### 1.2.3.2. Bait-erlatiboak

EGLU-Vek dioen gisan (215), *-(e)n...* aposizio guztiak beti eman litezke *bait-*erlatiboen bidez, balio berarekin (eta ez berez murriztaile edo ez, jada gorago aipatu dugun eran). Eta hala erabili dira eta erabiltzen dira oraindik ahoz (159-165) eta idatziz (151-156) Iparralde osoan eta Nafarroa gehianean (Hidalgo 2003).

Zeinahi kasutan eman litezke jokaturako izen ardatz determinatuaren ondoren (ik. 152, 163-4) (ez derrigor segidan), nahiz guk jasotako adibide gehienak kasu absolutiboan dauden. Soilik *bait-* aurrizkia eransten diote erlatibatutako aditz jokatuari (zeina oso maiz ematen den esaldi hasieran bertan) (ik. ere hurrengo atalean eginiko 11. oharra).

(150) Oso jatorra da **gizona**, *etorri baita gurekin*.

(150.a) Oso jatorra da **gizona**, *gurekin etorri baita azken hoge kilometroetan*.

(151) Hau da **ene kaliza**, *isuriko baita zuengatik*. (Berriain)

(152) **Elefanteak**, *animalia handi bat baita*, gazte denboran belaunak zalu ditu, ... (Axular)

(153) Hartan zegoen **gizon bat**, *baitzeukan esku bat ihartua*.

(154) Badago **ele franko**, *erraten baitira letra berberetz*.

(155) Badator **ordua**, *zein bere aldera banatuko baitzarete*.

(156) Bada **norbait**, *oro baitakizki*.

(157) **Etxe zahar hori**, *eliza ondoan baitago*, apaizarena da.

(158) **Neska hori**, *ezagutu bainuen Begoren etxean*, Jonen arreba da.

(159) Bai, izan dira bai **epokak**, *galdu baitira jendeak hor, mendian*.

(160) Nik badituz **hiru edo lau alaba**, *han egon baitira*.

(161) Otsagabian badago **iturri bat** *deitzen baita botikariaren iturria*.

(162) **Zakur berria**, *iaz erosi baikenuen*, errekarat erori da.

(163) Ni sortua naiz **Artxean**, *orain Enrike bizi baita*.

(164) **ALBISURA** joan dira argitzera, **ALBISU hor herria BAITA**, ... (Areso)

(165) **MARIANO**, *bertsoak egiten ari baita*, [Altzibarkoa da.] (Oiartzun)

Erabiltzen den eremuan ez dugu ezagutzen *bait-*erlatiboen erabileraren pisua beste erlatibo moten aldean. Zenbaitetan, *bait-*erlatiboak balio ez-murriztai-

lea duenean eta, aldi berean, esaldi nagusiko gertaeraren azalpen zentzua izan lezakeenean, ezin erraz bereizi dira *bait-* partikularen erabilera erlatibo garbia (157-8n bezala) eta kausala (166-7):

(166) **Etxe zahar hori**, *eliza ondoan baitago*, bota egin beharko dute. (Zein etxe / ala / Zergatik bota behar dute?)

(167) **Neska hori**, *Begoren etxean ezagutu bainuen*, uste dut Begoren laguna dela. (Zein neska / ala / Begoren etxean ezagutu nuelako uste dut haren ahizpa ote den?)

• ***Bait-* menderagailu bidezko azalpenak maiz erabiltzen dira esaldi nagusiaren aurretik emanak ere** (ez dira berez erlatibo izaneren), gero hone-tan maiz, *ba(da)* lokailuaz gainera, izena ere errepikatuz edo izenordain erresuntibo bat agerraraziz (170) –batzuetan derrigor ere bai (izena mendeko esaldian eman gabe baldin badoa, esaterako (ik. 168.a))

(168) **Etorri baita gizon bat gurekin goizean**, (**ba**) oso jatorra da ((**gizon**) hori).

(168.a) **Etorri baita gurekin goizean**, (**ba**) oso jatorra da (**gizon**) hori.

(169) **Erosi baikenuen iaz zakur berria**, (**ba**) errekarat erori da ((**zakur**) hori).

(170) *Orain Enrike bizi baita Artxean*, (**ba**) han sortua naiz ni.

(171) *Eliza ondoan baitago etxe zahar hori*, (**ba**) ((**etxe**) hori) apaizarena da.

(172) **Ezagutu bainuen neska bat Begoren etxean**, (**ba**) Jonen arreba da ((**neska**) hori).

#### 1.2.3.2.1. *Ba(da)* *azalpenak*

Gaur egun *bait-* erlatiboak erabiltzen ez diren eremuan (erdi eta mendebaleko euskarak) –baina are seguru asko hegoaldeko eremu zabalago batean ere behintzat–, ahozko hizkeran, maiz erabiltzen dira *bait-* erlatiboen ordez (eta *-(e)n... aposizioekin* batera) *ba(da)* azalpenak deitu ditugunak, berez erlatibo ez direnak –ez dira mendeko esaldi–, baina eginkizun bertsua betetzen dutenak.<sup>10</sup>

Hiztunak, nolabaiteko intonazio-gailurra jasoko duen *ba(da)* lokailua erantsiko dio azalpen-esaldiari (ahozkoan beti *ba*), arrunki aditz jokatuari segidan bertan (bitxikiago beste osagairen bat tartekatuz), eta maiz emango dira halako azalpenak esaldi nagusiaren aurretik (nahiz ondorengoak ere aukerakoak izan):

(173) **Gizon hori –etorri da ba gurekin azken hoge kilometroetan–**, oso jatorra da.

(173.a) Oso jatorra da **gizon hori –etorri da ba gurekin azken hoge kilometroetan–**.

(173.b) **Gizona –etorri da gurekin ba azken hoge kilometroetan–**, oso jatorra da.

(173.c) (?) **Gizona –etorri da gurekin azken hoge kilometroetan ba–**, oso jatorra da.

Azalpenak ez dauka zertan izen ardatzaren ondo berean izan (174). Eta hone-tan maiz errepikatzen da izen bera, edo honen izenordain erresuntibo bat-edo, orduan, esaldi (esan dezagun) nagusian dagokion kasuan.

Azalpen-esaldiaren ondoren, berriro *ba(da)* lokailuz, zenbaitetan izenordain erresuntibo bat eman ohi da, edo izena bera errepikatu, ardatzaren kasu berean (hirugarren esaldi nagusi errepikatu baten parte edo):

(174) **Gizon horrekin joan da. Badago ba hor ((gizon) bat) eserita. ((Ba) (gizon) horrekin).**

(175) **Gizona –joan gara ba berarekin/harekin/batekin/gizon batekin taberna-ra–, (ba) ((gizon) hori)** oso jatorra da.

10. Mitxel Kaltzakorta lagunaren ahozko ohar bati zor diot esaldion gaineko lehen hausnarketa konzienteia.



(176) Jende asko hil zen **piramideetan** –eginarazi zituzten **ba faraonek Egipton (harrizko monumentu handi / piramide batzuk)**–. ((Ba) (piramide) haietan).

(177) **Etxe hartan** bizi zen Mikel. **Izan zen ba atzo sute bat** ((etxe) batean). ((Ba) han / (etxe) hartan).

(178) Eskutitz bat idatzi diot **atzoko mutikoari**. **Eman zidan ba arrosa bat** ((mutiko) batek). ((Ba) (mutiko) hari).

(179) **Nire mutilarentzat** ekarri dut opari hau. **Ikusi nauzu ba lehen** ((mutil) batekin). ((Ba) (mutil) harentzat).<sup>11</sup>

• **Ba(da) azalpenen sistema**’ (*bait-* erlatiboak bezala) oso maiz erabiltzen da esaldi nagusiaren aurretik emana (Euskal Herri osoan?), honetan izena errepikatuz, edo erresuntibo bat agerraraziz:

(180) **Etorri da ba gurekin azken hoge kilometroetan** ((gizon) bat). (Ba) ((gizon) hori) oso jatorra da.

(181) **Badago ba hor** ((gizon) bat) *eserita*. (Ba) (gizon) horrekin joan da.

(182) **Joan gara ba berarekin/harekin/batekin/gizon batekin** *tabernara*. (Ba) ((gizon) hori) oso jatorra da.

(183) **Eginarazi zituzten ba faraonek Egipton (harrizko monumentu handi / piramide batzuk)**. (Ba) Jende asko hil zen ((piramide) haietan).

(184) **Izan zen ba atzo sute bat** ((etxe) batean). (Ba) han / (etxe) hartan bizi zen Mikel.

(185) **Eman zidan ba arrosa bat atzo** ((mutiko) batek). (Ba) eskutitz bat idatzi diot ((*atzoko*) mutikoari).

(186) **Ikusi nauzu ba lehen** ((mutil) batekin). (Ba) (mutil) harentzat / *nire mutilarentzat* ekarri dut opari hau.

• **Ba(da) azalpenok, nolana, badituzte mugak erlatiboan aldean. Batetik, azalpen esaldia ezezko bada, askoz bitxiagoa gertatzen da**, eta derrigor-edo agerraraziko du izena edo erresuntibo bat esaldian:

(187) **Gizona –goizean (gizon) bat ez da ba gurekin etorri–**,<sup>12</sup> ((ba) ((gizon) hura) oso jatorra da).

Izan ere, *ba(da)* lokailuaren ahozko erabilerak ezezko esaldietan, hauen esanahi positiboa eragin ohi du.<sup>13</sup> (188 eta 188.a/b) ezezko esaldiekin hiztunak adierazi ohi du *delako gizona*, hain zuzen, ***bai etorri dela*** (188.c)rekin bezalaxe.

Horretarako, galdera orokorren antzeko doinu batez egin ohi dio ezezko galdera entzuleari, eta aditza, konposatua bada, *partizipioa + ez + laguntzailea* ordenan emanik maizenik (baina ik. 188.b ere). Lau esaldi hauek (188 eta 188.a-c) (188.d/e) baiezko erlatiboan pareko lirateke esanahiz, eta ez (188.f/g) ezezkoen.

(188) **Gizona –etorri ez da ba gurekin goizean?–** oso jatorra da.

(188.a) **Gizona –goizean gurekin etorri ez da ba?–** oso jatorra da.

(188.b) **Gizona –ez da ba gurekin etorri goizean?–** oso jatorra da.

(188.c) **Gizona –etorri da ba gurekin goizean–**, oso jatorra da.

= (188.d) **Gizona, goizean gurekin etorri dena**, oso jatorra da.

11. Segur aski antzeko fenomenoak gertatzen dira aurreko atalean aipatu ditugun *bait-* erlatiboan ahozko erabileran ere: ***Nire mutilarentzat* ekarri dut opari hau. *Ikusi bainauzu lehen* ((MUTIL) BATEKIN). ((BA) (MUTIL) HARENTZAT).**

12. Irakur bedi segidako baiezkoak lukeen zentzu berean: ***GIZONA –goizean geratu da BA gurekin etorri gabe (GIZON) BAT–*** ....

13. *Ba(da)* lokailuaren zentzu positibozko erabileraz harridura tankerako ezezko esaldietan, ik. OEH, bada 6 edo EGLU II, 493.

- = (188.e) **Gizona, etorri baita** *goizean gurekin*, oso jatorra da.
- ≠ (188.f) **Gizona, goizean gurekin etorri ez dena**, oso jatorra da.
- ≠ (188.g) **Gizona, goizean ez baita etorri gurekin**, oso jatorra da.

• **Bestetik, *ba(da)* azalpenek soilik zentzu murriztailea izan ohi dute.** Elkarrizketako formak direnez, azalpenak derrigor egin ohi dio erreferentzia entzulearentzat ere ezaguna egin litekeen gertaera bati, zeinak ardatza zehazten lagunduko dien (zentzu murriztailea). Berezko erlatiboek errazago izan ohi dute zentzu ez-murriztailea (ere) (ik. 189 eta 189.a-c). Aldiz, (189.d)ko *ba(da)* azalpenak soilik zentzu murriztailea izan lezake. Zentzu ez-murriztailean, ahozko erregistro horretan, (189.e) bezalako zerbait eman liteke, bi esalditan, eta lehena zintzilika-edo utziaz intonazio eten batez.

- (189) Ikusi dut *aurpegi zoragarria zuen gizon bat*. (= Gizon bat ikusi dut eta honek aurpegi zoragarria zuen -zentzuan-.)
- = (189.a) Ikusi dut **gizon bat**, *aurpegi zoragarria zuena*.
- = (189.b) Ikusi dut **gizon bat**, *aurpegi zoragarria baitzuen*.
- = (189.c) Ikusi dut **gizon bat**, *zeinek aurpegi zoragarria baitzuen*.
- ≠ (189.d) Ikusi dut **gizon bat. Bazuen ba (batek) aurpegi zoragarria.** ((**Ba**) hura). (= **Gizon (bakar) bat** ikusi dut -hainbeste emazteren artean edo-. Eta hori zen, hain zuzen, aurpegia zoragarria zuena, ez beste bat.)
- = (189.e) Ikusi dut **gizon bat...** [Ze polita!] *Aurpegi zoragarria zuen.* (≠ Bazuen ba (batek) aurpegi zoragarria?)

• **Badute garrantzirik *ba(da)* azalpenek?** Ez dirudi idatzian inoiz erabili direnik, ez eta ere beharrezko ditugunik eginkizun beretarako ditugunean *-(e)n...* aposizioak eta *bait-* eta *zein-* erlatiboak. Baina ahozko hizkera (bederen erdi eta mendebalekoa, eta areago) menderatu nahi duenak, derrigor ikasi beharko ditu. Areago, hizkera hori naturaltasunez itxuratu nahi izanez gero, idatziz' gero eta kontsumo handiagoko diren telebista eta zinema gidioetan, antzerkian, umorean, ..., pertsonaiei sinesgarritasun osoa emateko.

### 1.2.3.3. *Zein... erlatiboak*

Alde eta aldi guztietako idazleek erabili dituzte erruz *zein...* erlatiboak. Baina XIX-XX. mendeen bueltan, gramatikariek gaitzetsiak izan ziren, ipar eta hegoaldean bietan, erdal jatorrikoak direlakoan. Eta bat-batean ia hutseraino desagertu ziren prosa idatzian, nahiz ahoz gaur egun ere segi genezakeen halakoen testigantzarik aurkitzen (nahiz ez inoiz ugariegiak). Oro har, *zein...* erlatiboak dira euskarazko erlatibo mota jantziena.

*Zein...* erlatiboak (EGLU-V; Hidalgo 2003) beti eman dira dagokion kasuan deklinatutako izen ardatz determinatuaren ondoren (ez derrigor segidan).<sup>14</sup> *Zein* saileko izenordaina emango da esaldi erlatiboaren hasieran honetan dagokion kasuan (beraz isildutako izenari legokiokeen hartan) eta ez ageriko ardatzarenean *-(e)n...* aposizioen kasuan bezala).

Aditzari, ohitura nagusiz, *bait-* aurrizkia erantsiko zaio (sortaldean) edo *-(e)n* atzizkia (sartaldean). Nahiz tradizioan ageri diren menderagailurik gabekoak ere, batez ere hegoaldeko tradizioan (adibideetan ? ikurrez). Aditza maizenik

14. Izen ardatz determinatu gabeen ondoko *zein...* erlatiboan salbuespen eskasak aipatzen dira EGLU-V (235)en.

doa erlatiboaren aurrealdean edota hasieran bertan (%94,6) eta ez amaieran (%5,4), are esaldi labur askoetan.

• **Zein... izenordainak hartu ohi duen formaz esan liteke** (ik. Alberdi & García):

1. XVI-XVII. mendeetako autore(iparraldeko)ek beti mugagabea darabilte (*zein, zeini, zeinetan, ...*).

2. XVIII-XIX. mendeetan lapurterazko idazleek:

a) Pertsona kasuak (*zeina, zeinak, zeinari, zeinarentzat, ...*) mugatuan darabiltzatela (sing. edo pl.).

b) Leku-denborazko kasuak, berriz, mugagabean (*zeinetan, zeinetara, zeinetarik, ...*).

3. XIX. mendeko erdi eta mendebaleko autoreek darabilte:

a) Singularrean, pertsona edo leku-denborazko kasua izan, beti mugagabea (*zein, zeini, zeinetan, ...*).

b) Pluralean, berriz, mugagabea, edo *zeintzu...-tik* deribatuak (*zeintzuk, zeintzuei, eta are zeintzuetan, ...*).

4. Euskaltzaindiak ez du ez arau, ez gomendiorik zabaldu.

Hala, pertsona kasuetan, singularrean, (190)ko moldeak aurkitu ahalko ditugu. Pluralean (191)koak:

(190) **Gizona, ZEIN(A) gurekin etorri BAITA/den/(da (?)) azken hoge kilometroetan**, oso jatorra da.

(190.a) **Gizona, ZEIN gurekin etorri den azken hoge kilometroetan**, oso jatorra da.

(190.b) **Gizona, ZEINA etorri den gurekin azken hoge kilometroetan** oso jatorra da.

(190.c) **Gizona, ZEIN etorri BAITA gurekin azken hoge kilometroetan**, oso jatorra da.

(190.d) **Gizona, ZEINA gurekin etorri BAITA azken hoge kilometroetan**, oso jatorra da.

(190.e) (?) **Gizona, ZEIN(A) gurekin etorri da azken hoge kilometroetan**, oso jatorra da.

(191) **Gizonak, ZEIN(AK/TZUK) gurekin etorri BAITIRA/diren/(dira (?)) azken hoge kilometroetan**, oso jatorrak dira.

(191.a) **Gizonak, ZEIN gurekin etorri diren azken hoge kilometroetan**, oso jatorrak dira.

(191.b) **Gizonak, ZEINAK etorri diren gurekin azken hoge kilometroetan** oso jatorrak dira.

(191.c) **Gizonak, ZEINTZUK etorri diren gurekin azken hoge kilometroetan** oso jatorrak dira.

(191.d) **Gizonak, ZEIN etorri BAITIRA gurekin azken hoge kilometroetan**, oso jatorrak dira.

(191.e) **Gizonak, ZEINAK gurekin etorri BAITIRA azken hoge kilometroetan**, oso jatorrak dira.

(191.f) (?) **Gizonak, ZEINTZUK gurekin etorri BAITIRA azken hoge kilometroetan**, oso jatorrak dira.<sup>15</sup>

(191.f) (?) **Gizonak, ZEIN(AK/TZUK) gurekin etorri dira azken hoge kilometroetan**, oso jatorrak dira.

---

15. Esaldia bitxia da *bait-* aurrikzia sortaldekoa delako eta *-tzu-* artizki plurala sartaldekoa, nahiz euskara batuaren erabiltzaileak ez daukan zertan ezagutu dialektologia ere. Beste hainbeste beheragoko (193.d) esaldian.

Leku-denborazko kasuetan, berriz, singularrean beti mugagabea erabiliko da (192). Baita ere pluralean mugagabea, nahiz sartaldean zenbaitetan *-tzu-*dun izenordainak ere aurkitu (193):

- (192) **Lurra**, ZEINETAN **aurkitzen** BAITA/den/(da (?)) *ura*, aberatsa izanen da.
- (192.a) **Lurra**, ZEINETAN **aurkitzen** BAITA *ura*, aberatsa izanen da.
- (192.b) **Lurra**, ZEINETAN **aurkitzen den** *ura*, aberatsa izanen da.
- (192.c) (?) **Lurra**, ZEINETAN *ura* **aurkitzen da**, aberatsa izanen da.
- (193) **Lurrak**, ZEIN(TZU)ETAN **aurkitzen** BAITA/den/(da (?)) *ura*, aberatsak izanen dira.
- (193.a) **Lurrak**, ZEINETAN **aurkitzen** BAITA *ura*, aberatsak izanen dira.
- (193.b) **Lurrak**, ZEINETAN **aurkitzen den** *ura*, aberatsak izanen dira.
- (193.c) **Lurrak**, ZEINTZUETAN **aurkitzen den** *ura*, aberatsak izanen dira.
- (193.d) (?) **Lurrak**, ZEINTZUETAN *ura* **aurkitzen** BAITA, aberatsak izanen dira.
- (193.e) (?) **Lurrak**, ZEIN(TZU)ETAN *ura* **aurkitzen da**, aberatsa izanen da.

• **Leku kasuetan –baina baita ere denborazkoetan– maiz erabiltzen dira *non* saileko izenordainak (eta are *noiz* sailekoak denborazkoetan -cf. *OEH non*, II, 1; *noiz*, *noiztik*, *noiz eta*, ...-), *zein* sailekoez gainera, alde eta aldi guztietako euskaran (*non*, *nondik*, *nora*, ...), singular edo pluralean. Beraz (194)koak ere:**

- (194) **Lurra(k)**, NON **aurkitzen** BAITA/den/(da (?)) *ura*, aberatsak izanen dira.
- (194.a) **Lurra**, NON **aurkitzen** BAITA *ura*, aberatsa izanen da.
- (194.b) **Lurrak**, NON **aurkitzen** BAITA *ura*, aberatsak izanen dira.
- (194.c) **Lurra**, NON **aurkitzen den** *ura*, aberatsa izanen da.
- (194.d) **Lurrak**, NON *ura* **aurkitzen den**, aberatsak izanen dira.
- (194.e) (?) **Lurra(k)**, NON *ura* **aurkitzen da**, aberatsa izanen da.

Segidako adibideak eta antzeko guztiak, berdin eman litezke *zein* saileko izenordainez:

- (195) Etorri zen **Bethaniara**, NON BAITZEN *Lazaro*, *hil izan zena*. (= *zeinetan*)
- (196) Itzuliren naiz *nire* **etxera**, NONDIK **ilki izan** BAINAiz. (= *zeinetatik*)
- (197) Azkenean dago **leku bat**, NORA *eroana izan nintzen estu-estu*. (= *zeinetara*)
- (198) Kantatuko dudana da **mila seiehun eta hogeita hemeretzi**koa, NOIZ **utzi zuen dena oso ikaratua**. (= *zein urtetan*)
- (199) Egina izan zen **mila seiehungarren urtean**, NOIZTIK *hona irten izan dira* (sic) *hemendik misiolari asko*. (= *zein urtetatik*)

EGLU-Vek oso zorrotz dio (221) *nor* eta *zer* saileko izenordainak ez direla erabiltzen, *zein*-en ordezkotako, halako erlatiboak osatzeko, baina badira halakoak ere gure tradizioan (hegoaldean –batez ere–, baina iparrean ere):

- (200) **Gizon eta emakumearen** gorputzak, NORTZUEK **obligatzen diren bata bestearen ontzat ematearekin**; ...
- (201) **San Pablok**, NORK *aditzera ematen dituen obligazio horiek guztiak*, ...
- (202) **Jainkoak**, NORK egin gintuen *bera amatzeko*, ...
- (203) **Lehenengo demonioa**, NORI deitzen *zion gaiztoa*, ...
- (204) **Bere osaba apaiz Martin de Kardaberazek**, NOREKIN *harreman estuak izan* BAITZITUEN.
- (205) **Aita benetakoa**, NORENGANDIK datorren *Seme benetakoa*, ...
- (206) **Jainkoak**, NORENTZAT ez dagoen *etortzeko den gauzarik*, ...
- (207) Bada **norbait**, NORENTZAT *barneak kanpo* BAITIRA.

• **Arrunta da zein...** erlatiboen balio ez-murritztailea, *zein* izenordaina kasu erabilienetan emana denean (*zeina*, *zeinak*, *zeinari*). Baina murritztaile izan ohi dira ardatzaren determinantea erakuslea bada (208-9), edo zenbaitzailea (210-1); erlatiboak zentzu identifikatiboa badu (213-5); edo izenordaina kasu marka adverbial bat edo posposizio batekin erabilia bada (*zeinetan*, *zeinetatik*, *zeinekin*, *zeinengatik*, ...) (216-9):

- (208) Urte haiek, ZEINENGATIK datozenean erranen BAITUZU ez direla zure gogarako, ...
- (209) Emazte hari, ZEINEKIN behar ezten ezagutza izan BAITUZU, ...
- (210) Ilkitzen da ke bat, ZEINEK itsutzen BAITU adimendua.
- (211) Badira bisera batzuk, ZEINEK gauzak diren baino handiago irudiarazten BAITITUZTE.
- (212) Ez da gelditzen lau besanga baizik, ZEINETARIK ateratzen BAITIRA adar berriak egurretako.
- (213) Badu itsasoak bere marra, ZEIN BAITA kosta eta kostako harea.
- (214) Ikusirik ez dela bera sinestekorik, ekartzen ditu lekukoak, ZEIN BAITIRA juramentuak.
- (215) Hala begiratuko du bigarren zentzua eta portalea, ZEIN BAITA ahoa, mihia, gustua.
- (216) Nolako baita lurra, ZEINETARIK iragaiten BAITA ura, halako gertatzen da ura ere.
- (217) Hauek dira leihoak eta portaleak, ZEINETARIK bekatu guztiak ariman barrena sartzen BAITIRA.
- (218) Tristura izanen dute ikusten dituztenean bere lagunak, ZEINEKIN bekatu egin BAITZUTEN, eta ZEINENGATIK galdu BAITZIREN.
- (219) Tokiak badira ZEINETAN lasterrago bakandu behar BAITA.

Kasuotako hainbatetan gainera (*zeinen*, *zeinekin*, *zeinentzat*, *zeinengatik*, *zeinetaz*, *zeinetaraino*, ...) euskaraz ez da erabili ohi, oso testuinguru argietan edota izenordain erresuntiboekin ez bada (ik. 2. atala), *-(e)n* erlatibo arrunt, *-(e)n...* aposizio edo *bait-* erlatiboen bidea. Beti eman ohi dira halakoak *zein...* erlatiboen bidez, murritztaile *zein* ez, mugagarri *zein* ez. Bestalde, *zein...* erlatiboen erabilera ikaragarri puzten da erlatibo luzeenen artean eta ezin pentsa liteke laburrak murritztaileago direnik luzeak baino.

• **Zein...** erlatiboak ahoz. Maiz defendatu da *zein...* erlatiboen zerikusi eskasa ahozkotatasunarekin, baina ez dugu uste horrela den:

1. Ipar zein hegoaldean nahiko arrunta da *non* galdetzailearen erabilera erlatibo (*non* sailekoena ere –eta are *noiz* sailekoena–):<sup>16</sup>

- (220) Nik erakutsiko dizkizuet leku batzuk NON segur altxatuko dituzuen lapinak. (Sara)
- (221) Aitak ez zuen utzi nahi etxetik ateratzen, NON pasatu zituen hainbertze denborak. (Webster)
- (222) Bazituen gauak NON pausatzen zen pixka bat. (*non* izenordaina *noiz* balioz erabilia) (Uztaritze; ap. Epelde, 2003, 199)
- (223) Ezta lehenagoko familietan bezala, NON ez zen euskara baizik mintzatzen. (Uztaritze; ap. Epelde, 2003, 199)
- (224) Izan da memento bat NON mahaiaren itzulian baziren hamabortz pertsona.

16. Lapurdin ere behintzat baditugularik *-(e)n* menderagailuz osatutakoak (ik Sara, Sara inguruko eta Uztaritzeko 220-4).

- (Uztaritze; ap. Epelde, 2003, 199)  
 (225) Han markatzen dute **aldi guziz NON pasatzen BAITZARA**. («*pasatzen zaren bakoitzean*» –Epelderen glosa–; berriro *non* izenordaina *noiz* balioz erabilia) (Larresoro; ap. Epelde, 2003, 198)  
 (226) **Herri bat NON ez BAITZEN aspaldi nehor bizi**. (Larresoro; ap. Epelde, 2003, 198)  
 (227) **Eskualde batzuetan, NON artoa bera jiten BAITA hemen kardoa bezala ...**  
 (228) **Kutxa haren gainean, NON BAITZEN gordatua erran delako gizona ...**  
 (229) Eta joan zen **hiri batera NON fitez despendiatu BAITZUEN bere dirua**.  
 (230) Ezkerretara bazen **barrika bat, NONDIK saltzen genuen sagardoa**.  
 (231) Hau bai dela **etxe bat NORA ez naizen sekula gehiago etorriko**.  
 (232) Aditzen al duzu **hotsa, NOIZ lehertzen den hazia?**

Gaur egun zeinahi hizketaldi(jantzi?)tan entzun litezke segidakoen itxurako esaldiak:

- (233) Ekarriko dizut **liburu bat, NON ... segituan aurkituko duzun horren aipamena**.  
 (234) Eta handik bidali gintuzten **beste herri batera, NON ... oraindik merkeago atera zitzaigun lotakoa**.  
 (235) Eta haiek **istorio bat** kontatu zidaten, **NON ... bai azaltzen zen gure aitona**.  
 (236) Ez duzu ja hemen **etxe bat** aurkituko, **NON ... ez daukaten gutxieneko telebista pare bat**.

**2. Zuzenean zein...** erlatiboen ahozko erabileraz dio Mitxelenak: «Jauregi-berri andñoak, Bilbon, ahoz, oso natural zerabiltzan esaldi erlatiboak **zuñe**-kin, zeinak hartuak ditudan oharretan.» Eskiula eta Santa Garaziko zubererazko hiztunek ere naturaltasun osoz ematen dituzte segidako lehen bi esaldiak (ondoren iparraldeko beste zenbait, batez ere Nafarroa Behere eta Zuberoako aho kontakizun folklorikoetakoak):

- (237) **Gizona ZEINEKIN mintzatu BAINAIZ** ez dük hire semea bezain handi.  
 (238) **Gizona ZEINEKIN elestatu BAINAIZ** ez düzü handi zure semea bezala.  
 (239) Igorri zidaten **haur bat, ZEINAK hamar urte BAITZITUEN**.  
 (240) **Hiri bat** bazen, **ZEINETAN ez BAITZEN elizarik**.  
 (241) Atzematen du artean **gurutzea, ZEIN hausten BAITU bi partetan**.  
 (242) Erraten du **emazte xaharrak, ZEIN BAITZEN sorgin bat, ...**  
 (243) Bazen **errege bat ZEINEK egin BAITZITUEN pentsa ahalak oro haren ükateko, ...**  
 (244) Bazen ere kartierean **jaun aberats bat, ZEINA ezkontü BAITZEN sei aldiz**.  
 (245) Oroitzen haiz **egunaz ZEINETAN pikatu BAITIDAAN (sic) esku hau?**

**3. Ohargarriki hegoaldean ere ahoz arruntak dira halako erlatiboak izen ardatza esanahiz oso estu lotua denean galdegile erlatiboari, berez, edo testuinguruan (*leku-bat-non; bide-bat-nondik; arrazoi-bat-zergatik; modu-bat-nola; helburu-bat-zeinengatik; soka-bat-zerekin; puntu-bat-nora* bezalako esamoldeetan).<sup>17</sup>**

Maiz halako erlatiboek zerikusi estua dute euskaraz izen ardatzik gabe erabiltzen diren egitura erlatiboekin, edo zehar galderekin, eta aldi berean era-

17. Esaldion guztien ahozko intonazioan galdetzailak artean jaso ohi du intentsitate berezia, galdera zuzen edo zeharkakoetan bezainbestekoa izango ez bada ere. Baina galdetzailak ez dira artean *atonoak*-edo izango (*zein...* erlatiboen irakurketan maiz egin ohi dugun gisa).

biltzen dira aditz jokatu gabez nola jokatu (maiz etorkizun edo ahalera zentzuz) (ik. ere 4. atala).

(246) Anek aurkituko du LEKU BAT, NON **zikindu gu konturatu gabe** / LEKU BAT NON **zikindu litekeen** / NON **zikinduko den** ...

(247) Erakutsi nion BIDE BAT, NONDIK **etorri denbora aurreratuz** / BIDE BAT NONDIK **etor zitekeen** / NONDIK **etorriko zen** ...

(248) Horixe da ONDORIOA, NORA **garamatzaten zure hitz petral horiek** / NORA **eraman gaitzaketen** / **eramango gaituzten** ...

(249) Ez al daukazu SOKA BAT, ZEREKIN **lotu fardel hau?** / ZEREKIN **lotu dezakezen** / ZEREKIN **lotuko dugun fardel hau?**

(250) Hori ez da ARRAZOI BAT, ZERGATIK **egin behar duzun nahi duzuna** / ZERGATIK **egin** / **egin dezakezun** / **egiten zenuen**.

(251) Esan ARRAZOIAK, ZERTA(RA)KO/ZERGATIK **joan behar dugun hara** / ZERTA(RA)KO/ZERGATIK **joan** / **joan behar genuen** / **joango garen** ...

(252) Erakutsi zizueten MODU BAT, NOLA **konpondu zuen arazoak** / **konpon zitezaketen** / **konpontzen zituzten haiek** ...

(253) Horixe duk MODUA, NOLA **egiten dituen gauzak jendilaje horrek** / NOLA **egin ditzakeen** / NOLA **egingo dituen** ...

(254) Hortxe dun HELBURU BAT, ZEINENGATIK/ZEINEN ALDE **borrokatu** / **borroka gaitzkeen** / **borrokatu diren** ...

(255) Eman dit TELEFONO BAT, NORA **deitu** / NORA **deitu behar dugun** / NORA **dei dezakegun** / NORA **deitu behar genuen**.

(256) Ez daukate LEKU BAT, NORA **joan** / NORA **joan litezkeen** / NORA **joango diren** / NORA **joan behar duten**.

(257) Aurkitu dut OSTATU BAT, NON **lo egin** / NON **lo egin dezakegun** / NON **lo egingo dugun**.

(258) Lortu nuen PERTSONA BAT, NOREKIN **bidali abisua** / NOREKIN **bidal nezakeen abisua** / NOREKIN **bidaliko nuen** ...

(259) Laster bilatuko din LAGUN BAT, ZEINEKIN **borrokatu** / ZEINEKIN **borraka litekeen** / ZEINEKIN **borrokatuko duen**.

(260) Hola lortuko duzu BESTE NORBAIT, ZEINEKIN **euskaraz komunikatu** / ZEINEKIN **komunika zaitzkeen euskaraz** / ...

(261) (*Begira gaztelua! Begira egon garen gaztelua!*) Begira **GAZTELUA**, NON **egon garen goizean!**

(262) (*Horra gaztelua! Hara hor gaztelua!*) Horra / hara hor **GAZTELUA**, NON **izan zen atzo heriotza hori!**

(262.a) Horra / hara hor **MODUA**, NOLA **egiten diren gauzak!**

(262.b) Horra / hara hor **ARRAZOIA**, ZERGATIK **gertatu diren gertatu direnak!** ...

(263) Hor jarri behar duzu **HERRIA**, *zu* NON **bizi zaren orain**. (andereñoa haurrari laguntzen fitxa betetzen).

Antzeko dira gure tradizio idatziko arruntak: *etorriko da eguna - noiz (eta) itxurakoak* (ik. *OEH noiz* 4). *Zein...* erlatiboak eta ahozkotasanaren arteko lotura gehiagoz ikusi segidako bi atalak (bai eta ere 4. atala).

1.2.3.3.1.  
*Nola/zelan  
galdera azalpaenak  
izen ardatz deter-  
minatuen ondoren*

Esanak esan, *zein...* erlatiboen ahozko erabilera mugatua da. Segidako atal bietan erakutsi behar dugun galdera sistema, ordea, erruz erabilia (hegoaldean bederen) elkarrizketa arruntean (agian iparraldean ere), eta ezin gehiago hurbiltzen da galdegile bidezko erlatiboen sistemara.

Hiztunak, elkarrizketan jada aipatua duen izen ardatz bat glosatu/argitu nahi

duenean, maiz, erlatibo bat edo *ba(da)* azalpen bat erabili ordez, *galdera bidezko azalpena* jo ohi du, entzuleari galdera baten bidez egoera berri bat erakutsiz, zeinak lagunduko dion glosatu nahi duen izen ardatz hori zehazten/gogorarazten.

Izen ardatza eta ondoko galderaren artean eten prosodiko nabaria izango da eta galderak, antonomasiar, *nola/zelan* galdegile bidez egin ohi dira. *Ba(da)* azalpenak bezala, elkarriketako forma direnez, *nola/zelan* galdera bidezko azalpenak derrigor egingo dio erreferentzia entzuleentzat ere ezaguna izan ohi den gertaera bati (are azalpenean izen ardatz zehatz hori zuzenean azaltzen ez bada ere), eta zentzu murriztailean erabiliko dira (ez ez-murriztailean).

Galderetan arrunta izanen da izena errepikatzea, edo honen izenordain erre-suntibo bat ematea. Baita, esaldi nagusian ere hau berriro agertzea.

• **Hiztunak bi sistema erabili ohi ditu:**

**1. Galdera zuzenarena** (zabalduegoa gaur egun eta gaztegoen artean):

- a) Aditzari batere menderagailurik erantsi gabe.
- b) Artean gordeaz galdera zuzenaren doinua (galdegileak du intonazio gailurra).
- c) Aditza zuzenean erantsiaz esaldi hasierako *nola* galdegileari (*zelan* mendebaldean), galdera zuzenetan bezala.
- d) Oso maiz erantsiaz aditzari *ba(da)* lokailua –inoiz beste osagaien bat tarteka baliteke ere–.

(264) **Gizona** –NOLA/ZELAN **etorri da (ba)** *gurekin azken hoge kilometroetan?*– oso jatorra da.

(264.a) **Gizona** –NOLA/ZELAN **etorri da (ba)** *gurekin azken hoge kilometroetan (bat)?*– oso jatorra da.

(264.b) **Gizona** –NOLA/ZELAN **etorri da (ba)** *gurekin azken hoge kilometroetan (gizon bat)?*– oso jatorra da.

(264.c) **Gizona** –NOLA/ZELAN **etorri da (ba)** *gurekin ((gizon) bat)?– ((ba) (gizon) hori)* oso jatorra da).

**2. Zehar galderarena**–edo (agian lehen erabiliagoa; baina bai gaur egun ere euskaldun on arrunten artean):

- a) Aditzari *-(e)n* menderagailua erantsiz erdialde eta mendebaldean<sup>18</sup> eta *bait-* ekialdean.
- b) Zehar galderaren itxurako intonazioz, gailur absolutu bakarra galdegi-leak hartu ordez, gailur hau aditzera ere zabalduz.
- c) Zehar galderan baino errazago tartekatuz osagaiak hasierako galdegilea eta aditzaren artean.
- d) Mendebaldean zenbaitetan *ba(da)* lokailua erantsiaz (nahiz galdera zuzenetan baino gutxiagotan).

---

18. Beharbada mendebaldean *zelan* galdegilearekin maizago erortzen da *-(e)n* menderagailua (zehar galderetan eta bezalatsu).



Modu honek mendeko esaldiak eragiten ditu, eta ezin gehiago hurbiltzen da galdegile bidezko erlatiboen sistemara. Oso arrunta da, Euskal Herri osoan arrunta den bezala *nola ...-(e)n / bait-* egituraren erabilera konjuntiboa, azalpen, modu edo konparazio esaldietan (orduan argitu beharreko izen ardatz aurrekaririk gabe -ik. esaterako 265.b-c eta 271-3-).

(265) **GIZONA** –NOLA/ZELAN **etorri den** (ba) *gurekin azken hoge kilometroetan* ((GIZON) BAT)?–((BA) (GIZON) HORI) oso jatorra da.

(265.a) **GIZONA, NOLA** **etorri** BAITA *gurekin azken hoge kilometroetan* ((GIZON) BAT)?, ((BA) (GIZON) HORI) oso jatorra da.

(265.b) **NOLA/ZELAN** **etorri den** (ba) *gurekin azken kilometroetan* ((GIZON) BAT)?, ((BA) (GIZON) HORI) oso jatorra da.

(265.c) **NOLA** **etorri** BAITA *gurekin azken hoge kilometroetan* ((GIZON) BAT)?, ((BA) (GIZON) HORI) oso jatorra da.

• **Bi sistemak ezin erabiliagoak dira ahoz** euskaldunen artean (eta ere hegoaldeko gaztelanian behintzat ezin usuzkoagoak adin bateko hiztunen artean bederen). *Ba(da)* azalpenen kasuan bezala, halako egiturek ez dute erabilera jantzirik izan, eta ez dugu uste merezi duenik halakorik bultzatzea. Ordea, berriro, ezin probetxu handiagokoak dira ahozko hizkera itxuratu behar den garairako, gaur egun horren beharrezko dena. Eta ahozko hizkera menderatu nahi duenak, derrigor menderatu beharko ditu.

(266) Eta hala joan ginen **auto horretan** –NOLA/ZELAN **ikus**i (BAIT-)dugu(-N) (BA) *goizean* ((AUTO) BAT)?– ((BA) HORRETAN.)

(266.a) Eta hala joan ginen **auto horretan** –NOLA **ikus**i **dugu** (BA) *goizean* ((AUTO) BAT)?– ((BA) HORRETAN.)

(266.b) Eta hala joan ginen **auto horretan** –ZELAN **ikus**i **dugu** (BA) *goizean* ((AUTO) BAT)?– ((BA) HORRETAN.)

(266.c) Eta hala joan ginen **auto horretan** –NOLA **ikus**i **dugun** (BA) *goizean* ((AUTO) BAT)– ((BA) HORRETAN.)

(266.d) Eta hala joan ginen **auto horretan** –ZELAN **ikus**i **dugun** (BA) *goizean* ((AUTO) BAT)– ((BA) HORRETAN.)

(266.e) Eta hala joan ginen **auto horretan** –NOLA **ikus**i BAITUGU *goizean* ((AUTO) BAT)– ((BA) HORRETAN.)

(267) **Mutil horrekin** ibili ginen. **NOLA/ZELAN** **esan** (BAIT-)dizut(-N) (BA) (((MUTIL) BATEN) KONTU)? ((BA) HORREKIN.)

(268) Azkenean erosi diot **oparia**. **NOLA/ZELAN** **egon** (BAIT-)gara(-N) (BA) *lehen denda horretan* (((OPARI) BAT) BEGIRATZEN)? ((BA) HORI.)

(269) Dotore egongo hintzateke **halako betaurrekoekin**. **NOLA/ZELAN** (BAIT-)zeramatzan(-N) (BA) *atzo Noemik* (BATZUK)? ((BA) HALAKOEKIN.)

(270) Berriro deitu ez zidak, ba, **neska horrek!** **NOLA/ZELAN** **esan** (BAIT-)nian(-N) (BA) ((NESKA) BATENA)? ((BA) HORREK.)

• **Are maizago erabiltzen da oraindik nola/zelan galdegile bidezko azalpen sistema Euskal Herri osoan izen ardatz**ik gabe esaldi hasieran emanda, galdera zuzen bezala (*ba(da)* lokailuz maiz) edo *-(e)n/bait-* mendeko egitura bidez, eta esaldi nagusian zuzenean izena edo erresuntibo bat agerraraziz:

(271) **NOLA/ZELAN** **etorri da** (BA) ((MUTIL) BAT) *gurekin?* (BA) ((MUTIL) HORREK) ekarri ditu loreak.

(271.a) **NOLA/ZELAN** **etorri den** (BA) ((MUTIL) BAT) *gurekin*, (BA) ((MUTIL) HORREK) ekarri ditu loreak.

(271.b) NOLA etorri BAITA ((MUTIL) bat) *gurekin*, (BA) ((MUTIL) HORREK) ekarri ditu loreak.

(272) NOLA/ZELAN egon (BAIT-)gara(-N) (BA) *goizean denda batean(?)*, (BA) ((JERTSE) HURA) erosiko dut.

(273) NOLA/ZELAN ekarri behar (BAIT-)digute(-N) (BA) *telebista berri bat(?)*, (BA) atzo DENDA HARTAKO neska ikusi nuen.

1.2.3.3.2.  
Zeinahi  
galdegile bidezko  
azalpenak,  
izen ardatz  
determinatuen  
ondoren

Galdera bidezko azalpenak, esan dugu, egin ohi direla, batez ere, *nola/zelan* galdegile bidez (274). Halaz ere, egin ohi dira, izen ardatzarekin lotura zehatzagoa duten bestelako galdegileen bidez ere, baldintza bertsuetan (nahiz halakoetan bitxiagoa den izena errepikatzea galderan, edo erresuntibo bat ematea, izena galdegileak berak ordezkatzeko duenez).

Galdegile hauekin, arruntena da galdera zuzena ematea galdera intonazioarekin. Eta seguru asko murriztagoa da *-(e)n/bait-* bidezko mendeko egituren erabilera, nahiz artean oso ugaria izango den hau, esaterako, *non* galdegilearekin (seguru asko berez *non ...-(e)n/bait-* egitura, *nola ...-(e)n/bait-* egitura bezalaxe, nahikoa arrunta delako, ondorio, modu, konparazio edota esaldi erlatiboetan ere) eta eskasagoa *zein* edo *noiz* saileko izenordainekin; eta are eskasagoa *nor* edo *zer* sailekoekin, nahiz zinez uste dugun guztiarekin ere entzun litekeela oraindik ere adineko hiztunen artean. Eta mendeko egiturek (*-(e)n/bait-* atzizkiz) ez dute batere alde formalik *zein...* erlatiboekin (intonazioaz ate?).<sup>19</sup>

(274) Salgai dago **jatetxe hori** –NOLA/ZELAN izan (BAIT-)gara(-n) (BA) *bazkaritan* ((JATETXE) BATEAN)(?)–, ((BA) HORI.)

(275) Azken urtean salgai dago **jatetxe hori** –NON izan (BAIT-)gara(-n) (BA) *bazkaritan*(?)–, ((BA) HORI.)

(275.a) Azken urtean salgai dago **jatetxe hori** –NON izan gara (BA) *bazkaritan*?–, ((BA) HORI.)

(275.b) Azken urtean salgai dago **jatetxe hori** –NON izan garen (BA) *bazkaritan*–, ((BA) HORI.)

(275.c) Azken urtean salgai dago **jatetxe hori** –NON izan BAIKARA *bazkaritan*–, ((BA) HORI.)

(276) **Jatetxe hori** –ZEINETAN izan gara (BA) *bazkaritan*?–, ((BA) HORI) salgai dago azken urtean. [eta *bait-/-(e)n*]

(277) **Jatetxe hori** –ZE(IN) JATETXETAN izan gara (BA) *bazkaritan*?–, ((BA) HORI) salgai dago azken urtean. [eta *bait-/-(e)n*]

(278) **Egun horretatik** ordaindu diote. **NOIZ hasi zen** (BA) *aurten lanean?* / **NOIZTIK ari da** (BA) *lanean?* [eta *bait-/-(e)n*]

(279) **Egun horretatik** ordaindu diote. **ZE(IN) EGUNETAN hasi zen** (BA)? / **ZE(IN) EGUNETATIK ari da** (BA)? [eta *bait-/-(e)n*]

(280) **Gizona** –NOREKIN/ZE(IN) GIZONEKIN/ZEINEKIN **etorri gara** (BA)?–, ((BA) HORI) oso jatorra da. [eta *bait-/-(e)n*]

(281) **Gizona** –NOREN/ZE(IN) GIZONEN/ZEINEN **semea ezagutu dugu** (BA) *goizean?*–, ((BA) HORI) oso jatorra da. [*bait-/-(e)n*]

19. Ze hauen ahozko erabileran galdegileak artean gordeko du intonazio gailur bat, eta ohiko *zein...* erlatiboan irakurketan bederen, galdegileak ezin atonoago eman ohi ditugu. Galde geniezaioke, ordea, geure buruari nondik atera ote dugun *zein...* erlatibo idatzion intonazio molde atono hori. Erdarazko antzekoetatik agian?

(282) *Atzo erositako liburua -ZER/ZE(IN) LIBURU/ZEIN ekarri diogu (BA) Aneri?-, ((BA) HORI) berezia da. [eta bait-/(-e)n]*

Zeinahi galdegile bidezko azalpenon erabilera ere, intonazio enfatikoz, ez atonoz, ikasi eta irakatsi beharko da ahozkotasanari lotuta, eta berriro, ez dugu uste merezi duenik halakoetan hastea erabilera jantzietan.

• **Are maizago erabiltzen da Euskal Herri osoan zeinahi galdegile bidezko azalpen sistema berau izen ardatzik gabe esaldi hasieran emanda, batez ere galdera zuzen bezala (*ba(da)* lokailuz maiz). Bai eta ere, nahiz gutxiagotan, *-(e)n/bait-* mendeko egitura bidez, esaldi nagusian izena edo erresuntibo bat agerraraziz:**

(283) **NON egon gara (BA) goizean Zazpi Kaleetan? (BA) HAN / (TABERNA) HARTAN** geratu gara berriro.

(283.a) **NON egon gareN (BA) goizean Zazpi Kaleetan, (BA) HAN / (TABERNA) HARTAN** geratu gara berriro.

(283.b) **NON egon BAIKara goizean Zazpi Kaleetan, (BA) HAN / (TABERNA) HARTAN** geratu gara berriro.

(284) **NOREKIN hartu duzu (BA) kafea bazkalondoan? [eta bait-/(-e)n] (BA) (KARTA) HAIK trukatuta zeuden.**

(285) **ZERGATIK joan zara (BA) zu lantegi horretatik? [eta bait-/(-e)n] (BA) Olatz ARRAZOI BERBERENGATIK.**

1.2.3.3.3.  
*Esaldi/galdera  
independente  
bidezko azalpena  
izen ardatz  
determinatuen  
ondoren*

Zenbaitetan hitzunik erantzunik espero ez duen pentsamenduzko aditz baten bidezko galdera independente batez (286-8) –*ba(da)* lokailurik gabe–, edota ezezko galdera arrunt baten bidez –maiz *ba(da)* lokailuz– (289-91) egingo du izen ardatz baten azalpena. Izena errepikatuz edo gabe, erresuntiboak emanez edo gabe, *ba(da)* lokailuz edo gabe esaldi nagusian, ...:

(286) **Neska horrekin** ibili nintzen. **IKUSI duzu hor ((NESKA) HORI)? ((BA) (NESKA) HORREKIN).**

(286.a) **Neska horrekin** –**IKUSI duzu hor ((NESKA) HORI)?-, ((BA) (NESKA) HORREKIN)** ibili nintzen.

(287) Orduan deika eta deika hasi zitzaigun **gizon hura. GOGORATZEN duzu atzo kaian geundela? ((BA) (GIZONEZKO) HURA).**

(288) Ez dauka **landareak** etorkizun handirik. **BADAKIZU Jonek oparitu zidala ((LANDARE) BAT)?**

(289) Atzo izan ginen **Mikelen etxean. Ez al zenidan (BA) lehengoan zuk erakutsi ((ETXE) HORREN / BATEN) argazkia?**

(290) Ikaragarri gustatu zait **Isabelen liburua. Ez al zizuten (BA) zuri ere oparitu joan den astean ((LIBURU(A)) / BAT)?**

(291) **Neska horrekin -EZ al didazu (BA) esan goizean ((NESKA) BAT) gustatu zai-zula?-, (BA) ez dizut etorkizun handirik ikusten.**

• **Askoz maizago zeinahi esaldi ere erabiliko da, arrunki baieztapena, izen ardatz bat honekin loturaren bat beste gertaera baten bidez argitzeko. Maizenik aditza azalpenaren hasieran emango da eta ondotik *ba(da)* lokailua intonazio bereziz.**

(292) **Gizon hori** oso jatorra da. **Etorri da (BA) gurekin arratsaldean ((GIZON) BAT). ((BA) HORI).**

(292.a) **Gizon hori -etorri da** (BA) *gurekin arratsaldean* ((GIZON) BAT)- ((BA) HORI) oso jatorra da.

(293) Ez dauka **landareak** etorkizun handirik. **Oparitu zidan** (BA) *Jonek* ((LANDARE) BAT) *joan den urtean*. ((BA) HORREK).

(294) Orduan deika eta deika hasi zitzaigun **gizon hura**. **Ez zenidan** (BA) *erran ezagutzen zenuela?* ((BA) (GIZONEZKO) HORI).

(295) **Agentziako neskari** esan diote urakana gainean zutela. **Egon gara** (BA) *eguerdian* ((AGENTZIA) BATEAN). ((BA) HARI).

• **Azalpen galdera eta esaldi hauek, nolana, maiz egin ohi dira helburu esaldiaren aurretik emanak** (honek, orduan, *ba(da)* lokailua hartuko du arrunki) (gogoratu hauen inguruan *ba(da) azalpenak* –1.2.3.2.1–).

(296) **Ikusi duzu hor** ((neska) hori)? (Ba) (neska) horrekin ibili nintzen.

(297) **Gogoratzen duzu atzo kaian geundela** ((gizon) hura)? ((Ba) (gizonezko) hori) deika hasi zitzaigun gero.

(298) **Badakizu Jonek oparitu zidala** ((landare) bat)? (Ba) ez dauka (landareak) etorkizun handirik.

(299) **Etorri da** (ba) *gurekin arratsaldean* ((gizon) bat), ((ba) (gizon) hori) oso jatorra da.

(300) **Oparitu zidan** (ba) *Jonek* ((landare) bat) *joan den urtean*, (ba) ez dauka (landareak) etorkizun handirik.

(301) **Ez zenidan** (ba) *erran ezagutzen zenuela?* ((Ba) (gizonezko) hori) deika eta deika hasi zitzaigun orduan.

(302) **Egon gara** (ba) *arratsaldean* ((agentzia) batean), ((ba) (agentziako) neskari) esan diote urakana gainean zutela.

Galdera eta baieztapenak izan litezke oso zeharreko lotura baino ez dutenak argitu nahiko ardatzarekin:

(303) **Egon gara** (BA) *arratsaldean agentzia batean*. BA orduan ... / BA horregatik ... / BA kale hartan ... / ba hala ...

(303.a) **Nola egon gara** (BA) *arratsaldean agentzia batean?* BA orduan ... / BA horregatik ... / BA kalean ... / BA hala ...

(302.b) **Zergatik egon gara** (BA) *arratsaldean agentzia batean?* BA orduan ... / BA horregatik ... / BA kalean ... / BA hala ...

• **Halakoak ere ez dira, noski, erlatibo, baina bai oso erabiliak hiztunen ahozko jardun arruntean erlatiboen ordezkio euskararen geografia osoan.** *OEhk* (III, *bada*, 663) segidako adibideak jasotzen ditu:

(304) **Ikusi genuen** BA *atzo zineman?* BA ... gaur hilda topatu dute.

(305) **Badago han** BA *asto bat?* BA *haren* jabea.

(306) **Joan ginen** BA *lehengo egunean hara tabernara?* BA *HANTXE* izan zen.

(307) **Etorri zen** BA *joan den urtean Ameriketatik?* BA, *HURA BERA*.

(308) **Joan zen** BA *lehengo astean?* BA, *ORDUAN* eraman zuen.

• **Halako esaldi eta galde independente bidezko azalpenak erabiltzen dira azalpen ez-murritztaileak ere emateko**, gorago aipatu *ba(da)*, *nola/zelan* edo *zeinahi* galdegile bidezko azalpenak ohi ez bezala.

Azken batean, ez dira besterik gure prosa arruntean ahoz zein idatziz egin ohi ditugun aparteak (parentesi, ...), esaldi nagusiaren barne eman ohi ditugunak:

(309) **Gizon hura** –*ez ote zenidan erran ezagutzen zenuela?*–, orduan deika eta deika hasi zitzaigun.

(310) **Etxe zahar hari** –*ez zekinat ondokoek ez ote duten saldu geroztik*–, teilatua erori zitzaionan iaz.

(311) **Liburu horretan** –*Josunek idatzi du(?)*–, ez duzu halakorik aurkituko zorionez.

### 1.3. Ondorioz erlatibo jokatu eta azalpen aukera guztiak baliokide?

Hainbeste esan ezin baliteke, atal bakoitzean aipatu bereizgarriak kontuan, bai da egia, euskal hiztuna ia beti balia litekeela aipatu modu guztioz izen ardatz bere bat oso modu bertsuan zehazteko, hizkuntza erregistro-desberdinak azaleratuko badituzte ere. Laburrean:

(312) **Aurten daukagun irakasle horrekin** lana egin beharko dugu, zera!

(312.a) **Aurten daukagun irakasle horrekin arratsaldeko filologia klasean**, lana egin beharko dugu, zera!

(312.b) **Irakasle, aurten daukagun HORREKIN**, lana egin beharko dugu, zera!

(312.c) **Irakasle horrekin, aurten daukagun HORREKIN**, lana egin beharko dugu, zera!

(312.c.a) **Irakasle horrekin, aurten arratsaldeko klasean daukagun HORI**, lana egin beharko dugu, zera!

(312.d) **Irakasle horrekin, aurten arratsaldean BAITAUKAGU informatika klasean**, lana egin beharko dugu, zera!

(312.e) **Irakasle horrekin –badaukagu BA aurten arratsaldeko informatika klasean–**, lana egin beharko dugu, zera!

(312.f) **Irakasle horrekin, ZEIN(A) daukagun/BAITAUKAGU aurten informatika klasean**, lana egin beharko dugu, zera!

(312.g) **Irakasle horrekin -NOLA/ZELAN daukagu (BA)/daukagun/BAITAUKAGU aurten**, lana egin beharko dugu, zera!

(312.h) **Irakasle horrekin -NOR/ZE(IN) IRAKASLE/ZEIN daukagu (BA) aurten**, lana egin beharko dugu, zera!

(312.i) **Irakasle horrekin –ez daukagu (BA) aurten (IRAKASLE) (BERRI) BAT?**–, lana egin beharko dugu, zera!

### 1.4. Beste zenbait ohar solte erlatibo jokatuen inguru

• **Erlatibo kateak osatzeko, hoberena, ezker eta eskuineko erlatibo mota guztiak elkarrekin konbinatzea**, izen ardatzaren ezkerretik osagai gehiegi pilatu beharrik gabe. Aipatu dugu eta errepikatzen dugu. Gehiegi kezkatu gabe esaldi bakoitzaren balio murriztaileaz edo ezaz, azken batean posizioak ematen baitie esaldiei balioa, testuaurreak, eta ez, erlatibo motak, segidako adibideekin kontura gaitezkeen legez.

(313) **Gurekin etorri den GIZON irakasle izan zen HORI, hainbeste zekiena historiaz, ZEINEKIN ibili BAIKINEN atzo ere, ...**

(313.a) **Irakasle izan zen GIZON gurekin etorri den HORI, atzo BERAREKIN ibili ginenA, ZEINAK hainbeste zekien historiaz,...**

(313.b) **Historiaz hainbeste zekien GIZON HORI, irakasle izan zena, ZEINEKIN ibili baikinen atzo, eta etorri BAITA gurekin, ...**

(313.c) **Atzo BERAREKIN ibili ginen GIZON historiaz hainbeste zekien HORI, gurekin etorri denA, zein izan baitzen irakasle ...**

• **Eskuinetiko erlatiboek izan lezakete aurrekari esaldi oso bat ere**. Egitura euskaraz erabiliegia izan ez bada ere, EGLU-Vek ere dioen legean

(246-7), *zein...* eta *bait-* erlatiboak eta *-(e)n...* aposizioak ere (Oihartzabal 2003, 807) eman litezke esaldi oso bat glosatzeko (bederen esaldi nagusiak kasu absolutiboan jasotzen badu aurrekaria; besteetan soilik *zein...* erlatibo bidea erabili ohi da (317).<sup>20</sup> Inoiz erlatiboa eman liteke aurretik (Axular, 316; nahiz askoz nekezago dirudien *zein...* erlatiboa jasotzea –316.b–):

(314) **Zozotzat hartzen nau, gustatzen ez zaidana.** (ap. Oihartzabal, 2003, 807; baina dio soilik hiztun batzuentzako dela ona)

(315) **Gauza ugari ikas liteke egun bakarreko bizipenetik,** eta HORI ez da gutxi gizakiarentzat.

(315.a) **Gauza ugari ikas liteke egun bakarreko bizipenetik, ZEIN(A) ez den/BAITA gutxi gizakiarentzat.**

(315.b) **Gauza ugari ikas liteke egun bakarreko bizipenetik, ez BAITA (HORI) gutxi gizakiarentzat.**

(315.c) **Gauza ugari ikas liteke egun bakarreko bizipenetik, ez deNA gutxi gizakiarentzat.**

(316) Baina, *gaiztoago* BAITA, edireten dut, **berak bere burua kondenatu zuela.** (Axular 435 /[Villas § 283.]

= (316.a) Baina, *gaiztoago* deNA, edireten dut, **berak bere burua kondenatu zuela.**

= (316.b) Baina, *ZEIN gaiztoago* BAITA, edireten dut, **berak bere burua kondenatu zuela.**

(317) **Denok eman beharko dugu eginaren kontu,** eta HORRI ere begiratu behar zaio eguneroko bizian.

(317.a) **Denok eman beharko dugu eginaren kontu, ZEIN(AR)I ere begiratu behar (BAIT-)zaio(-N) eguneroko bizian.**

(317.b) (\*) **Denok eman beharko dugu eginaren kontu, begiratu behar \*zaio-NA/zaioNARI eguneroko bizian.**

(317.c) (\*) **Denok eman beharko dugu eginaren kontu, begiratu behar \*BAIT-zaio eguneroko bizian.**

• *-(e)la* egitura apositiboa gaitzesten segi behar balio erlatiborako. EGLU-Vek dioen bezala (215), gaurko euskara mintzatuan gazteen artean maiz entzuten da *-(e)la* atzizki bidez emaniko aposizioa (318). Honek ez du tradizioerik euskaraz, eta eboluzioak eboluzio, oraindik hobe dirudi orain arte aipatutako aposizioekin saiatzen segitzeak. Kontu, ordea, irakasleok! Halakoen zuzenketa zuzena ez da (bakarrik) ezkerretiko erlatiboa (318.d), ikasleek zuzendu ohi duten gisa. Ohituta gauden baino maizago hartu behar dugu kontuan ezker eta eskuineko erlatiboen balio komunikatibo ezberdina, eta beraz, (318.a/b/c) ere bultzatu, bakoitza bere erregistroan, (318)ren zuzenketa modu.

(318) **\*Lagun batzuk** etorri ziren, *aspaldi ikusi gabe* **\*nitueLA.**

(318.a) **Lagun batzuk** etorri ziren, *aspaldi ikusi gabe* **nitueNAK.**

(318.b) **Lagun batzuk** etorri ziren *aspaldi ikusi gabe* **BAINituen.**

(318.c) **Lagun batzuk** etorri ziren **zein(ak/tzuk)** *aspaldi ikusi gabe* **(BAIT-)nituen(-N).**

(318.d) *Aspaldi ikusi gabe* **nituen lagun batzuk** etorri ziren.

20. Baina *erran nahi baita* esamoldea ere ez da halako erlatibo bat besterik, eta aurreko esamolde guztia, aurrekaria, *norekin* edo *nola* kasuetan du jaso: *Horrela/Horrek in erran nahi baita ...*

• **1. eta 2. pertsonekin ez ohi da erabili *-(e)n + ni.../zu.../gu.../zuek egitura* (319-20),<sup>21</sup> EGLU-Vek dioen harian, hauen ordezkari 1. edo 2. graduko erakusleak erabili ohi dira *-(e)n + hau..., hori..., hauek..., horiek...* (319-20.a), nahiz 1. edo 2. graduko izenordain pertsonalak ager litezkeen aurrekari gisa (319-20.b/c). Kasu guztietan gorde ohi du aditzak 1. edo 2. pertsonako komunztadura (nahiz 3. pertsonako komunztadura ere uste dugun posible dela *-nahastea eragin ezean-*).**

- (319) (\*) *Jada liburu hori irakurri dudAN NIK ...*  
 (319.a) *Jada liburu hori irakurri dudAN(duEN) HONEK ...*  
 (319.b) *NIK, jada liburu hori irakurri dudAN(duEN) HONEK, ...*  
 (319.c) *NIK, jada liburu hori irakurri dudANAK(duENAK), ...*  
 (320) (\*) *Hainbeste gauza dakizUN ZUK ...*  
 (320.a) *Hainbeste gauza dakizUN(dakien?)<sup>22</sup> HORREK ...*  
 (320.b) *ZUK, hainbeste gauza dakizUN(dakien) HORREK, ...*  
 (320.c) *ZUK, hainbeste gauza dakizUNAK(dakienAK), ...*

• **Erdaretako erlatiboan ordezkari egiturak euskaraz.** Artikulu sarreran aipatu dugu nola zenbait euskalarik uste izan duen euskaraz inguruko erdaretan baino gutxiago erabiltzen ote diren egitura erlatiboak, eta horretatik gomendatu ia besteren ezean baino ez erabiltzea hauek. Baina egia dena da euskaraz ere oso maila desberdineko estiloak ditugula erabilitako erlatibo kopuruaren inguruan,<sup>23</sup> eta denak ezagutu behar ditugula.

Nolanahi, itzulpenak jomuga, zerbait ezagutzea komeni bazaigu testuak errazte aldera, hori da, erlatibo guzti-guztiak funtsean ez direla bi esaldi koordinatu edo alboraturen ordezkari baino. Eta, beraz, beti eman litezkeela hala, koordinaturik edo alboraturik, orduan zailtasun sintaktiko guztiak uxatuz (oso aldaketa ñimiñoen truke), nola ikus litekeen hurrengo pareetan:

- (321) *Gurekin etorri den gizona azken hogeit kilometroetan* oso jatorra da.  
 (321.a) *Gizona gurekin etorri da azken kilometroetan. (ETA) oso jatorra da.*  
 (322) *Elefanteak, animalia handi bat BAITA, gazte denboran belaunak zalu ditu, ...*  
 (322.a) *Elefantea animalia handi bat da. (ETA) gazte denboran belaunak zalu ditu, ...*  
 (323) *Emazte gaiztoak, itoginak, eta keak ateratzen dutEN BEZALA gizona bere etxetik ...*  
 (323.a) *Emazte gaiztoak, itoginak, eta keak ateratzen dute gizona bere etxetik. (ETA) MODU BEREAN ...*  
 (324) *Israeleko seme Egiptotik ilki zireNETARIK, ...*  
 (324.a) *Israeleko semeak Egiptotik ilki ziren. (ETA) HAUETARIK, ...*  
 (325) *Zeren nolako baita lurra ZEINETARIK iragaiten BAITA ura, halako gertatzen baita ...*  
 (325.a) *Lurretik iragaten da ura. ETA zeren nolako baita LUR HAU, halako gertatzen baita ...*  
 (326) *Nola ageri baita Ejiptoko Piramideetan, ZEIN eragin BAITzituen errege Faraonek, ...*  
 (326.a) *Errege Faraonek eragin zituen Ejiptoko Piramideak. (ETA) nola ageri baita HAIETAN, ...*

21. Inoiz halakorik ere imajina baliteke ohiz kanpoko erabilera batean.

22. Bigarren pertsonaren aipamena ageria ez delarik 3.az edo *berorrikako* tratamenduz nahas baitaiteke, testuinguru argiaren ezean.

23. Gogoratu 2. oharra.

Bigurik erakusten ditu (1994, 1996) zentzuaren arabera erlatiboak beste hainbat modutara emateko aukerak euskaraz: koordinazio kopulatibo eta adbertsatiboen bidez, edo esaldi azalpenezko, kausal, kontzesibo, helburuzko, denborazko, moduzko, konpletibo, zehar galdera, eta abarren bidez. Orain IVApeko estilo-liburuan ere laburbilduak. Estilo kontu dirudite.

## **2. Erlatibatzeko zailtasunak euskaraz**

Euskaraz baditugu zailtasunak zenbait esaldi modu errazean erlatibatzeko. Erlatibatzen dugun esaldian izen ardatza beti isiltzen dugunez, honekin batera ezkututzen dugu honen hondarkia ere, kasuan argituko lukeena, honen eta esaldi erlatiboko aditzaren arteko harremana. Hala, zenbait esalditan zail gertatzen da besterik gabe zuzen asmatzen bien arteko erlazio hori (deklinabide kasu hori). Esaterako, ondoko esaldiak hotzean irakurrita gehienok sentituko dugu, seguru asko, halako deserosotasun bat, estu-estuan esaldiak uler bage-nitza ere:

(327) *Gaur bazkaldu dudan kamioiarekin* ez zara oso urrutira joango.

(328) *Gaur bazkaldu dudan lagunak* egin zuen armairu hura.

(327)n ez da erraza asmatzen zein lotura zuzen dagoen *bazkaldu eta kamioiaren artean*. Are (328)n ere *bazkaldu* eta *lagunaren* artean (nahiz agian errazxeago). Nolanahi, halako esaldiak ez dira hain ezohikoak gure elkarrizketa arruntetan, belarriak irekiz gero. Esaterako, (327-8) esaldien aurretik beste hauek eman baldin badira (329-30):

(329) [Elkarrizketa auto erretiratuen biltegi batean.] Nik egunero kamioi desberdin bat aukeratzen dut bertan bazkaltzeko. Eta batzuk ondo egoten dira oraindik. Baina, esate baterako, *gaur bazkaldu dudan kamioiarekin ez zara oso urrutira joango*.

(330) Asteko egun bakoitzean bazkaltzen dut lagun desberdin batekin. Baina denak ditut lagun onak, eta denek lagundu zidaten bulego berria prestatzen. Esaterako, *gaur bazkaldu dudan lagunak egin zuen armairu hura*.

Maiz gainera, halako erlatibo bitxietan ere mezu hartzaileak erraz imajina lezake gehienez beste aditz ordezkoren bat, errazago adieraziko lukeena izen ardatzarekiko lotura, nahiz kasuan mezu emaileak bategatik edo besteagatik aditz hori erabili ez duen. Esaterako:

(331) *Gaur bazkaldu dudan kamioiarekin* ez zara oso urrutira joango.

(331.a) *Gaur bazkaltzera joan naizen kamioiarekin* ez zara oso urrutira joango.

(331.b) *Gaur bazkaltzeko erabili dudan kamioiarekin* ez zara oso urrutira joango.

(332) *Gaur bazkaldu dudan lagunak* egin zuen armairu hura.

(332.a) *Gaur bazkaltzean ikusi dudan lagunak* egin zuen armairu hura.

(332.b) *Gaur bazkaltzean egon naizen lagunak* egin zuen armairu hura.

Nolanahi, baditugu euskaraz erlatibatzeko sekula arazorik ematen ez duten esaldiak. Edota ematen badituzte ere, nahiko erraz konpontzen direnak. Horiek aipatuko ditugu lehenik (2.1.). Eta bestalde, badira esaldiak, batez ere idatzian eta maila abstraktuagoetan erabiliak, berez testuinguru argigarriegia ez dutenak, maiz ematen dituztenak erlatibatzeko arazoak. Halakoek ere badute, ordea, konponbiderik (2.2.).



2.1. Erlatibatze-  
errazak

Erlatibatze-errazak diren esaldiek ez dute arazorik eragiten ez ezkerreko *-(e)n* erlatibo arruntak osatzeko, baina ez eta ere *erlatibo hautsiak*, *-(e)n...* aposizioak edo *bait-* edo *zein...* erlatiboak osatzeko ere (ez luzatzeagatik soilik lehenengoan adibideak emango ditugu, baina irakurleak erraz bete lezake hutsunea).

• **Izen ardatz isilduak** *nor*, *nork*, *nori* edo *predikatu osagarri (zer/nolako/nola)* funtzioak betetzen dituzenean erlatibatutako esaldian, ez da erlatibatze-errazorik (nahiz ekialdean inoiz izan litekeen zailtasunen bat *nori* kasuarekin, han aditzak aspalditik galdu duelarik usu *nori* komunztadura).

(333) *Gaur etorri den mutilarentzat ...* (hau da, *MUTILA etorri da gaur / NOR etorri da?*)

(334) *Gaur ikusi duzun mutilarekin ...* (hau da, *MUTILA ikusi duzu gaur / NOR ikusi duzu?*)

(335) Zaplastakoa **eman dizun mutilarengana** ... (hau da, *MUTILAK eman dizu zaplastakoa / NORK eman dizu?*)

(336) Zaplastakoa **eman diozun mutila** ... (hau da, *MUTILARI eman diozu zaplastakoa / NORI eman diozu?*)

(337) **Zu zaren ikasle onari** ... (hau da, *IKASLE ONA zara zu / ZER/NOLAKOA zara zu?*)

• **Kasu paralelismoa**. Ez da ere erlatibatze-errazorik inoiz, izen ardatz isildua eta agerikoa kasu berean doazenean, *zeinahi* kasutan doazela ere (338.a; 339.a/b), nahiz arazoak sortu kasu desberdinetan doazenean (338; 339):

(338) (?\*) *Joseba orain kalean dabilen NESKA HORREK* ez du senargairik. (NOREKIN dabil? / NORK ez du senargairik?)

(338.a) *Joseba orain kalean dabilen dabilen NESKAREKIN* ezkondu nahi luke Patxik. (NOREKIN dabil? / NORK ezkondu?)

(339) (?\*) *Josebak lan egiten duen NESKA HORREK* ez du senargairik. (NORENTZAT egiten du lan?)

(339.a) *Josebak lan egiten duen NESKARENTZAT* hasi naiz ni ere lanean. (NORENTZAT egiten du lan. / NORK ez du senargairik?)

(339.b) *Josebak lan egiten duen neskarekin* ezkondu nahi luke Patxik. (NOREKIN egiten du lan. / NORK ezkondu?)

• **Izen ardatz isilduak leku-denborazko kasu arrunta duenean (non.../noiz...)** aditzaren oso hurbileko osagarri izaki, ez ohi da erlatibatze-errazo handirik izan, nahiz kasu paralelismorik izan ez (*leku-bat-non-bizi*, *leku-bat-non-egon*, *egun-bat-noiz-jai*o, *urte-bat-noiz-hasi*, *leku-bat-nora-joan*, *leku-bat-nondik-etorri*, ...):

(340) *Jon orain bizi den HERRIA* urruti daukagu hemendik. (NON bizi da? / ZER daukagu?)

(341) *Ezkutaleku hura prestatu genuen ETXEA* laster bota zuten. (NON prestatu genuen? / ZER bota zuten?)

(342) *Zu jai*o zinen URTEAK lora asko eman zuen. (NOIZ / ZE(IN) URTEAN jaio zinen? / ZER eman zuen?)

(343) *Ezin ahaztu dut bizitzara jai*o nintzen EGUNA. (NOIZ / ZE(IN) EGUNETAN jaio zinen? / ZER ahaztu?)

(344) *Oraintxe irten garen TABERNARAKO* ekarri zuen Itziarrek koadroa. (NONDIK irten gara? / NORAKO ekarri?)

(345) *Bihar igoko garen MENDIKO* bidea ez da batere samurra. (*NORA igoko gara?* / *NONGO bidea?*)

(346) *Orain gatozen HERRITXO HORREK* Lasarte din izena. (*NORA/NONDIK gatoz?* / *NORK du Lasarte izena?*)

• **Hala ere, leku-denborazko kasuotan, hiztunak, beti aukeran, maiz erabili ohi du -(e)neko atzizkia, -(e)n** soilaren ordez, mezu hartzailea nolerebait jabeaz nahian-edo erlatibatutako izena eta aditzaren arteko loturaren berezitasunaz, -(e)ko atzizkia erantsiz, ohiko -(e)n erlatiboari, -(e)neko atzizkia sortuz.

(347) *Jon orain bizi dENEKO HERRIA* urruti daukagu hemendik.

(348) *Ezkutaleku hura prestatu genuENEKO ETXEA* laster bota zuten.

(349) *Zu jaio zineNEKO URTEAK* lora asko eman zuen.

(350) Ezin ahaztu dut *bizitzara jaio nintzeneKO EGUNA*. ...

• **Nolanahi, izen ardatz isildua, kasu bereziagoetan ere** nahikoa erraz erlatibatu ohi da **aditzaren hurbileko osagarri denean (testuinguru egokiaren laguntzaz)**, edota zenbait aditz perifrasiaren kasu genitiboetan aditz perifrasi gordeaz, ..., nahiz beti duten beren bitxitasun puntua: *zerbait-zertaz-hitzegin, norbait-norekin-ibili, falta-bat-zertaz-akusatu, norbait-noren-zain-egon, zerbait-zeren-gainean-galdetu/galdezka-aritu, liburu-baten-gainean-zin-egin, zerbaiten-norbaiten-kontra-egon, norbait-norekin/norengan-konfiantza-eduki, nagusi-bat-norentzat-lan-egin, maisu-bat-norengandik-ikasi, arrazoi-bat-zergatik-egin/maite, helburu-bat-zerengatik-borrokatu, ...*

(351) *Lehen hitz egin dizudan mutila* ... (NORTAZ/NOREN GAINEAN hitz egin dizut?)

(352) *Lehen hitz egin duzun mutila* ... (NOREKIN hitz egin duzu?)

(353) *Zu orain zabiltzan/ateratzen zaren neska hori* ... (NOREKIN zabiltz/ateratzen zara?)

(354) *Ni akusatu ninduten krimena* ez dute oraindik argitu. (ZERTAZ akusatu ninduten?)

(355) Oso jatorra iruditu zait *goizean egon garen mutil hori*. (NOREKIN egon gara?)

(356) *Bila ibili garen ume hori* ... (NOREN bila ibili gara?)

(357) *Hainbeste denbora zain egon garen autobusa* ... (ZEREN zain egon gara?)

(358) *Nafarroako erregeek gainean zin egiten ohi zuten liburu handia*. (ZEREN gainean zin egin?)

(359) Hainbeste aldiz kontra *aritu nintzen arerioek* lagundu ninduten. (NOREN kontra aritu?)

(360) Ez dut sekula ahaztuko *nire lehen maitasun ikasgaia jaso nuen maisua*. (NORENGANDIK/NOREKIN jaso nuen?)

(361) Azkenean lortu dugu *bizitza osoa borrokan generaman helburua*. (ZERENGATIK ari ginen borrokan?)

(362) *Ni aurten lanean ibili naizen nagusi horiek* ... (NORENTZAT ibili naiz lanean?)

(362.a) *Nik aurten lan egin dudan nagusi horiek* diruzale batzuk baino ez ziren. (NORENTZAT egin dut lan?)

(363) Ez dizkizut orain kontatuko *Mikel maite nuen arrazoiak*. (ZERGATIK maite nuen?).

• **Berezia da izen ardatz isildua norekin kasuan**, maiz erraz aldagarriak baitira esaldiko egilea (*nor/nork*) eta sozietiboan emandako izena, eta erraz

bihur litezke bat beste, isildutako ardatzaren eta aditzaren arteko loturak argituz (364-5). Ez beti, hala ere (366).

(364) (?\*) *Nik bazkaldu dudan neska* nire oso laguna da. (*NOREKIN bazkaldu dut?*)

(364.a) *Nirekin bazkaldu duen neska* nire oso laguna da. (*NORK bazkaldu du nirekin?*)

(365) (?\*) *Musika entzun dudan txakurra* oso zalea da. (*NOREKIN entzun dut musika?*)

(365.a) *Nirekin musika entzun duen txakurra* oso zalea da. (*NORK entzun du musika nirekin?*)

(366) (?\*) *Atea bota dudan mailua* ... (*ZEREKIN/ZEREZ bota dut atea?*)

(366.a) (?\*) *Nirekin atea bota duen mailua* ... (\**NOREKIN bota du mailuak atea?*)

• **Izen ardatz isildua noren kasuan ere maiz da berezia**, *noren* kasuak bere barne ezkutatu ohi dituelako *nor*, *nork* edo *nori* kasuak eta hauekin izan litekeelako aldagarrria (erdarazko *cuyo/a/os/as*; *dont*, *duquel*, ...).

(367) **Etxe horri, zeinen leihoak gorriak diren** ... ⇒ *Leiho gorriak dituen etxe horri* ...

(368) **Etxe horretan, zeinen leihoak hautsi diren** ... ⇒ *Leihoak hautsi zaizkion etxe horretan* ...

(369) **Etxe horretatik, zeinen leihoak hautsi dituzten** ... ⇒ *Leihoak hautsi dizkioten etxe horretan* ...

(370) **Etxe hori, zeinen leihoek kristal handiak dauzkaten** ... ⇒ *Kristal handiak dauzkaten leihoak dituen etxe hori* ...

(371) **Etxe hori, zeinen leihoetara joaten diren txoriak** ... ⇒ *Txoriak joaten zaizkion leihoak dituen etxea* ...

• **Zein... erlatiboek** ere ez dute inoiz erlatibatzeako arazorik, izenordainak beti baitu agerian kasu hondarkia.

2.2.  
Erlatibatzen  
zailak.  
Izenordain  
erresuntiboan  
erabilera

EGLU-Vek dioen gisa (186-92), testuinguruak bereziki lagundu gabe bederen, erlatibagaitza gertatu ohi da euskaraz esaldia, isildu beharreko izen ardatza *-ekin*, *-entzat*, *-z*, *-en*, *-(en)gatik*, *-(en)gan* / *-(en)gana* / *-(en)gandik* / ... itxurako kasu eratorri edo konplexuetan ematen denean. Nolanahi, halakoen erlatibatzea ere erabat errazten da *izenordain erresuntiboak* erabiliz (ik. EGLU-V; Oihartzabal 2003), nahiz halako egiturak ez diren gaur arte gehiegi erabili ohi literatura idatzian, nahiz bai ahozko jardunean.

Halakoetan, *izenordain erresuntiboaren* kasuak modu *erresumituan* gogoraziko digu izen ardatz (jada ez erabat) isilduaren kasua, funtzioa eta aditzarekiko lotura, bestela ilunxkoa. (372-3) esaldiak hotzean bitxi gertatzen dira, lehen kolpean ezin litekeelako argi sumatu zein den izen ardatz isilduaren eta erlatibatutako aditzaren arteko lotura:

(372) (?\*) Ez da munduan *bizia eman nezakeen gizonik*.

(373) (?\*) *Lan egiten dudan ugazabak* alaba bat izan du.

Baina ulergarritasun eta erabilgarritasun maila asko igoko dute izenordain erresuntiboak erabiliz (arrunt edo indartuak –erabiliagoak, seguru asko–):

(374) Ez da munduan **HARENGATIK/BERA(REN)GATIK *bizia eman nezakeen GIZONIK***.

(375) *Nik HARENTZAT/BERARENTZAT lan egiten dudan UGAZABAK* alaba bat izan du.

Antzera, ondoko esaldi guztietan ere:

- (376) (?\*) *Ezer ez dakigun lagun horri* galdetu beharko diogu zer edo zer noiz-bait.
- (376.a) **BERETAZ ezer ez dakigun LAGUN HORRI** galdetu beharko diogu zer edo zer noizbait.
- (377) (?\*) *Aitarentzat lan egiten dudan mutilarekin* geratu naiz gaur.
- (377.a) **HAREN/BERE aitarentzat lan egiten dudan MUTILAREKIN** geratu naiz gaur.
- (378) (?\*) *Galdu nintzen laguna* ez nuke inoiz berriro ikusi nahi.
- (378.a) **HARENGATIK/BERARENGATIK galdu nintzen LAGUNA** ez nuke inoiz berriro ikusi nahi.
- (378.b) **HAREKIN/BERAREKIN mendian galdu nintzen LAGUNA** ez nuke inoiz berriro ikusi nahi.
- (379) (?\*) *Aurrean egia esateko agindu zenigun emakume harexentzat* ekarri ditut loreak.
- (379.a) **HAREN/BERE aurrean egia esateko agindu zenigun EMAKUME HAREXENTZAT** ekarri ditut loreak.
- (380) (?\*) *Laster mendira joan beharko duzun lagunek* esango dizute.
- (380.a) *Laster mendira HAIENGANA/BERENGANA joan beharko duzun LAGUNEK* esango dizute.
- (380.b) *Laster mendira HAIKIN/BEREKIN joan beharko duzun LAGUNEK* esango dizute.
- (381) (?\*) *Egia jakin nuen adiskideari* eskerrak eman nizkion azkenean.
- (381.a) **HARENGATIK/BERAGATIK egia jakin nuen ADISKIDEARI** eskerrak eman nizkion azkenean.
- (381.b) **HARENGAN(D)IK/BERAGAN(D)IK egia jakin nuen ADISKIDEARI** eskerrak eman nizkion azkenean.
- (381.c) **HAREKIN/BERAREKIN egia jakin nuen ADISKIDEARI** eskerrak eman nizkion azkenean.
- (382) (?\*) *Ezkondutuen ondasun horiek* ez didate zorionik ekarri.
- (382.a) **HAIENGATIK/BERENGATIK ezkondutuen ONDASUN HORIEK** ez didate zorionik ekarri.
- (383) (?\*) *Nik bixkotxak utzi nituen lagun eriek* eskerrak bihurtu zizkidaten.
- (383.a) *Nik HAIENTZAT/BERENTZAT bixkotxak utzi nituen LAGUN ERIEK* eskerrak bihurtu zizkidaten.
- (384) (?\*) Hala barkatuko zaizu *bekatu jatorrizko guztiok jaiotzen garena*.
- (384.a) Hala barkatuko zaizu **BEKATU JATORRIZKO guztiok HAREKIN/BERAREKIN jaiotzen garena**.
- (385) (?\*) Errespeta ezazu *jaio zaren emakumea*.
- (385.a) Errespeta ezazu **HARENGAN(D)IK/BERARENGAN(D)IK jaio zaren EMAKUMEA**.

Noski, guztiak eman litezke beti *zein...* erlatiboan bidez. Baina hala, goi mailako erabilera itxura egiten lukeen bitartean, izenorde erresuntiboan bideak herrikiago, arruntago itxura emanen die esaldiei.

- (386) **HAREKIN** gustura egotea **lortzen dudan LEHENENGO NESKA** da. (ETB, *Jaun eta jabe*, 96/04/06; ap. Oihartzabal 2003, 783)
- (386.a) **BERAREKIN** gustura egotea **lortzen dudan LEHENENGO NESKA** da.
- (386.b) (?) Gustura egotea **lortzen dudan LEHENENGO NESKA** da.

• **Eta -(e)n** erlatibo arruntekin bezala gertatzen da izen ardatz determinatu gabeen ondoko kasuan ere: **-(e)n...** aposizio, **bait-** erlatibo, **eta modu guztietako azalpenekin** ere (ik. (384)ko esaldia ere).

- (387) (?\*) Ez da munduan **gizon bizia eman nezakeenik**.  
 (387.a) Ez da munduan GIZON HARENGATIK/BERA(REN)GATIK **bizia eman nezakeenik**.  
 (388) (?\*) Ez da **gizonik** munduan **bizia eman nezakeenik**.  
 (388.a) Ez da GIZONIK munduan HARENGATIK/BERA(REN)GATIK **bizia eman nezakeenik**.  
 (389) (?\*) Ez da **gizonik** munduan **eman bainezake bizia**.  
 (389.a) Ez da GIZONIK munduan **eman bainezake HARENGATIK/BERA(REN)GATIK bizia**.

• **Erresuntiboak euskal literatur tradizioan erabiliegiak izan ez badira ere** beti dira irtenbide posible bat ulergarritasunaren mesedetan, are erlatiba errazak diren esaldietan ere (nahiz hiztunak orduan soilik argitasun behar berezien aurrean erabiliko duen):

- (390) (BERA) *gurekin etorri den* NESKARENTZAT dira poltsok. (Agian enfatizatu nahian *bera* etorri dela *gurekin*, ez *gu* harekin.)  
 (391) *Oraintxe* (BERA) *Eiderrekin ikusi dugun* NESKA HORRENGANA joan nintzen lehengo egunean.  
 (392) (BERAK) *orain ogia ekarri digun* NESKA HORRIXE esan zion atzo Idoiak astakeria galanta.  
 (393) *Gela guztiak* (HARI/BERARI) *oparia egin genion* NESKA HORREXETAZ ari ginen hizketan.

2.3. Ondorioz, erlatibo zailak ere, aipatu era guztietan bidera litezke izenordain erresuntiboz

Konparagarri (312)n ere emandako *erlatiba* errazen aukerekin.

- (394) (?\*) *Egia jakin nuen adiskide hari* eskerrak eman nizkion azkenean.  
 (394.a) BERE BIDEZ *egia jakin nuen adiskide hari joko makinan afera horretan*, eskerrak eman nizkion azkenean.  
 (394.b) Adiskide, BERE BIDEZ *egia jakin nuen HARI*, eskerrak eman nizkion azkenean.  
 (394.c) Adiskide hari, BERE BIDEZ *egia jakin nuenARI*, eskerrak eman nizkion azkenean.  
 (394.c.a) Adiskide hari, BERE BIDEZ *egia jakin nuen HURA*, eskerrak eman nizkion azkenean.  
 (394.d) Adiskide hari, BERE BIDEZ *jakin BAINUEN egia*, eskerrak eman nizkion azkenean.  
 (394.e) Adiskide hari –*jakin nuen BA BERAGATIK egia*–, eskerrak eman nizkion azkenean.  
 (394.f) Adiskide hari, ZEIN(AR)EN BIDEZ *jakin (bait)-nuen(-N) egia*, eskerrak eman nizkion azkenean.  
 (394.g) Adiskide hari –NOLA/ZELAN *jakin nuen (BA)/jakin (BAIT)-nuen(-N) egia BERE BIDEZ*–, eskerrak eman nizkion azkenean  
 (394.h) Adiskide hari –NOREN BIDEZ/ZE(IN) ADISKIDEREN BIDEZ/ZEINEN BIDEZ *jakin (BAIT)-nuen(-N) (BA) egia*–, eskerrak eman nizkion.  
 (394.i) Adiskide hari –*ez nuen (BA) egia jakin BERAGATIK / (ADISKIDE) BATEN BIDEZ?*–, eskerrak eman nizkion azkenean.

### 3. Erlatibo jokatugabeak (ardatzaren ezker eta eskuin)

Euskaraz erlatibo jokatuak baldin baditugu ere ohikoenak, beti eman ohi dira aditz jokatugabez ere, modu bat baino gehiagotan, izen ardatzaren ezkerretik, ohikoenak (3.1.) edo eskuinetik (3.2).

Erlatibatzeko zailtasunak jokatuentzako aipatu bertsuak izanen dira, nahiz agian zorrozxeagoak, aditz jokatu ezak areago iluntzen duelako erlatibatutako aditzaren lotura izen ardatz isilduarekin. Konponbideak ere bertsuak. Bestalde, esan, gehien erabiltzen diren erlatibo jokatugabeak soilik egoera burutuak adierazteko erabili ohi direla (3.1.1.; 3.2.1), nahiz erabiltzen den *-(t)zeko* egitura egoera burutugabeak adierazteko (3.1.2; 3.2.2.).

3.1. *Erlatibo  
jokatugabeak  
izen ardatzaren  
ezker.  
Arruntenak*

3.1.1. *Partizipio  
burututik  
abiatuta, egoera  
burutuak  
adierazteko*

3.1.1.1. *Partizipio buru-  
tua + -ta (-da)  
+ -ko: -tako  
(-dako)*

3.1.1.2. *Partizipio buru-  
tua + -(r)ik+ -ko:  
1: -(r)iko // 2.  
-(r)ikako*

3.1.1.3. *Partizipio burutu  
hutsa*

Gehien erabiltzen diren erlatibo jokatugabeak, partizipio burututik (-tu) abiatutakoak dira (+ -ta(-da) + -ko // + -(r)ik + -ko // edo *partizipio hutsa* bera). Halakoek horregatik izanen dute beti balio burutua (nahiz etorkizunean ere gertatu ahal izan -etorkizunean burutuak: *Bihar ikusitako filma kontatuko digu etzi.*). Ez dute balio egoera burutugabeak adierazteko (nahiz iraganak izan), erlatibo jokatuek bai bezala (*Atzo ikusi behar genuen filma ≠ Atzo ikusitako filma = Atzo ikusi genuen filma*) (ik. 3.1.2.):

- (395) Hori da *gurekin etorri den gizona*. = Hori da *gurekin etorririko gizona*.  
(395.a) Hori da **BIHAR** *gurekin etorriko den gizona*. ≠ Hori da *gurekin etorririko gizona*.  
(395.b) Hori da **ATZO** *gurekin etorriko zen gizona / etortzekoa zen gizona*. ≠ Hori da *gurekin etorririko gizona*.

Erdi eta mendebaldeko euskaraz aditz partizipio burutu guztiei erants dakieke -ta atzizkia, modu burutuko adizlagunak -edo predikatu osagarriak- sortuz (-da, partizipioa -n edo -l-z amaitzen bada). Haueti, -ko erantsiaz zeinahi izen ardatzi eransteke moduko izenlagun edo erlatibo jokatugabe bat izanen dugu.

- (396) Hobe **hildako arrain horiek** bakean uztea!  
(397) *Bihar goizean ikusitako ipuinak* gero gauean kontatu beharko dizkidazu.  
(398) *Gu jaiotako herrian* ez da inoiz ezer gertatzen.  
(399) Lasai fida zaitzke *guk orain hitz egindako neska horrekin*.  
(400) *Ondo jantzitako gizon bizardun beltzaran zabalkote bat*.

-ta bezalaxe erantsi ohi zaie aditz partizipio burutu guztiei -(r)ik atzizkia euskararen eremu ia osoan modu burutuko adizlagunak sortzeko. Eta honi -ko posposizioa erantsiz zeinahi izen ardatzi eransteke moduko izenlagun edo erlatibo jokatugabe bat izanen dugu. Ondorio formalak, ordea, bi izan litezke: 1. -(r)ik + -ko = -(r)iko (Euskal Herri osoan edo erabilia, erdialdean salbu). Eta 2. -(r)ik + -ko = -(r)ikako (euskararen ekialdean erabilia, bai ipar eta bai hegoaldean, nahiz ahantzia izan euskara batuan).

- (401.a) *Mendian aurkituriko perretxiko guztiak* bilduko ditugu.  
(401.b) *Mendian aurkiturikako perretxiko guztiak* bilduko ditugu.  
(402.a) Ikusi nahi nituzke nik *zuek ikusiriko film horiek*.  
(402.b) Ikusi nahi nituzke nik *zuek ikusirikako film horiek*.  
(403.a) Sekulako uholdeak izan ziren *gu baserri honetara etorririko urtean*.  
(403.b) Sekulako uholdeak izan ziren *gu baserri honetara etorrikako urtean*.  
(404.a) *Zuk hainbeste gozaturiko film horretan* ez da aktore ezagunik ageri.  
(404.b) *Zuk hainbeste gozaturikako film horretan* ez da aktore ezagunik ageri.  
(405.a) Ikusirik *komentuen kontra eginiko lege tzarrak* ...  
(405.b) Ikusirik *komentuen kontra eginikako lege tzarrak* ...

Iparralde osoan (salbu Lapurdi hegomendebaldean) eta Aezkoa eta Baztanen ere behintzat, partizipio hutsa ere erabiltzen da izenaren ezkerretik emana egoera burutuko erlatiboak sortzeko. Gaur, bere labur zuhurrean, oso erabilia da euska-

ra batuko idatzizko komunikabideetan<sup>23 bis</sup> (izen ardatzaren eskuinetik emana, egitura Euskal Herri osoan da erabilia –ik. 3.2.–).

(406) *Atzo EKARRI LANDAREAK*, non dira?

(407) Niri ikaragarri gustatzen zaizkit *Mirok MARGOTU KOADRO GALANT HORIEK*.

(408) *Nagusiak EMAN PREZIOA* ez duzu txarra.

(409) **ERRAN TENOREKO** jin zen. (gogoratu **ESAN IKUSI ORDUKO** gisakoak)

(410) Laster da berriro lurrean zure nagusiak **ALTXATU ETXE BERRI HORI**.

#### 3.1.1.4. *Partizipio burutua + -ko*

Inoiz ematen dira halako erlatiboak *-ko* atzizkia zuzenean erantsita partizipio burutuari, iparraldean (ik. Lafitte, *Grammaire* §494; kostako lapurtarrena delakoan (411-2)) eta mendebaldean ere behintzat (ik. (413)). Ez da, nolahi, erabiliegia izan.

(411) *Atzo Martinek AIPATUKO GIZONA ...*

(412) *Hainbertzetan IRAKURRIKO LIBURU HORRETARIK* beti irakaspen berri zerbait ateratzen dut.

(413) **GALARAZIKO ATEA** zabaldu huela aitorturik, ... (I. Larrakoetxea, *Grimm anaien 50 ume ipuin*, Labayru, 2001, 74).

#### 3.1.2. *Erlatibo jokatugabea egoera burutugabeeta- rako, aditz izenetik abiatuta: -t(z)e + -ko*

Egoera burutugabeak adierazteko, partizipiotik abiatu ordez, *-tze* aditz izenetik abiatu beharko dugu, eta honi erantsi *-ko* posposizioa, izenlagun bihurtzaile orokorra: *-t(z)eko*.

(414) Hartu *etxean eginiko lanak!* (*Jada eginak daudenak*). ≠ Hartu *etxean egiteko lanak!* (*Etxean egin beharreko lanak*).

Halakoak dira ohiko *-t(z)eko* + *izena* euskarazko egitura arruntak (edo *-t(z)eko* + *prest/gauza/gai...*):

(415) Olia falta zaio **JOSTEKO MAKINA HORRI**.

(416) Ez hoa ja inora **IDAZTEKO MAKINA PREHISTORIKO HORREKIN**.

(417) *Berehala JOATEKO ASMOZ* hurbildu naiz, baina ...

(418) *Dirua EGITEKO MAKINA bat* lapurtu dugu.

(419) Ez du galduko *kafea HARTZEKO OHITURARIK* mundu honetatik joaten den arte.

(420) Gazteak! Baduzue dagoeneko **ALTXATZEKO ORDUA**.

(421) Oraintxe galdu dut, bada, **AFALTZEKO GOGO GUZTIA**.

(422) **GALTZEKO ARRISKUA** handia da baso hauetan.

(423) *Mendi hori IGOTZEKO GAUZA* sentitzen al zara oraindik?

(424) Ez dira *egia ESATEKO GAI* izan.

(425) *Edozer EGITEKO PREST* gauzkazu.

Maiz, ordea, *-t(z)eko* sintagmak independentzia bereganatu ohi du izen ardatzetik (errazago, hau absolutiboan emana denean), eta zenbaitetan, zentzua zertxobait aldatuz, aditz nagusiaren arartegabeko osagarri independente bihurtu (*zerta(ra)ko*), maiz izen ardatzaren ondoren emana.

Ezkerreko *-t(z)eko* erlatiboa murrizgarri interpretatu ohi da. Eskuinekoa, hondarik gabe, ez-murriztaile edo azalpenezkoa izanen da. Baina nahikoa da

<sup>23 bis</sup> Euskal Herri osoan ere ez da besterik gertatzen mendekohainbat esaldi jokatugabeen egituretan hauek ematen direnean *partizipio soila + izen (fosilizatu)a* (*ordu, aurre, aitzin, ordu, arte, bitarte, ...*) moduan: *ikusi orduko, etorri bitartean, egin aurretik, ...*

-(t)zeko ondoratuari izen ardatzaren hondarkia eranstea, honek berriro zentzu murriztailea har dezan (426.a):

- (426) Hartu *etxean egiteko lanak!* ≈ Hartu **lanak etxean egiteko!**  
(426.a) Hartu *etxean egiteko lanak!* = Hartu **lanak, etxean egitekoak!** (Ez bestea)

Horrela, segidako pare arruntek, ordena gorabehera, kideko dirudite:

- (427) Ez du *kafea hartzeko ohiturarik* utziko = Ez du **ohiturarik** utziko *kafea hartzeko*.  
(428) Baduzue dagoeneko **jaikitze** ordua. = Baduzue **ordua** dagoeneko **jaikitze**.  
(429) Oraintxe galdu dut **afaltzeko gogo guztia**. = Oraintxe galdu dut **gogo guztia afaltzeko**.  
(430) **Galtzeko arriskua** handia da baso hauetan. = **Arriskua** handia da *baso hauetan galtzeko*.  
(431) *Mendi hori igotzeko gauza* sentitzen al zara? = **Gauza** sentitzen al zara *mendi hori igotzeko?*  
(432) Ez dira *egia esateko gai* izan. = Ez dira **gai** izan *egia esateko*.  
(433) *Edozer egiteko prest* gauzkazu. = **Prest** gauzkazu *edozer egiteko*.

Hurrengo pareetan, ordea, kideasuna ez da maila berekoa (lehenen lexikalizazio mailak goragoa dirudi):

- (434) *Dirua egiteko makina bat* lapurtu dugu. ≠ **Makina bat** lapurtu dugu *dirua egiteko*.  
(435) Olioia falta zaio **josteko makina horri**. ≠ **Makina horri** olioia falta zaio **josteko**.  
(436) Ez hoa ja inora **idazteko makina zahar horrekin**. ≠ **Idazteko** ez hoa ja inora **makina zahar horrekin**.  
(437) *Berehala joateko asmo betez* hurbildu naiz. ≠ **Asmo betez** hurbildu naiz *berehala joateko*.<sup>24</sup>

-(t)zeko erlatibo burutugabeak, nolana, ez dira erabiltzen izen arruntentz lagungarri *-takol-(r)i(ka)ko* egitura burutuak bezainbeste. *Ikusiriko filma* edo *etorritako gizona* erabat arruntak diren bezala, *ikusteko filma* edo areago *etortzeko gizona* esaldiek ez dirudite horren arrunt, ez badira testuinguru oso argietan emanak. Hauen ordez, maiz ikusiko ditugu beste parafraisi batzuk: *ikusteko den filma, ikusteko dugun filma, ikusteko moduko filma, ...* edo *etortzeko den gizona, etorri behar duen gizona, ...*

### 3.2. Erlatibo jokatu-gabeak izen ardatzaren eskuin

Arruntak izanen ez badira ere, aipatu egitura erlatibo jokatu-gabe guztiak eman litezke izen ardatz determinatu edo determinatu gabearen eskuin (determinatu gabeen ondotik, arruntagoak, seguru asko, erlatibo jokatu-gabe bezala, adjektibo sail batean-edo emanak, baina nolana ere). Behar izanez gero, izenordain erresuntiboz ere bai. *Partizipio hutsaren* eskuinetiko erabilera, berriz, euskararen eremu osokoa da, adjektibo bezala, osagarri edo gabe, eta ezkerretiko erabilera baino maiztasun handiagoa.

#### 3.2.1. Partizipio burututik abiatuta, egoera burutuak adierazteko

- **PARTIZIPIO BURUTUA + -TA(-DA) + -KO: -TAKO (-DAKO) + HONDARKIA**  
(438) Hobe **ARRAIN HILDAKO HORIEK** bakean uztea.  
= (438.a) Hobe **ARRAIN HORIEK, HILDAKOAK**, bakean uztea.  
(439) **IPUIN bihar goizean IKASITAKOAK** gero gauean kontatu!

24. Gogoratu ere kanta: Olentzero joan zaigu mendira lanera **intentzioarekin ikatz egitera**.



- = (439.a) **IPUINAK**, *bihar goizean IKASITAKOAK*, gero gauean kontatu!
- (440) **HERRI gu JAIOTAKO HORRETAN** ez da inoiz ezer gertatzen.
- = (440.a) **HERRIAN**, *gu JAIOTAKO HORRETAN*, ez da inoiz ezer gertatzen.
- (441) Fida zaitezke **NESKA guk HITZ EGINDAKO HORREKIN**.
- = (441.a) Fida zaitezke **NESKA HORREKIN**, *guk HITZ EGINDAKOAREKIN*.
- = (441.b) Fida zaitezke **NESKA HORREKIN**, *guk HITZ EGINDAKOA*.
- (442) **GIZON ondo JANTZITAKO bizardun beltzaran zabalkote BAT**.
- = (442.a) **GIZON BAT**, *ondo JANTZITAKO bizardun beltzaran zabalkote BAT*.

• **PARTIZIPIO BURUTUA + -(R)IK + -KO: -(R)IKO / -(R)IKAKO + HONDARKIA**

- (443) **PERRETXIKO mendian AURKITURI(KA)KO GUZTIAK** bilduko ditugu.
- = (443.a) **PERRETXIKOAK**, *mendian AURKITURI(KA)KO GUZTIAK*, ...
- (444) **FILM zuek IKUSIRI(KA)KO HORIEK** ikusi nahi nituzke nik.
- = (444.a) **FILM HORIEK**, *zuek IKUSIRI(KA)KOAK*, ikusi nahi nituzke nik.
- (445) **URTE gu baserri honetara ETORRIRI(KA)KOAN** ...
- = (445.a) **URTE HARTAN**, *gu baserri honetara ETORRIRI(KA)KOAN*, ...
- (446) **FILM zuk hainbeste GOZATURI(KA)KO HORRETAN** ez da aktore ezagunik.
- = (417.a) **FILM HORRETAN**, *zuk hainbeste GOZATURI(KA)KOAN*, ...
- = (417.b) **FILM HORRETAN**, *zuk hainbeste GOZATURI(KA)KOA*, ...
- (447) Ikusirik **LEGE TZAR komentuen kontra EGINI(KA)KOAK** ...
- = (447.a) Ikusirik **LEGE TZAR HAIK** *komentuen kontra EGINI(KA)KOAK* ...

• **PARTIZIPIO BURUTU HUTSA**. Partizipio hutsaren ezkerretiko erabilera erlatibo iparraldean eta Nafarroan bakarrik eman ohi da gaur egun arte. Eskuinetiko erabilera, ordea, euskararen alde eta aldi guztietakoa da, baina ikusi 23bis oharra. 1. Adjektibo gisa (*lore ustelduak*) izen ardatz determinatu gabeen ondoren, maiz osagarriak hartuz (*lore gaur niri ustelduak*). 2. Izen ardatz determinatuen ondokoak, erlatibo murriztaile lana enginen dutenak.

- (448) **LANDARE atzo EKARRIAK**, non dira?
- ≈ (448.a) **LANDAREAK**, *atzo EKARRIAK*, non dira?
- (449) Niri ikaragarri gustatzen zaizkit **KOADRO galant Mirok MARGOTU HORIEK**.
- ≈ (449.a) Niri ikaragarri gustatzen zaizkit **KOADRO galant HORIEK**, *Mirok MARGOTUAK*.
- (450) **PREZIO nagusiak EMAN HORI** ez duzu txarra.
- ≈ (450.a) **PREZIOA**, *nagusiak EMANA*, ez duzu txarra.
- (451) Laster da berriro lurtean **ETXE berri zure nagusiak ALTXATU HORI**.
- = (451.a) Laster da berriro lurtean **ETXE berri HORI**, *zure nagusiak ALTXATUA*.

• **PARTIZIPIO BURUTUA + -KO**. Gutxi erabilia izaki ere, ez du eragozpenik eskuinetik emana agertzeko (454):

- (452) **GIZON atzo Martinek AIPATUKOA** ...
- = (452.a) **GIZONA**, *atzo Martinek AIPATUKOA*, ...
- (453) **LIBURU hainbertzetan IRAKURRIKO HORRETATIK** beti zerbait ateratzen dut.
- = (453.a) **LIBURU HORRETATIK**, *hainbertzetan irakurrikotik*, ...
- (454) Nik ez dut zabaldu **ATE GALARAZIKORIK**. (I. Larrakoetxea, *Grimm anaien 50 ume ipuin*, Labayru, 2001, 75).
- = (454.a) Nik ez dut zabaldu **ATERIK**, *GALARAZIKORIK*.

3.2.2. *Egoera burutugabeak adierazteko: -t(z)e+-ko*  
(ik.goian 3.1.2. atalean esanak)

- (455) Hartu **LAN etxean EGITEKO HORIEK!**
- = (455.a) Hartu **LANAK**, *etxean EGITEKO HORIEK!* (= *egiteko genituenak*).
- (456) Orain erosi **ARROPA aurten EROSTEKO GUZTIAK!**
- = (456.a) Orain erosi **ARROPA GUZTIAK**, *aurten EROSTEKOAK*.
- (457) Iaz ere **USO hemen BOTATZEKO GUZTIA** bota nian.
- = (457.a) Iaz ere **USOA**, *hemen BOTATZEKO GUZTIA*, bota nian.

3.3. *Labur,  
erlatibo  
jokatugabe  
burutu (eta  
burutugabe)  
aukerak:*

- (458) Zahartuta geratu zaizkigu ja *iaz* EROSITAKO ARROPA GUZTIAK.  
 (458.a) Zahartuta geratu zaizkigu ja ARROPA *iaz* EROSITAKO GUZTIAK.  
 (458.b) Zahartuta geratu zaizkigu ja ARROPA GUZTIAK, *iaz* EROSITAKOAK.  
 (459) Zahartuta geratu zaizkigu ja *iaz* EROSIRIKO ARROPA GUZTIAK.  
 (459.a) Zahartuta geratu zaizkigu ja ARROPA *iaz* EROSIRIKO GUZTIAK.  
 (459.b) Zahartuta geratu zaizkigu ja ARROPA GUZTIAK, *iaz* EROSIRIKOAK.  
 (460) Zahartuta geratu zaizkigu ja *iaz* EROSIRIKAKO ARROPA GUZTIAK.  
 (460.a) Zahartuta geratu zaizkigu ja ARROPA *iaz* EROSIRIKAKO GUZTIAK.  
 (460.b) Zahartuta geratu zaizkigu ja ARROPA GUZTIAK, *iaz* EROSIRIKAKOAK.  
 (461) Zahartuta geratu zaizkigu ja *iaz* EROSI ARROPA GUZTIAK.  
 (461.a) Zahartuta geratu zaizkigu ja ARROPA *iaz* EROSI GUZTIAK.  
 (461.b) Zahartuta geratu zaizkigu ja ARROPA GUZTIAK, *iaz* EROSIKAKOAK.  
 (462) Zahartuta geratu zaizkigu ja *iaz* EROSIKAKO ARROPA GUZTIAK.  
 (462.a) Zahartuta geratu zaizkigu ja ARROPA *iaz* EROSIKAKO GUZTIAK.  
 (462.b) Zahartuta geratu zaizkigu ja ARROPA GUZTIAK, *iaz* EROSIKAKOAK.  
 (463) Orain erosi *aurten* EROSTEKO ARROPA GUZTIAK. (= *EROSTEKO DIREN GUZTIAK*).  
 (463.a) Orain erosi ARROPA *aurten* EROSTEKO GUZTIAK.  
 (463.b) Orain erosi ARROPA GUZTIAK, *aurten* EROSTEKOAK.

#### **4. Izen ardatzik gabeko erlatiboak, erlatibo libreak**

Egitura erlatiboak maiz erabiltzen dira euskaraz batere izen ardatzik gabe emanak, ez aurretik, ez ondotik. Arruntenak *-(e)n...* atzizki bidez egin ohi dira alde eta aldi guztietan (4.1.), baina ez da modu bakarra. Galdegile bidezkoak ere arras arruntak dira (4.2).

4.1. *-(e)n...*  
atzizki bidezko  
erlatibo libreak  
(*zeinahi  
determinante  
motaz*)

*-(e)n...* atzizki bidezko erlatibo librean egitura, izen ardatz determinatu edo gabean ondoko *-(e)n...* aposizioen bera da, izen ardatz aurrekari propiorik gabe *-ik*. (464)-. Edota testuinguruan jada nahikoa argi dagoelako ardatza zein den, eta hau ez errepikatzeagatik arintasunaren mesedetan (465, 465.a/b). Edota ardatzik gabe generikotasuna adierazi nahi delako: ezaugarri hori duen *edozer* edo *guztia*. Nahiz hauen ezkutuan beti den *persona/gauza* itxurako ardatz generiko bat, testuinguruak ulertaraziko diguna (466-7).

- (464) *Etxeko liburu, zuk idatzi dituzunak*, asko gustatzen zaizkit. (= Izen ardatz determinatu gabearen ondoko erlatiboa).  
 = (464.a) *Etxeko liburuak, zuk idatzi dituzunak*, asko gustatzen zaizkit.  
 (= *-(e)n...* aposizioa).  
 ≠ (464.b) *Etxeko liburuak*, eta *zuk idatzi dituzunak*, asko gustatzen zaizkit.  
 (= Erlatibo librea)  
 (465) Patxiren *liburuak*, eta *zuk idatzi dituzunak*, asko gustatzen zaizkit.  
 (465.a) Patxiren *liburuak*, eta *zuk idatzi dituzun liburuak*, asko gustatzen zaizkit.  
 (465.b) Patxiren *liburuak*, eta *zuk idatzi dituzun ipuinak*, asko gustatzen zaizkit.  
 (466) *Umorerik ez duenari* ezin ezer esan. = *Umorerik ez duen pertsonari* ezin ezer esan.  
 (467) *Ondo idatzita dagoena* ondo idatzita dago. = *Ondo idatzita dagoen edozer/gauza/guztia* ondo idatzita dago.

Erlatibo libreetan areagotu egin litezke erlatibatze zailtasunak izen ardatz ezean (468), nahiz testuinguru egokiak (468.a) maiz bidera lezakeen interpretazio egokia (nabarmen *-(e)ne(t)an* itxurako denborazkoetan).

(468) (?) *Zuk hitz egin duzunak* harritu nau. = /  $\approx$  /  $\neq$  *Zuk hitz egin duzun moduak harritu nau.*

(468.a) Gustatzen zait hemen zenbait jendeak hitz egin duen modua, baina *zuk hitz egin duzunak* harritu nau.

Halako esaldiak ezin dira eman *bait-* erlatibo gisa (baina gogoratu esan ditugunak *ba(da)* azalpenak eta *bait-* erlatiboak alderatzen (1.2.3.2. eta 1.2.3.2.1.; ik. ere ondoko 4.2., 4.3. ataletan esanak):

(469) Hitz egin dezala *zerbait dakienak kontu horien gainean.*

(469.a) (\*)Hitz egin dezala *zerbait \*BAITaki kontu horien gainean.*

(469) esaldiak bezala *-(e)n... erlatibo libreek* nahikoa erraz ematen dituzte osagarriak aditzaren eta honi erantsitako menderagailuaren ondoretik (esaldien %20 inguruk, eta luzeenen artean %65ek ere bai).

(470) Ezin du aurrera egin *etxean egunero entzun behar izaten dituenekin arrebengandik.*

(471) Eguraldia da *lehenbizi kontuan eduki behar dena horrelako egun batean.*

(472) Baina ez iezaiozu kasurik egin *lehen esan dizudanari Igorren gainean.*

(473) *Gerra galdu zutenek garai hartan*, ohorea ere hor nonbait ibili zitean.

(474) Ez da *hemen hori ez dakienik Euskal Herriko historiaren gainean.*

#### 4.1.1. Erlatibo libreak jokatugabeak

3. atalean aipatu ditugun erlatibo jokatugabe mota guztiak ere ematen ditugu, noski, izen ardatzik gabe: *gertatutakoa...*, *gertaturikoa...*, *gertaturikakoa...*, *gertatua...*, (*gertatukoa...*), *gertatzekoa...* // *ikusitakoari...*, *ikusirikoari...*, *ikusirikakoari...*, *ikusiar...*, (*ikusikoari...*), *ikustekoari...* // *egindakoetan...*, *eginikoetan...*, *eginetakoetan...*, *eginetan...*, (*eginetakoetan...*), *egitekoetan...*, ...

#### 4.2. Galdegile bidezko erlatibo libreak

Ezin ohikoagoak dira euskaraz erlatibo libreak galdegile bidez emanak (*nor*, *zer*, *non*, *noiz* sailetakoa, baina bai eta ere *zein* saillekoak aukeran, urriago erabili badira ere) (ik. EGLU-V 247-59; Hidalgo 2003). Ahozko hizkeran, artean zehar galderen intonazioa gorde ohi dute galdegilea hainbat gailurtuz. Segidako azalpenak gogoratzea ez da erraza eta argiago aukera guztiak ondoko adibide sailetan (475-6 eta hurr.).<sup>25</sup>

1. Arrunki esaldi nagusiko aditzaren aurretik eman ohi dira (halakoei *korrelazioko erlatiboak* deitu ohi zaie).

- Nahiz atzetik ere aukerakoak izan (orduan izenordain erresuntiborik gabe emanak).

2. Esaldi erlatibook, jokatua baldin badira:

- Erdi eta mendebaldean *-(e)n* atzizkia hartu ohi dute (baita ere iparraldean Saran eta ekialdean Aezkoan ere behintzat), eta ahozkoan oso erabiliak izaki, idatzian ere agertzen dira.<sup>26</sup> Eta beti aukeran, baina oso maiz, *ba(da)* lokailua ere jasotzen dute esaldi nagusian.

25. Halako esaldiak finean ez dira aurrekaririk gabeko *zein...* motako erlatiboak baino, EGLU-Vek halako izendapenik onartzen ez badu ere.

26. *Noiz eta nori nahi duen ematen dio.* (Larramendi). *Bati zer komeni zaion, huraxe; zenbat komeni zaion, hainbestetxe.*

- Nafarroan eta iparraldean *bait-* aurritzia hartu ohi dute eta oso erabiliak izan dira idatzian ere.<sup>27</sup>

### 3. Jokatugabeak baldin badira,

- Partizipio burutu soila eraman ohi dute hegoaldean (nahiz bestelako partizipioak ere posible izan).<sup>28</sup>
- Aditzoina iparraldean.

Jokatugabeen kasuan, esaldi nagusia ere jokatu gabe ematen bada (edota bi esaldiak aditzik gabe ere –orduan derrigor agertuko dira erresuntiboak–), egiturek aforismo, erretrau edo esaera itxura hartuko dute, oso maiz erabiliak alde eta aldi guztietako euskaran.

### 4. Esaldi nagusiak maiz du izenordain erresuntibo bat (are izena bera ere errepikatua), galdegileak gogorazi nahi duen erreferentzia berreskuratuz (maizago bien kasuak desberdinak badira). Izenordain (edo izen) erresuntibo hau izan ohi da esaldi nagusiko osagai fokalizatua (aditzaren aurre justuan emana edo ondoren nonahi beti intonazio gailur propioz).

- Esaldi nagusia aurretik emana bada, erresuntiboa eman liteke bera bakarik erlatiboaren ondoren (*eta* lokailuz arrunki).
- Erresuntiborik ez bada, nekezago eman ohi dira *bait-* bidezko esaldiak (ik. 475.e/i; 476.e/i),<sup>29</sup> nahiz *-(e)n* bidezkoak usu erabili ohi diren.<sup>30</sup> (ik. beharxego dioguna ere *beharbadako esaldiez*).

Aukerak beraz ugariak dira esaldi berber batentzako, intonazio beti enfatikoz eta aproposez:

(475) *Zure maisuak ZER egiten duen, (ba) HORI* ibiliko duzu buruan. (= *Zure maisuak egiten duena* ibiliko duzu buruan)

(475.a) *Zure maisuak ZER egiten duen, (ba) zuk JARDUN HORI* ibiliko duzu buruan.

(475.b) *Zure maisuak ZER egiten duen, (ba) zuk* ibiliko duzu buruan *JARDUN HORI*.

(475.c) *Zure maisuak ZER egiten BAITU, (JARDUN) HORI* ibiliko duzu buruan.

(475.d) *Zure maisuak ZER egiten duen* ibiliko duzu zuk buruan.

(475.e) (%) *Zure maisuak ZER egiten BAITU* ibiliko duzu buruan.

(475.f) Zuk ibiliko duzu buruan *zure maisuak ZER egiten duen, (eta) HORI*.

(475.g) Zuk ibiliko duzu buruan *zure maisuak ZER egiten BAITU, (eta) HORI*.

(475.h) Zuk ibiliko duzu buruan *zure maisuak ZER egiten duen*.

(475.i) (%) Zuk ibiliko duzu buruan *zure maisuak ZER egiten BAITU*.

(475.j) *Zure maisuak ZER egin, (ba) (HORI)* ibiliko duzu buruan.

27. XVI. mendeko erretrauetan mendealdean ere bai *bai(s)t-* aurritziaz (*bait-*en kide): *Zelako baista ama, halako ohi da alaba. ...*

28. *Haurrak zer ikasiko, hura eman beharko*. Edo: *Zer ikasten, hura egiten* (*Zer ikasten den/baita, hura egiten da-*ren laburpen).

29. Iparraldeko ikastunek ezinezkotzat eman ohi dituzte halako esaldiak, baina I. Epeldek jaso berri du halako ahozko adibide argi bat ere bederen Larresoron (2003, 198): *Geo nai tuzun bezala reglatzen* [jartzen, kokatzen] *tutzu* [belarrak edo dena delakoa], *nun baituzu min* «min duzun tokian» - biltzailearen oharra-.

30. Hala salatuz, beharbada, lotura zuzenagoa zehar galderarekin (inoiz egiten ez direnak *bait-* aurritziz). Posible da nolana halako *bait-* bidezko esaldiak usuago aurkitzea *ere juntagailuz zentzu kontzesibo argi batean* (ik. aurrerago (485-7)).

- (475.k) *Zure maisuak ZER egin*, zuk HORI ibili buruan.  
 (475.l) *Zure maisuak ZER*, zuk HORI buruan.  
 (476) *Grinak ZER eskatzen dien*, (ba) HORIXE egiten dute. (= *Grinak eskatzen die*NA egiten dute.)  
 (476.a) *Grinak ZER eskatzen dien*, egiten dute HORIXE.  
 (476.b) *Grinak ZER eskatzen BAITie*, HORIXE egiten dute.  
 (476.c) *Grinak ZER eskatzen BAITie*, egiten dute HORIXE.  
 (476.d) *Grinak ZER eskatzen dien* egiten dute.  
 (476.e) (%) *Grinak ZER eskatzen BAITie* egiten dute.  
 (476.f) Egiten dute *grinak ZER eskatzen dien*, (eta) HORIXE.  
 (476.g) Egiten dute *grinak ZER eskatzen BAITie*, (eta) HORIXE.  
 (476.h) Egiten dute *grinak ZER eskatzen dien*.  
 (476.i) (%) Egiten dute *grinak ZER eskatzen BAITie*.  
 (476.j) *Grinak ZER eska(tu)*, (ba) HORIXE egiten dute.  
 (476.k) *Grinak ZER eska(tu)*, egiten dute.  
 (476.l) Egiten dute *grinak ZER eska(tu)*.  
 (476.m) *Grinak ZER eska(tu)*, HORIXE egin.  
 (476.n) *Grinak ZER*, haiek HORIXE.

Hala moduzko aukerak ditugu ondoko esaldien antzeko guztiekin ere:

- (477) **NORK esaten dizun**, (ba) HARI egin beharko diozu kasu. (= **Esaten dizun**NA-RI egin beharko diozu kasu.)  
 (478) *Ehiztaria ZEREKIN etortzen zeN*, (ba) HORI afaltzen genuen. (≈ **Janari hura**, ZEIN(AR)EKIN etortzen (BAIT-)zen(-N) ...)  
 (479) *Zure laguna NONDIK joan den*, (ba) zuk hartu BIDE HURA! (= Zuk hartu *zure laguna joan den*(EKO) BIDE HURA!)  
 (480) *Zuk NON nahi duzun*, (ba) HAN BERTAN egingo dugu bilera. (= *Zuk nahi duzun* LEKUAN egingo dugu bilera.)  
 (481) *Zuk NOIZ joan behar duzun*, ORDU HORRETARAKO prestatuko dizkizugu maletak. (= **Joan behar duzun** ORDURAKO ...)

Esaldion aukera laburrenetakoak baino ez dira segidako en antzera sor litezkeen esaera-esamolde guztiak: *Zer ikusi*, *hura ikasi*; *Eguzkia nora*, *zapiak hara*; *Dirua non*, *begiak han*; *Norekin ibili*, *haren pare*; *Begia nori*, *harria hari*.

Egitura guztiok oso hurbilekoak dira *zein*... erlatiboetatik. Nahikoa da esaldiak atzekoz aurrera ematea aurrekaria ezin argiago topatzeko:

- (482) *Zure laguna NONDIK joan den*, (ba) zuk hartu BIDE HURA! ≈ Zuk hartu BIDE HURA, NONDIK joan den *zure laguna*!  
 (482.a) *Zure laguna NONDIK joan BAITa*, zuk hartu BIDE HURA! ≈ Zuk hartu BIDE HURA, NONDIK joan BAITa *zure laguna*!

• **BEHARBADAKO ESALDIK**: Finean ez dira besterik *beharbadako*-edo dei genitzakeen esaldiak ere (erdarazko *dépendre de*, *dependre de*, *según* + *zehar galdera* -maizenik galdegilez-), euskaraz zehar galdera soilez eman ohi direnak (aspaldi zabaldua baldin bada ere hegoaldean *segun* (eta) + ...-(e)n) egitura -are gaur egunago, *depende* (eta) + ...-(e)n) egitura ere-).

Segidako adibide pareetan, mendeko esaldiko galdegilearen erreferentziak paper nagusia jokatzeko baldin badu esaldi nagusian, esaldia erlatibo gisa uler-tuko da (eta esaldia eman ahal izango da *bait*- aurrizkiz ere). Baina galdegilearen erreferentziak paperik ez badu esaldi nagusian, *beharbadako* esalditzat hartuko dugu beste gabe (eta esaldia nekezago emanen da *bait*- aurrizkiz).

(483) NORK **esaten dizun**, HARI egin beharko diozu kasu. (= Erlatiboa: **Esaten dizunARI** egin beharko diozu kasu.)

(483.a) NORK **esaten BAITIZU**, HARI egin beharko diozu kasu. (= **Esaten dizunARI** egin beharko diozu kasu.)

(484) NORK **esaten dizun**, HALA egin beharko diozu kasu bati ala besteari. (= **SEGUN (ETA) NORK esaten dizun**, HALA ...)

(484.a) (\*?)NORK **esaten BAITIZU**, HALA egin beharko diozu kasu bati ala besteari. (**≠ Segun (eta) nork esaten dizun, hala ...**)

• **GALDEGILEA + ERE**. Galdegile bidezko erlatibo libreak *bait-* aurritziaz (iparralde eta Nafarroan) usu eman dira *ere* juntagailua erantsiz galdegileari, erlatiboaren balio generikoa azpimarratuz (= *edozer, guztia, ...*). Testuinguru egokian balio kontzesiboa ere bereganatuz (ohikoa zeinahi egituratan *ere* juntagailuz) –maiz erresuntiborik gabe–:

(485) NON ERE **gordetzen BAITA**, HANTXE harrapatuko dugu. (= Erlatiboa: *Gordetzen den edozein lekutan / leku guztietan*).

(485.a) NON ERE **gordetzen baita**, harrapatuko dugu. (= Kontzesiboa: *Edozein lekutan gordetzen dela (ere), ...*).

(486) Zure maisuak ZER ERE **egiten BAITU**, HORI ibiliko duzu buruan. (= Erlatiboa: *Egiten duen guztia ibiliko duzu buruan*).

(486.a) Zure maisuak ZER ERE **egiten baitu**, zuk zurea ibiliko duzu buruan. (= *Edozer gauza egiten duela (ere), ...*)

(487) *Grinak* ZER ERE **eskatzen BAITIE**, HORIXE egiten dute. (= Erlatiboa: *Eskatzen dien guztia / edozer gauza egiten dute*).

(487.a) *Grinak* ZER ERE **eskatzen baitie**, HORIXE egiten dute. (= *Edozer gauza eskatzen diela (ere), horixe egiten dute*).

Ez dugu testigaturik baina badirudi joko bera gerta litekeela aditz jokatugabe bidez ere:

(488) NORK ERE **esan**, HARI egin beharko kasu. (= *Esaten duen edonori/guztiari // edo // Edonork esaten duela (ere) ...*).

(489) *Ehiztaria* ZEREKIN ERE **etorri**, HORI afaltzen dute. (= *Ekartzen zuen edozer/guztia // Edozer ekartzen zuela (ere) ...*).

Antzekoak sor litezkeela dirudi *-(e)n* menderagailu bidez ere, testigantzarik ez dugun arren:

(490) Laguna NONDIK ERE **joan den**, hartu BIDE HURA. (= *Joaten den edozein bide // Edozein lekutatik joanda (ere) ...*)

(491) *Eguzkia* NORA ERE **doan**, zapiak HARA jarri behar dira.

(492) ZER ERE **ikusten duzun**, HURA ikasten duzu.

Maiz, nolana, ez da zentzu desberdintasun handirik galdegilea *ere*-z edo gabe emanez, are esaldiak galdegilez edo *-(e)n...* aposizio gisa. Segidako hiru itzulpenak ere aurkitzen ahal dira euskaraz gure tradizioan pasarte bere baterako:

(493) *Nigan* **dagoenak** (HARK) **ekartzen du**.

(493.a) NOR **BAITAGO nigan** eta HARK **ekartzen du**.

(493.b) NOR ERE **BAITAGO nigan** eta HARK **ekartzen du**.

• **Eta juntagailua**. Goiko adibideetan suma litekeen gisa, esaldi nagusia bigarren lekuan doanean oso maiz ematen da *eta* juntagailua bi esaldien artean izenordain erresuntiboaren aurre justuan (derrigorrik gabe). Galdegileari

erantsita ere ageri ohi da zenbaitetan. Oso bereziki *non* eta *noiz* galdegileei, nola segidan:

- (494) NON ETA BAITira *mirakuluak*, Jainkoa HAN da.
- (495) NON ETA *Jesusen bilkura santuak jaso dituzun*, HAN ...
- (496) NON ETA *duzun zure bihotza*, HANTXE duzu zure gordailua. NON ETA *duzun zure gordailua*, HAN ere duzu bihotza.
- (497) Tristura errezibituko dute, NOIZ ETA *bere lagunak ikusten* BAITituzte *begien aitzinean*.
- (498) NOIZ-ETA *Jainkoak ikusirik borrokan biak, erdian bitarteturik, apartaraziko zituen*, ...
- (499) NOIZ ETA *bat-batean agertzen den munduan San Agustinen argia*, ...
- (500) (Noiz egin behar duzu seinale hori?) NOIZ ETA *egiteren bat hasten dugun*, ...
- (501) (Noiz dira horien kontra?) NOIZ ETA *Jainkoaren aginteren bat hausten den*.

• **Inoiz zein saileko galdegileekin** ere ematen dira halako esaldiak, usuzkoe-na ez bada ere:

- (501) Ezen hau da ZEINEZ *eskribitua BAITa*: Hona, nik igortzen diat neure mandataria, ...
- (503) ZEIN ERE BAITago *nitan*, HAINAK [hark] ekarriren du fruitu anitz.
- (504) ZEINAK *profeta bat BAITU hartzen*, HAINAK [hark] profeta saria izanen du.

#### 4.2.1. Galdegile bidezko erlatibo libreen ahozko erabilera arrunta

Galdegile bidezko erlatiboan erabilera jantziagoaz gainera, hegoaldean bederen euskaldun onen artean ezin arruntagoak dira halako egituren beste hainbat erabilera. Batez ere esaldi erlatiboak etorkizunari begiratzen dionean (*behar* edo *nahi* aditzez, etorkizuneko partizipioz, ...), esaldi nagusia galdera edo agindua delarik, edo are ezezko adierazpenetan, baina bai eta ere baiezko adierazpen arruntetan, urriago izango bada ere.

Kasu arruntena absolutiboa izango da (besterik aurki baliteke ere). Esamoldeok, berriro maiz hartzen dute zentzu generikoa (*edozer, guztia, ...*), edota nolabait kontzesiboa (*ere* lokailua ere hartuaz aukeran), eta zehar galderaren itxurako intonazio enfatikoz eman ohi dira (nolabaiteko eten prosodiko baten ondoren):

- (505) Emaiozu behingoz' ZER **eman** BEHAR **diozun/zenion**. (= *Eman behar diozuna/zeniona*. / *Eman behar diozun/zenion guztia*. // *Edozer gauza eman behar diozula/zeniola ere*. / *Eman behar diozuna/zeniona eman behar diozula/zeniola ere*.)
- (505.a) Eman (al) diozu behingoz' ZER **eman** BEHAR **diozun**?
- (505.b) Eman diozu behingoz' ZER **eman** NAHI **diozun**!
- (505.c) Emango al diozu behingoz' ZER **emango** **diozun** (ERE)!
- (505.d) Emango diozu behingoz hala ere' ZER **eman** NAHI **diozun/zenion**. (Eta galdera (?) edo esklamazioa ere (!)).
- (505.e) Ez diozu eman' ZER **eman** BEHAR **diozun/zenion**. (Eta galdera (?) edo esklamazioa ere (!)).

Antzeko aldagarriak egiten ahal dira ondokoen antzeko guztiekin ere:

- (506) Hartu segituan' ZER **hartu** BEHAR **duzun** (ERE)!
- (507) Begira ezazu lehenbailehen' ZER **begiratu** NAHI **zenuen** (ERE)!
- (508) Kendu al diozu hautsa' ZERI **kendu** BEHAR **zenion** (ERE)?
- (509) Eramango al duzu hemendik lehenbailehen' NORA **eraman** BEHAR **duzun** (ERE)?

- (510) Joan zaitez lehenbailehen' NORA **joango zaren** (ERE)!
- (511) Joan al zara' NORA **joan BEHAR zenuen**?
- (512) Etorri' NOREKIN **etorriko zaren**, baina etorri garaiz! (Erdialdeko erabilere-tan: Etorri' ZEINEKIN **etorriko zaren** ...).
- (513) Bukatu lehenbailehen' ZERTAN ARI ZAREN (ERE)!
- (514) Ez zara ari' ZERTAN **aritu BEHAR zenukeen**!
- (515) Hartu' ZENBAT BEHAR **duzun** (ERE)!
- (516) Etorri bedi' ZEIN DEN *tratantea*. (= NOR **den tratantea** = tratantea dena. / = normahi dela ere tratantea).
- (517) Hala joan gaitun goizean' NORA **JOAN GAREN** (ERE).
- (518) Han joan gintuan denok aurrera' NON **GENBILTZAN** (ERE).
- (519) Han erosiko dugu' ZER **jan BEHAR dugun**.
- (520) Emaiozu' NORI/ZEINI **eman BEHAR diozun**!
- (521) Bila ezazu' NON **bilatu BEHAR duzun**!
- (522) Egizu lehenbailehen' ZER **egingo duzun**!
- (523) Eraman al duzu poltsa' NORA **eraman NAHI zenuen** (ERE)?
- (524) Azkenean ekarri zizuten kotxea' **NORK (ERE) EKARRI ZIZUN (ERE)**! (Kontzesiboa).
- (525) Joan zara azkenean' NOREKIN **JOAN ZAREN** (ERE).
- (526) Eraman ezazu pastel hori hemendik' **NORENTZAT EGIN DUZUN (ERE)**.
- (527) **NON IBILI ZAREN ERE**, ez al zara galduta ibili? (= *Ibili zaren lekuan // Ibili zaren lekuan ibilita ere*).

Baliteke halako esamoldeak galtzen aritzea hegoaldean gazteen artean, euskararen egoera diglosikoaren ondorioz. Baina saiatu behar genuke halakoei ere bere lekua gordetzen. Gorago aipatu bezala (ik. 475-6.e/i) *bait-* menderagailuaren bidezko erlatiboan erabilera halako esamoldeetan ez dirudi arrunta denik, ez badute (*ere* juntagailu bidez) zentzu kontzesibo garbia (485-7).

• **Hara/horra/hona // hor/hemen/han** (// *hortik/hemendik/handik*) + **galdegilea + -(e)n aurkezpen egiturak** ere aipatzeko dira galdegile-erlatibo arteko lotura honetan. Aurkezpen egitura enfatiko gisa erabiliak, maizenik *non* galdegilez (baina baita ere beste edozeinekin). Guztietan imajina liteke azpian erlatiboa. Eta guztietan ordezkariak liteke hasierako erakuslea *begira* aditzaz (zehargaldera argiagoa eraginez).

- (528) **HARA NON datorren zure laguna!** (= Hara BIDEA/LEKUA NON **datorren zure laguna!**) (= **Begira** ...).
- (529) **HAN NON dagoen galdutako liburua!** (= Han MAHAIA/LEKUA NON **dagoen galdutako liburua!**) (= **Begira** ...).
- (530) **HORTIK NONDIK ikusten dudán arratsaldeetan eguzki beherea!** (= **HOR(TIK) ZIRRIKITUA NONDIK ikusten dudán ...!**)
- (531) **HORTXE NOLA agurtzen zaituzten ikasleak!** (= **HORTXE MODUA NOLA agurtzen zaituzten ikasleak!**)
- (532) **HARA NONDIK azaldu den txakurra!** (= **Begira nondik azaldu den txakurra!**)
- (533) **HARA (HOR) ZER ekarri zidan zure lagunak!** (= **Begira zer ekarri zidan zure lagunak!**)
- (534) **HORRA (HEMEN) NOLA daukazu semea!**
- (535) **HORRA (HOR) ZERTAKO diren askoren kontuak!** (= **Horra HELBURUA ZERTAKO diren ...!**)
- (536) **HARA (HOR) NORI eman dion bihotzkoa!**
- (537) **HARA (HEMEN) NOREKIN dabilen gure neska!**

*Begira* bidezko egituretan (ik. ere (261)), ez da distantziarik zehar galdera eta erlatiboaren artean:



(538) **Begira gaztelua!** ⇒ **Begira egon garen** GAZTELUA! ⇒ **Begira** GAZTELUA, **NON egon garen!**

Antzeko egiturak arruntak dira euskaraz aurretiko erakusleatarik eratorririko adberbiorik gabe emanak ere:

(539) Gorantz begiratu zuten eta **NON ikusten duten** Leokadi elizako teilatu gainean harri bihurtuta.

(540) Herenegun ondoeza izan; eta *atzo goizean* **NON bilatu duten** *hitzik gabe, burura jota*.

• **Galdegilea + aditz partizipioa (aditzoia, iparraldean) egitura erlatibo**, arrunta da pentsamenduzko zenbait aditzen inguru (*ez dakigu zer egin; erabaki dugu nora joan*). Antzeko egiturak, ordea, erabiltzen dira pentsamenduzkoak ez diren aditzekin ere, izatea-edo adierazten dutenak (*izan, egon, ukan, eduki, eman, aurkitu, bilatu, lortu* behintzat). Halakoetan ere erlatibo berezien aurrean gaudeke.

Hegoaldean, aditz partizipioa soil eman liteke, edo maiz partitiboan, edo *-a* mugatzaile singularrarekin. Autore zaharrek subjuntiboa darabilte halakoetan, eta gaur egun gure artean ere arruntak dira zenbaitetan ahalezko aditzak:

(541) Badago hemen **non begiratu**. (erdi eta mendebaldean) (= Badago hemen **LEKU BAT NON begiratu**.)

(541.a) Badago hemen **non begira**. (Nafarroa eta iparraldean)

(541.b) Badago hemen **non begiratu**.

(541.c) Badago hemen **non begiraturik**.

(541.d) Badago hemen **non begira dezagun**. (autore zaharrek).

(541.e) Badago hemen **non begira dezakegun**. (gaur egun).

(542) Ez dago **nork egin halako lanik**. (≈ Ez dago **PERTSONA BAT halako lanik egin dezakeenik**.)

(542.a) Ez dago *halako lanik* **nork egin**.

(542.b) Ez dago *halako lanik* **nork eginik**.

(542.c) Ez dago *halako lanik* **nork egin dezan**.

(542.d) Ez dago *halako lanik* **nork egin dezakeen**.

Antzeko jokoak egin litezke segidako guztien antzekoekin (*zein* galdetzaile izenlagunekin ere). Maiz halako esamoldeak ez daude nominalizaziotik oso urrun: *zeresana, zeregina, zerikusia, ...*

(543) Aurkitu dute **non egin (egina/eginik)**. (= Aurkitu dute **leku bat non egin**.)

(544) Horrek bilatuko din bai ondo **zeinekin borrokatu (borrokatua/borrokatu-rik)**. (= **pertsona bat zeinekin borrokatu**.)

(545) Azkenean lortu nuen **norekin bidali abisua (abisua norekin bidalia/bidali-rik/bidal)**.

(546) Han aurrena bilatu **non lo egin behar duzuen!** (= Han aurrena bilatu **leku bat non lo egin behar duzuen!**)

(547) Ez daukate **nora joan (joana/joanik)**.

(548) Ematen du horrek **zer esan (esana/esanik)**.

(549) Izan nuen, bai, orduan, **zer pentsatu (pentsatua/pentsaturik/pentsa)**.

(550) Bazen han **nondik lapurtu (nondik lapurtua/lapurturik)**.

(551) Ez duzu **noren etxera joan (joana/joanik)**.

(552) Aurkitu genuen **ZEIN gizonekin hitz egin (hitz egina/hitz eginik)**.

(553) Ez du **zer ikusirik (ikusi/ikusia/ikus)**.

(554) **Zer esanik** ez dago/daukagu.

(555) Ez da **zer fidaturik (fidatu/fidatua/fida)**.

(556) Ez da **zer mintzaturik (mintzatu/mintzatua/mintza)**.

(557) Ez luke **zer konfesaturik (konfesatu/konfesatua/konfesa)**.

(558) Ez zen **zer gehiago igurikirik (iguriki/igurikia)**.

(559) Ez dugu **zer aitakia eman (emana/emanik)**. EGLU-Vek gaur egungo joeratzat jotzen ditu halakoak (259), baina segidakoa, esaterako, Axularrena da (§384):

(560) Ez dute edireten, **non oina finka**: ez dute edireten, **zeri lot**.

Tarteka aurkituko ditugu halako esamoldeak zuzenean izen ardatz determinatuen ondoren emanak ere (ik. berriro *zein...* erlatiboen ahozko erabileraren inguru esanak eta han eman adibideak):

(561) Eman dit **TELEFONO BAT NORA deitu**.

(562) Aurkitu dut **TABERNA BAT NON ondo bazkaldu**.

• **Erlatiboak/zehar galdera nahaste/bikoiztasunak oso arruntak dira** euskaraz munduko beste hizkuntza askotan bezalatsu. Oso salto txikia dago, batere baldin badago, galdegile bidezko zehar galdera eta *-(e)n* erlatibo librearen artean. Eta lotura estu horrek baduke zerikusia galdetzaileen erabilera erlatiboarekin.

Zenbait saiatu da desberdintasun semantiko sistematikoak eraikitzen egitura sintaktiko desberdin horien ondotik. Baina ez dirudi horren kontu aratza.<sup>31</sup> Bikoiztasuna da arrunt (ik. Oihartzabal 2003, 798-9):

(563) Orduan kontatu zigun **berak zer pentsatzen zuen / berak pentsatzen zuena**.

(564) Nominan jartzen du **nik irabazten dudana / nik zer irabazten dudana / nik zenbat irabazten dudana**.

(565) Erakutsiko dizut **zer egin didaten / egin didatena**.

(566) Argibide gehiago behar ditugu **zer esan nahi duzun** ulertzeko / **esan nahi duzuna** ulertzeko.

(567) Afal ondoan adierazi zigun **zer gertatu zitzaion / gertatu zitzaiona**.

(568) Ez duzu inoiz ikasiko **nola egin lan hori / lan hori egiten / lan hori egiteko modua**.

(569) Gogoratu zait **zer gertatu zitzaion / gertatu zitzaiona nire osaba Txirritari behin batean**.

(570) Kontatu dit **zer esan dizuten / esan dizutena**.

(571) Irakurri nuen **zer idatzi zenuen / idatzi zenuena egunkarian**.

• **Izen ardatzik gabeko erlatiboetatik izen ardazdunetara**. Azken atalotan ikusi legez, arrunta da euskaraz galdetzaileen erabilera izen ardatzik gabeko erlatibo librean osatzeko, ahoz zein idatziz, aukera desberdinetan. Eta hau erabilera arrunta izaki, euskal hiztunak ez dauka zertan muga ez gaingitu eta galdegileak modu bertsuan erabili erlatibo izen ardazdunak osatzeko (ik. *zein... erlatiboen* ahozko erabileraren inguru esanak eta han eman adibideak). Batetik besterako pausoa maiz eman da eta ez zaigu arrotz.

31. Ezpada aditz zehatzen batekin, testuinguru jakinen batean. Hala nola *jakin* moduko aditz batekin segidakoan: *badakit zer egin duen* ez baita *badakit egin duena* (= *badakit egin duela*); edo *badakit horrek zer esan duen*, ez baita *badakit horrek esan duena* (*buruz edo*). Baina hori, *jakin* aditzaren ezaugarri semantikoei zor bide zaie.

## 5. Zenbait izenen beste esaldi osagarriak

### 5.1. Esaldi erlatibo subjektiboak- edo: -(e)lako

EGLU-Vek izenen esaldi osagarri, deitu dituen esaldi izenlagunak begiratzeko hasi aurretik (5.2.) aipaturiko ditugu *esaldi erlatibo subjektiboak* edo deitu dituenak, denak ere oso desberdinak ez diren arren.

EGLU-Vek dio (205) ekialdeko euskalkietan erabiltzen dela zenbaitetan *-(e)lako* atzizkia esaldi erlatiboa osatzeko, ohiko *-(e)n* (edo *bait-*) mendera-gailuaren orde (ik. ondoko 572-4), nolabait erantsiaz halako esaldiei ziurtasun eza, subjektibotasuna edo *uste* soilaren ideia, *-(e)ko* atzizkia gehituz esaldi kompletiboaren *-(e)la* atzizkiari, honen aditz gobernatzaile erlatibatu baten orde (572-4.a).

Erabilera, nolana, beti urria izanik ere, eremu zabalagoa ere izan liteke eta ez bakarrik ipar edo ekialdeko euskalkietakoa.

(572) *Etsairik ez duen pertsona*, ez da pertsona. (= *Etsairik ez duena*).

(572.a) *Etsairik ez duelako pertsona*, ez da pertsona. (= *USTEZ etsairik ez duen pertsona*).

= *Etsairik ez duela uste duen* edo *uste dugun* edo *dioen* edo ... *pertsona*, ez da pertsona.

(573) *Hilik atzeman zuten pertsona*. (= *Hilik aurkitu zutena*).

(573.a) *Hilik atzeman zutelako pertsona* (= *DIOTENEZ-EDO hilik aurkitu zutena, baina agian beraiek hil zutena, edo ...*).

(574) *Egin duten lana*. (= *Benetan eginikoa*).

(574.a) *Egin dutelako lana* (= *Egin dutelako itxura egiten duten lana*. / *Egin dutela, bai, esaten duten lana*).

Azken batean ez dira ere besterik *delako/direlako* egiturak, ziurtasunik gabeko norbait/zerbait aipatzeko erabili ohi ditugunak:

(575) *Piarres DELAKO gazte bat* etorri da. (= *Piarres dela dioen gazte bat, baina jakin ezazu ...*).

(576) *DELAKO zulo batean* aurkitu zuten bahitua. (= *Zulo-edo deitzen dioten ziega horietako batean*).

(577) Alhaja ederrak ditun, *hire DIRELAKO lagun horiek!* (= *Itxuraz hire lagun diren horiek, baina benetan ez direnak edo*).

Eta halakoa da ere *dena delako* esamoldearen adieraren batekin gertatzen dena:

(578) Nolanahi, *DENA DELAKO istilu horretan* ere ez zaitut ikusi nahi.

(579) Kontu ibili beti, *DIRENAK DIRELAKO salbatzaile horiekin*.

### 5.2. Barnean ideia bat, zeharradierazpen bat, gorde lezaketen izenen esaldi osagarriak

Badira izen bereziak, beren barne, ideia bat ere gorde lezaketenak (hau da, esaldi osagarri bat: arrunki *zeharradierazpen* bat –baina izan litekeena ere *zehargaldera* edo *zeharragindu* bat–), eta zenbaitetan, ideia horien argigarri diren esaldiak har litzakete osagarri.

Zeharradierazpen bat osagarri har lezaketen moduzko izenak dira segidako-en kidekoak: *aipamen*, *aipu*, *aitzakia*, *albiste*, *ardura*, *arrangura*, *arrasto*, *arrazoi*, *auzi*, *aztarna*, *beldur*, *berba*, *berme*, *berri*, *burutazio*, *damu*, *desira*, *ele*, *entzuer*, *erabaki*, *erran-merranak*, *errezelo*, *esamesak*, *esperantza*, *esta-*

*kuru, fama, fidantzia, froga, gezur, gogoeta, gomuta, hipotesi, hitz, hots, ideia, ipuin, iritzi, irudipen, itxaropen, itxura, kezka, kontu, kontzientzia, laudorio, marka, marmar, min, murmurio, nahi, notizia, ospe, pentsamendu, pentsu, poz, promesa, segurantzaz, segurtasun, seinale, sentimendu, sona, susmo, txutxu-mutxu, uste, zantzu, ziurtasun, zurrumurru, ... (ik. EGLU-V 142-159 eta Alberdi, Garzia & Ugarteburu).*

• Eta halako izenen erabilera esaldi osagarriekin inoiz ikaragarria izango ez bada ere, esan behar, maizenik halako esaldi argigarriak izen bereziorik ondo-  
retik ematen direla, *-(e)la* atzizkiz *-(e)nik* ere, partitiboa erabil litekeen tes-  
tuinguruetan, eta are *-(e)na* –erdi eta mendebaldean behintzat–):

- (580) Badut **susmoa/esperantzaz/ustea/... Ester etorriko dela.**
- (580.a) Badut **susmoa/esperantzaz/ustea/... Ester etorriko dena.**
- (581) Ba al duzu ba **susmorik/esperantzaz/usterik/... etorriko denik?**
- (581.a) Ba al duzu ba **susmorik/esperantzaz/usterik/... etorriko dela?**
- (582) Ez nion **hitzik** eman **joango nintzenik.**
- (582.a) Ez nion **hitzik** eman **joango nintzela.**
- (583) Pasaiko herritik dator **notizia zezen bat izan dela jentzioz bizia.**

• Gutxiago batzuetan, ordea, halako esaldiak lotuago eman ohi dira izen arda-  
tzari (maizago agian izen ardatz horrek kasu absolutiboaz beste hartu behar  
duenean). Halakoetan, arrunki izen ardatzaren ezkerretik eman ohi da esaldi  
osagarria, *-(e)la* konpletiboari + *-ko* atzizki izenlagun bihurtzailea erantsiz  
*-(e)lako*, edota, gutxiagotan, zuzenean erlatibo arruntaren *-(e)n* atzizkia  
emanez (agian esanahi desberdintasuna ere izan litekeelarik bi moduen arte-  
an: *-(e)n*, objektiboagoa; *-(e)lako*, subjektiboagoa, edo zenbaitetan -izen  
ardatzen arabera- zentzu kausala ere erantsiaz, *-(e)lako* atzizkiaren esanahi  
arrunta, –gogoratu 5.1.en esanak–):

- (584) **Ester etorriko delako susmo/esperantzaz/uste hori**, zeharo ustela da.  
(*Esperantzaz gutxiago agian (?)*)
- (584.a) **Ester etorriko den susmo/esperantzaz/uste hori**, zeharo ustela da.  
(*Esperantzaz gehiago agian (?)*)

• Eman liteke egitura izen ardatz, arrunki determinatuaren, ondoren ere  
(nahiz determinatu gabearen ondorengoak ere posible izan (585.a-586)):

- (585) **USTE HORI**, **Ester etorriko delakoa**, zeharo ustela da.
- (585.a) **USTE**, **Ester etorriko delako hori**, zeharo ustela da.
- (586) **USTE**, **Ester etorriko den horrekin**, ez goaz inora.
- (586.a) **USTE HORREKIN**, **Ester etorriko dena**, ez goaz inora. (= **Uste horrekin**,  
**Ester etorriko dela**, ...)
- (586.b) **USTE HORREKIN**, **Ester etorriko den horrekin**, ez goaz inora.<sup>32</sup>

• Zenbaitetan, izen ardatzik gabe ere eman litezke halako esaldiak, *-(e)lako*  
edo *-(e)n* atzizkiari zuzenean erantsiaz determinantea:

- (587) **Ester etorriko delakoa**, ez da egia.
- (588) Ez iezaiozu kasurik egin **Ester gaur etorriko denari**. (= **Ester gaur etorri-  
ko den kontu horri**).

32. Zenbat eta hondarkia korapilatsua, orduan eta nekezagoa dirudi komunztadurak gordetzeak  
Euskaltzaindiak eskatu bezala.

Baina halakoetan determinantea maiz erakuslea da eta esamolde bereziak-  
edo sortu ohi dira (ohikoagoak beharbada *-(e)n* atzizkiz, baina baita *-(e)lako-*  
z ere), beti *kontu* edo antzeko ardatz bat irudikatuz:

(589) *Ester etorriko den HORREKIN* aspertuta naukazu jada. (*Ester etorriko den (KONTU) HORREKIN...*).

(589.a) *Ester etorriko delAKO HORREKIN* aspertuta naukazu jada. (*Ester etorriko delAKO (KONTU) HORREKIN...*).

(590) *Seme bakarra den HORRI* nik ez nioke badaezpada kasu handirik egingo. (*Seme bakarra den (KONTU) HORRI*)

(590.a) *Seme bakarra den HORRI* nik ez nioke badaezpada kasu handirik egingo. (*Seme bakarra delAKO (KONTU) HORRI*)

• *-(e)lako* atzizkitik sortzen dugu *-(e)lakoan*, maiz erabilia *egon* aditzarekin (baina baita beste edozeinekin ere), beti *ustea* adieraziz:

(591) *Ester etorriko zelAKOAN* ibili gara egun osoan. (= *Ester etorriko zelAKO USTEAN*).

(592) Etxera joan ginen atzo *zure lagunak jada han zeudelAKOAN*. (= *Ustez jada han zeudELA = Jada han zeudelAKO USTEAN*).

• Halako esamoldeetarako hainbat zabaldu da azken urteotan *\*(e)laren* atzizki berriaren erabilera, uste dugu, gaitzesgarria (EGLU-Vek bezala (151)), *-(e)la* atzizkiak ez baitu *-(e)ko* (eta *-(r)ik*) atzizkiz beste onartu ohi euskaraz:

(593) \*Iritsi zaigu *datorren urtean ezkonduko \*zareLAREN BERRIA*. ⇒

(593.a) *Datorren urtean ezkonduko zareLAKO BERRIA*.

(593.b) *Datorren urtean ezkonduko zareN BERRIA*.

(593.c) Iritsi zaigu berria *datorren urtean ezkonduko zareLA*.

Euskaltzaindiak maila berean gaitzesten ditu halako erabileretan *-(e)neko* + *izena* eta *-(e)naren* + *izena* egiturak (eta arrazoi bertsuz egingo luke *-(e)lakoaren* + *izena* aipatu ez arren) (594.a/b/c), (593.a/b)ren aldean (hemen errepikatua (594)):

(594) *Datorren urtean ezkonduko zareLAKO BERRIA*. = *Datorren urtean ezkonduko zareN BERRIA*.

(594.a) (%) *Datorren urtean ezkonduko zareNEKO BERRIA*.

(594.b) (%) *Datorren urtean ezkonduko zareNAREN BERRIA*.

(594.c) (%) *Datorren urtean ezkonduko zareLAKOAREN BERRIA*.

Guri ez zaizkigu azken hiru hauek horren gaitzesgarriak iruditzen. Tradizioan gutxi erabiliak izan diren arren, beste maila batean daude *\*(e)laren* guztiz agramatikalaren aldean. Birdeklinazio kasuak lirateke gehienera, pleonasmok, baina, aldi berean, euskal hiztunak halako egituren aurrean sentitzen duen bitxitasuna utziko luketenak agerian *-(e)neko* atzizkiaz gertatzen den bezalatsu leku-denborazko kasuetan).

Bestetik, *-(e)naren* edo *-(e)lakoaren* -pisuagoaren- inguruan, gogoratu behar da, hala moduzko izen ardatzek maiz hartzen dutela osagarri berez *-(r)en* genitiboa (*elurraren beldur*, *zezenaren notizia*, ...), are aditz izenekin ere (*elurra egin izanaren* edo *egitearen beldur*, ...) (ik. segidako 5.2.1. atala). Eta horietatik abiatuta, euskal hiztunari ez zaio kostatzen igarotzea (%) *Elurra egingo zuenaren beldur ginen* edo (??) *Elurra egingo zuelakoaren beldur ginen* bezalako esaldie-

tara, gero eta entzunagoak eta irakurriagoak gure artean. Tradiziokoak dira, esaterako, segidakoak, zeinetako lehen biek bederen nahiko natural diruditen:

(595) Hala iritsi zitzaion *Juan urte betez itsasoan* **ibilia** **zENEKO BERRIA**. (Erkiaga)

(596) Izan zaitez arbola fruitu ekarle, *herria beti* **bizi** **deNAREN SEINALE**. (Xalbador)

(597) [Horrek] *gaitz burrunbatsua* **ekarriko** **duELAKOAREN BELDUR** naiz. (Zaitegi)

5.2.1.  
*Zeharradierazpen  
bat gorde  
lezaketen izenen  
esaldi osagarri  
jokatugabeak*

Azterketa gehiegi ez dugun arren (ik. Alberdi, Garzia & Ugarteburu), badirudi izen ardatz bakoitzak, bere ezaugarri semantiko propioen arabera, joera oso partikularrak ager ditzakeela esaldi osagarriak hartzeko garaian (jokatu edo ez jokatuarak, zein atzizki jokatugabe erabili *-(e)ko*, *-(r)en*, *-(r)ekin*, ...).

Hala ere, ausartuko gara esaten aurreko atalean aipatu itxurako izen ardatzek ohituraz hartu ohi dituztela osagarri esaldi jokatugabeak ere (zeinek gehiago, zeinek gutxiago, eta zeinek inoiz ez). Baina bi/hiru joera bereizi uste ditugu:

• **1. Joera nagusia: *-t(z)eko* atzizkia erabiltzekoa.** Honen bidez, egoera burutugabeak adierazi ohi dira, iragan edo etorkizunean artean burutzeke direnak, eta hala egin ohi dute maiz segidakoan antzeko izen ardatzek behintzat: *agindu* (*promesa* adieran), *aitzakia*, *beldur*, *damu*, *duda*, *erabaki*, *esperantza*, *ideia*, *itxaropen*, *itxura*, *kezka*, *kontu*, *poz*, *promesa*, *segurantza*, *seinale*, *uste* (*asmo* adieran) (gogoratu 3.1.2 atalean esanak erlatibo jokatugabeen erabileraz egoera burutugabeetarako):

(598) *Astia irakurtzen* **emATEKO AITZAKIAREKIN**. / *Eliza ez lohitzeko* **AITZAKIATAN**. // *Hari galdetzeko* **BELDUR** ziren. / *Apurtxo bat gorritzeko* **BELDURREZ**. // **Partitzeko DAMU** ginatke. / **Hiltzeko DAMU** zara. // **Aldentzeko ERABAKIA**. / **Hitzari zintzo** **EUSTEKO ERABAKIA**. // **Bizitzeko ESPERANTZA** ez duenik. / **Igarotzeko ESPERANTZAZ**. ...

Halakoetan, gainera, pentsa liteke, *-t(z)eko* egiturak bereziki azpimarratzen ote duen lotura mendeko esaldiko egilearen eta izen ardatzak (*aitzakia*, *beldurra*, ...) daukan subjektuaren artean -hau derrigortu gabe-. Lotura hori lasaitua gertatuko da *-t(z)eko* egituraren ordeztu *-t(z)earen* egitura erabiliz (ik. 599.a).

Badira, nolana, izen ardatzak arrunki egoera burutuak adierazi ohi dituztenak (gertatuak; eta ez, gertatzekoak), eta ez ohi dutenak *-t(z)eko* esaldirik hartu: *albiste*, *aztarna*, *berri*, *entzuer*, *irudipena*, *uste* (adiera arruntean) (ik. 3. joera).

• **2. joera litzateke *-(t)zearen* atzizkia erabiltzerena.** Markatugabea litzateke burutu/burutugabe ezaugarrien aurrean (markatugabea ere, mendeko esaldiko egilearen eta izen ardatzaren subjektuaren loturaren inguruan).

(599) *Karrikatik* **ibiltzeAREN BELDUR** ez denak. // *Nekazari* **izaTEAREN ERABAKIA**. (Burutu edo burutugabeak.)

(599.a) *Astia irakurtzen* **emATEAREN AITZAKIAREKIN**. / *Eliza ez lohitzeAREN AITZAKIATAN*. // *Hari galdetzeAREN BELDUR* ziren. / *Apurtxo bat gorritzeAREN BELDURREZ*. // **PartitzeAREN DAMU** ginatke. / **HiltzeAREN DAMU** zara. // **AldentzeAREN ERABAKIA**. / **Hitzari zintzo** **EUSTEAREN ERABAKIA**. // **BizitzeAREN ESPERANTZA** ez duenik. / **IgarotzeAREN ESPERANTZAZ**. ... (Egoera burutu zein burutugabeak adierazteko erabil litezke.)

- **3. aukera garrantzikoa erabiliko dugu aditzak adierazitako egoera edo ekintza burutuak denean (eta ez burutu gabea): *partizipioa + (izan +) -aren* egitura markatua (arrunki *izan* partizipio eta guzti, burututasun hori azpimarratuz).**

Hori izango da ohikoa *-t(z)eko* osagarridun esaldiak hartzen ez zituzten izen ardatzen kasuan (*albiste, aztarna, berri, entzueria, irudipena, uste* (adiera arruntean)), baina bai eta ere beste guztienean (iraganeko nominalizazio guzti-ekin gertatu bezala: *etorri izanak, ...*):

(600) *Herri berri bat aurkitu(IZAN)AREN ZANTZUAK. / Gauzak oker egin(IZAN)AREN USTEA. / Asmatu(IZAN)AREN SUSMOA zuen. / Hori da kontuak behar bezala egin(IZAN)AREN SEINALE. / Bere lana amaitu(IZAN)AREN SEGURANTZA. / Aspaldi bateko herri izanAREN KONTZIENTZIA. / Idoa iritsi(IZAN)AREN ITXURA zuen etxeak. / ...*

- Hala aurki genitzake, izen ardatz bere batez, segidakoen antzeko hirukoteak, esanahi markatuz edo gabez:

(601) *Lanak bukatZEKO ARRAZOIA* beste nonbait bilatu beharko duzu. (Burutugabea –eta subjektu bera iradokiz?–).

(601.a) *Lanak bukatZEAREN ARRAZOIA* beste nonbait bilatu beharko duzu. (Markatugabea).

(601.a) *Lanak bukatu(IZAN)AREN ARRAZOIA* beste nonbait bilatu beharko duzu. (Burutua –markatugabea subjektua–).

(602) *Amodioa aurkitZEKO KEZKAZ* bizi bazara, zu gizagaixoa!

(602.a) *Amodioa aurkitZEAREN KEZKAZ* bizi bazara, zu gizagaixoa!

(602.b) *Amodioa aurkitu(IZAN)AREN KEZKAZ* bizi bazara, zoriontsu zu!

(603) *Ahaztu egizu behingoz hemendik ihes egITEKO KONTU* hori!

(603.a) *Ahaztu egizu behingoz hemendik ihes egITEAREN KONTU* hori!

(603.b) *Ahaztu egizu behingoz hemendik ihes egin(IZAN)AREN KONTU* hori!

(604) *Zure anaia ikUSTEKO POZAK* bizi nau!

(604.a) *Zure anaia ikUSTEAREN POZAK* bizi nau!

(604.b) *Zure anaia ikusi(IZAN)AREN POZAK* bizi nau!

- Zenbait izenek gainera hartu ahal izanzen dute aditz partizipio soila aurretik (edo aditzoina) eta elkartze lexiko bat osatu: *ikus-beldur zen / galdu-beldur bazara / bizi-poza ematen du / iritsi-kezkan bizi zen / lanak egin-aitzakian / ...*

- Halako egitura jokatu gabeak, batez ere izen ardatza absolutiboan ematen denean, aurki litezke honen eskuinetik emanak ere: *erabakia, nekazaria iza-tearena / arrazoia, lanak bukatzeko(a) / kezka, dirua galdu(izan)arena, ...*

- Eskuinetik emanak direnean ager litezke zenbait izenekin inoiz beste nominalizazio egitura batzuk ere. Esaterako: *beldur izan hiltZEAZ / beldur izan erortZEA / beldur izan hartZERA / beldur izan jaustEN.*

5.2.2.  
Galdera/zalantza  
bat gorde lezaten  
izenen osagarriak:  
zehargalderak  
izenlagun

Beste zenbait izen ardatz berezik (EGLU-V, 153-5) zalantza, kezka, duda edo galdera bat gorde lezakete bere barne (*zehargaldera* bat). Hala moduzko izenak: *duda, galdera, itauna, zalantza*, edo bai eta ere, *auzia, beldurra, ikara, kezka, zurrumurrua, ...*

- Horietan, argigarri ematen den zehargaldera (askotan *ote* partikulaz), mai-zenik ematen da (zeharradierazpenetan bezala) izen ardatzaren ondoren, ohiko *-(e)n* atzizkiak (*-(e)netz* ere zehargaldera orokorretan iparraldean):

- (605) **Zalantza** egiten dut *Ester etorriko ote den(etz)*.
- (606) Ez daukat **zalantzarik** *Ester noiz etorriko den*.
- (607) **Beldurra** sentitu dut *noiz hilko ote naizen*.
- (608) **Kezka** *bizia* zuen *inoiz gertatuko ote zen*.

• Gutxiago batzuetan, ordea, zalantza edo galdera hori estuago lotu ohi zaio izen ardatz horri ezkerretik *-(e)n* atzizkiz:

- (609) *Ester etorriko ote den zalantza/galdera/kezka/uste horrek* ez du zentzurik.
- (610) Eta ez zion erantzun *Ester etorriko ote zen galderari*.
- (611) Etorri ez zitzaidan ba Idoia berriro *Ester garaiz etorriko ote zen kezka-rekin!*
- (612) *Inoiz gertatuko ote zitzaion ikara handia* zuen.

• Halakoetan ez da harrizkeoa hiztunak *-(e)ko* atzizkia ere (izenlagun bihurtzaile orokorra) eranstea *-(e)n* atzizkiari, *-(e)neko* atzizkia eraginez), seguru asko, egituraren bitxitasunaren adierazgarri:

- (613) *Ester etorriko ote DENEKO zalantza/galdera/kezka/uste horrek* ez du zentzurik.

5.2.3.  
*Agindu/desio bat*  
*gorde lezaketen*  
*izenen*  
*osagarriak:*  
*Subjuntibozko*  
*izenlagunak*

EGLU-Ven jasotzen dira (155-8) zenbait izen ardatz berezi (*agindua, beldurra, desira, eskea, galdea, nahia, ...*), beren barne, agindu edo nahi bat gorde lezaketenak (hau da, *zeharragindu* bat), eta hau esaldi osagarri gisa erakutsi, subjuntiboan aditz jokatu, edota *-(z)eko* atzizki jokatu gabe bidez.

• Halakoak ere maizenik aposizioan ageri ohi zaizkigu (zeharradierazpen eta zehargalderak bezala):

- (614) **Agindua** eman ziguten *berehala joan gintezen*.
- (614.a) **Agindua** eman ziguten *berehala joateko*.
- (615) Orduan eman ziguten **agindua** *berehala joan gintezen*.
- (615.a) Orduan eman ziguten **agindua** *berehala joateko*.
- (616) Han etorri zitzaigun zelataria *Santa Kruzen aginduarekin* *berehala joan gintezen*.
- (616.a) Han etorri zitzaigun zelataria *Santa Kruzen aginduarekin* *berehala joateko*.

• Beste gutxiago batzuetan, ordea, izen ardatzari lotuagoak ageriko dira, honen ezkerretik emanak subjuntiboaren *-n* atzizkiz (inoiz *-(e)neko* (?)), edota *-(z)eko* bidezko egitura jokatu gabeaz. Bai eta ere, aukeran, eskuinetik aposizioan, dagokion determinantez emana –kasuan murriztaile gertatuko direlarik–.

- (617) Orduan eman ziguten *berehala joan gintezen agindua*.
- (617.a) Orduan eman ziguten *berehala joateko agindua*.
- (617.b) Orduan eman ziguten **agindua**, *berehala joatekoa*.
- (618) Han etorri zitzaigun zelataria *Santa Kruzen berehala joan gintezen aginduarekin*.
- (618.a) Han etorri zitzaigun zelataria *Santa Kruzen berehala joan gintezen* **DENEKO aginduarekin**.
- (618.b) Han etorri zitzaigun *Santa Kruzen berehala joateko aginduarekin*.



- (618.c) Han etorri zitzaigun *Santa Kruzen aginduarekin, berehala joatekoa*. ((?) *berehala joatekoarekin*)<sup>33</sup>.
- (619) Ez zait ondo iruditu *etxera joan gaitezen agindua*.
- (619.a) Ez zait ondo iruditu *etxera joateko agindua*.
- (620) *Guztiak maite hazaten desio mugagabe horrek* galduko hau.
- (620.a) *Guztiak hi maitatzeko desio mugagabe horrek* galduko hau.

## Bibliografia aipatua

- Alberdi, J., Garcia, J.** 1996. «Zein (...) bait/-n» egitura. In Zabala, I. (koord.), 1996, *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*. EHU. 1996: 131-167.
- Alberdi, J., Garcia, J.** 1997. «Zein izenordain erlatiboaren deklinabidea». *Euskera*: 349-57.
- Alberdi, J., Garcia, J.** 1998. «»Zein (...) bait/-n» erlatiboa: Literatura-Tradizioa. *FLV*, 78: 235-265.
- Alberdi, X., Garcia, J., Ugarteberu, I.** 2000. Perpaus osagarri izenlagunak: tradizioa (I, II). *ASJU*: 65-135; 231-289.
- Arakama, J. eta beste.** 2005. *IVAP-eko estilo-liburua*. HAEE-IVAP.
- Biguri, K.** 1994. Erdarazko erlatiboan itzulpenaz. *Senez* 15: 37-72.
- Biguri, K.** 1996. Erdarazko erlatiboan itzulpenak. In *Administrazio euskaraz* 13: 16.
- Epelde, I.** 2003. *Larresoroko euskara*. Doktorego tesia, EHU. Gasteiz.
- Euskaltzaindia.** 1999. *Euskal Gramatika Lehen Urratsak V (Mendeko Perpausak - I)*. Gramatika Batzordea. Bilbo.
- Hidalgo, V.** 2000a «Galdegai» bat baino gehiago erakutsi ohi duten esaldiez. Hitzen ordena esaldian: bereizi beharreko eztabaida arlo bi. Galdegaiaren inguruko ikuspegi berri bila (I). *Uztaro* 33: 43-85.
- Hidalgo, V.** 2000b Informazio unitate baten tamainako esaldi laburraren ordenamendu eta informazio-egituraren aukerak eta eraginak. Hitzen ordena esaldian: bereizi beharreko eztabaida arlo bi. Galdegaiaren inguruko ikuspegi berri bila (II). *Uztaro* 34: 39-85.
- Hidalgo, V.** 2002a Erlatibo hautsiak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (I). *FLV* 89: 27-80.
- Hidalgo, V.** 2002b -(e)n... erlatibo aposatuak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (II). *Uztaro* 42: 17-83.
- Hidalgo, V.** 2003 *Zein* (eta *Bait-*) erlatiboak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (III). *FLV* 92: 19-56.
- Hidalgo, V.** (2004) Izen ardatz determinatuga-been ondoko erlatiboak euskaraz. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (IV) *Gogoa* IV 1: 121-174
- Hidalgo, V.** (2005) Eskuinetiko erlatiboak euskaraz, izen ardatzaren ondoretik (ere) hedatzen direnak (eta V). Ikuspegi orokorra. *FLV* 98: 79-105
- Lafitte, P.** 1944. *Grammaire basque (Navarro-labourdin littéraire)*. Baiona, 1944 (2. arg. Bordeaux, 1962; Elkar, 1979).
- Mitxelena, L.** 1987-... *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia*. Euskaltzaindia.
- OEH: Orotariko Euskal Hiztegia**, ik. L. Mitxelena.
- Oihartzabal, B.** (1985) *Les relatives en Basque*. Département de Recherches Linguistiques (D.R.L.), Université de Paris.

33. Euskaltzaindiaren aposizioen gaineko araua gorabehera, kasuan ere arruntagoa dirudi aukera ez komunztatua.

- Oihartzabal, B.** 1987. *Étude descriptive de constructions complexes en Basque: Propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives*. Thèse de doctorat, CNRS.
- Oihartzabal, B.** 2003. Relatives. In J. I. Hualde, J. Ortiz de Urbina (arg.) *A Grammar of Basque*, Mouton de Gruyter: 762-823.
- Rebuschi, G.** 2004. Basque Semi-Free Relative Clauses and the Structure of DPs. *Lapurdum VIII*: 457-478.
- Rijk, R. P.G. de** 1972. *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*. Thesis. MIT, Cambridge, Ma., *The Chicago Wich Hunt, Papers from the Relative Clause Festival*, Chicago Linguistic Society.
- Rijk, R. P.G. de** 1979. Erlatiboak idazle zahar-  
rrengan. *Euskera XXV*: 525-536.